



Antonio Zavala

# Udarregi bertsolaria



12526  
GAS-128/81



# Udarregi bertsolaria

---

Auspoa Liburutegia

56

---

**SENDOA ARGITALDARIA**

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

**Antonio Zavala**

---

# Udarregi bertsolaria

(Bigarren argitalpena)

---

Auspoa Liburutegia  
(1994)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-12-7

Legezko Gordailu: S.S. 1.156/94

# Bigarren argitalpenarentzat oar batzuk

**U**darregi bertsolariaren bizitza eta bertsoak bigarren aldiz eskeintzen dizkiogu Euskal-Erriari.

Leenengo argitalpena 1966-an prestatu genduan. Urte artan Usurbilko erriak omenaldi bikaiña egin zion bere bertsolari ospetsu oni, eta guk ere geren aletxo orrekin lagundu nai izan genduan.

Bañan 1966-ko liburu ori, *Auspoa*-ren 56-garren zenbakia, aspaldi agortuta zegoan. Orain, ordea, ostera ere argitara emateko egokiera paregabea etorri zaigu: Udarregi il zala aurki beteko dirala eun urte; 1995-eko urriaren 2-an, ain zuzen; eta aldi ontan ere, arrazoizkoa danez, Usurbildarrak aundikiro onratu nai dutela Udarregiren izena. Guk, berriz, zer oberik egin genezake aren bizitza eta bertsoak berriro plazaratzea baiño?

Bigarren argitaraldi onek, olakoetan oi danez, leenengoarekin alde pixka bat badu. Batetik, oke-rrak zuzendu egin dira; eta, bestetik, bertso eta argibide berriak erantsi; 1966-ko liburu ura kalera-tu ezkeroztik eskuratu ditugunak, alegia. Erderaz esaten danez, *edición corregida y aumentada* degu, beraz, bigarrenko au; *zuzendua eta getua* edo orre-lako zerbait esan bearko genduke euskeraz.

Ala ere, 1966-ko argitalpena al dan neurrian errespetatu nai izan degu. Adibidez, orduko ortografia utzi degu, ezer ikutu edo aldatu gabe.

Gertaerak kontatzen edo-ta adierazpenak egiten ari generala ere, irakurlea bereala oartuko danez, 1966-ko urte edo garai artan sartzen gera; ez gaurkoan. Gaurkotu nairik asi ezkeru, idazkera erabat aldatu bearra zegoan, izan ere; eta bere artan uztea obe zala pentsatu degu.

Leenengo argitaraldi artatik bigarrenengo ontara ia ogei ta amar urte igaro diran ezkeru, gure orduko berri-emale asko eta asko mundu ontatik joanak ditugu. Olakoei beren izenaren ondotik *zana* itza eranstea ongi legoke noski; bañan bere arriskua badu orrek ere. Batzuek zer egin duten, bizi diran edo il diran alegia, ez baitakigu; eta ortan deskuidatzea, gauza tristea ez-ezik, mingarria ere izango litza-ke. Ala, eranskin ori gabe idatzi ditugu izen guziak.

Udarregiren argazkirik, guk dakigularik beintzat, ez da iñun agertu. Bañan aren marrazki edo *caricatura* bat Donostiko *El thun thun* aldizkarian arkitu degu. Urrengo orrialdeetan ikusiko du irakurleak.

Bañan aren antza ondo gordetzen al du? Galde-  
ra orri ezin genezaioke zuzenean baiezkorik eman. Bañan Otañotarren marrazkiak ere aldizkari ortan agertu ziran, eta beraien argazkiak ere baditugu. Biak alkarrekin konparatuz, berriz, marrazkilariak bere lana txintxo eta leial egin zuala ikusten degu. Berdin izango da, beraz, Udarregirekin ere.

Ez det uste irakurleak beste argibiderik bear duanik, liburu au irakurtzen asteko. Orrialde auetan murgilduz une atsegiñak igaro ditzala opa diogu.

A. Z.



## Itzaurrea

**B**eti bezela, bi berri-emale izan ditugu Udarregi-  
ren bertso-bilduma au osatzeko: bertso-pape-  
rak eta erria.

Udarregik, gero zeatzago adieraziko degunez, etzekian ez irakurtzen eta ez idazten. Bañan, bertsoak paperetan jarri nai zituanean, erriko organis-  
tak egiten zion sekretariotza. Onela, iñork uste  
baño paper geiago argitaratu zituan.

Paper oietako batzuk, irakurleak ikusiko dua-  
nez, Udarregiren izenarekin atera ziran; beste  
batzuk, ordea, izenik gabe.

Bañan Usurbil, Aginaga eta Igeldo inguruko zaa-  
rrak oraindik ere oroitzen ziran alako gaiari bertso-  
ak jarri zizkiola Udarregik, eta bai bertso banaka  
batzuk gogoan gorde ere. Eta bertso auetatik atera  
al izan degu gure artxiboan egillearen izenik gabeko  
zenbait kanta-paper Udarregirenak zirala.

Beste batzuetan, berriz, erriak bertsoen batzuk  
eman arren, guk ez degu kanta-papera iñun ere  
arkitu. Alakoetan, erriaren aotik jasotako bertso  
pizar oiek eskeintzen ditugu, sailla ezin osatuz  
penaz gelditzen galararik noski.

Esan bearrik ez dago, aotik aorako bertsoak eta  
gertaera guziak erriari zor dizkiogula.

Erriarengandik jasotze-lan ontan, alegin guztian lagundu digu Usurbilko Felix Aizpuruak. Liburu ontako bertso asko etziran bestela jasoko. Eskerrik beroenak, biotz-biotzez.

Erriz-erri bertsotan maiz samar ibiltzen zan Udarregi. San Tomasetan Donostirakoa jakiña zuan. Baita euskal festa guzietara ere. Ala ageri da garai artako euskal errebistetan.

Plazan bertsoak kantatzeko eta paperetan jartzeko gauza zan, beraz. Bertsolari osoa, alegia, bertso-laritzaren bi alderdiak berekin zituana.

Gure zaarren iritzian, euskal bertsolaririk onenetako bat izan zan: Fernando, Xenpelar, Pello Errota. Otañotarrak, Txirrita eta abar jartzen ditugun mailla berean leku eman bear zaiona.

Onela dan ala ez, irakurleak bere buruz juzkatuko du orain, esku artean daukan bilduma onen bidez.

# Poetas Vascongados



*Juan José Alkain*

# Juan Jose Alkain Iruretagoiena(1)

**J**uan Jose Alkain Iruretagoiena, Udarregi bertso-  
laria alegia, 1829 urteko urriaren lenengo egu-  
nean jaio zan, Aiako errian, Uztaeta-buru base-  
rrian, goizeko seietan.(2)

Gurasoak, Juan Migel eta Frantziska Inazia, aia-  
rrak biak ere, izan zituan.

Aitaren aldeko aiton-amonak: Juan Bautista eta  
Maria Ana Josefa Lizaso, asteasuarrak.

Amaren aldekoak: Juan Manuel eta Maria Jose-  
fa Eguzkiza, aiarrak.

Egun berean bataiatu zuten. Juan Inazio Irure-  
tagoiena eta Maria Josefa Lizaso izan ziran aita eta  
ama-pontekoak. Azken au, Josefa Antonia Alkain-  
en ordezkari bezela.

Aitaren anai bat, Jose Migel, Aiako Irureta-andia  
baserrian bizi zan ezkontuta. Beste bat, berriz, Jose  
Inazio, aurrena Irureta-goienan eta gero Iturzaetan.  
Biak ere ondorengorik bazuten; eta, Irureta-goienan  
beintzat, urte askotan segitu zuan Alkaindarren  
jatorriak, Udarregiren lengusu propioak alegia.

Lau senide izan ziran: Manuel Jose, 1824-X-22-  
an jaioa; Maria Josefa, 1827-VIII-27-an: gure Juan  
Jose, irugarrena; eta Jose Maria, 1831-XII-4-an.

Guziak Uztaeta-buru baserrian jaio ziran, Maria Josefa izan ezik. Au Pillasoro baserrian etorri zan mundu ontara. Familia, beraz, lenengo Uztaeta-burun, gero Pillasoron, eta ostera Uztaeta-burun bizi izan zan. Bi baserriak alkarrengandik urbil samar daude.

Arreba bakar ori, Maria Josefa, goizeko ordubietan jaio zan. Egun berean elizara eraman eta bataiatu zuten. Bañan il ere egun berean egun zan.

Udarregik iru urte zituala, 1832-ko azaroaren 10-ean, konfirmazioak izan ziran Aian. Ortarako, garai artan Gipuzkoako zati aundi bat berari zegokionez, Iruñeko obispoa etorri zan: Sebero Andriani jauna, alegia. Azkeneko konfirmazioak 1819 urtean izanak baitziran, aldi ontan seireun eta emeretzi kristau bildu omen ziran sakramentu ori artzera. Aiako ballara guzietatik etorriko ziran. Udarregi ere orduan konfirmatu zan. Baita bere bi anaiak ere: Manuel Jose eta Jose Mari.

Onek zera esan nai du: iru urte beintzat igaro zituala Udarregik bere jaioterrian. Zein urtetan ez dakigula, bañan bera oso gaztea zala, famili guzia Usurbilko Udarregi baserrira aldatu baitzan bizi izatera. Txikitandik baserri ontan bizi izan ez balitz, etzioten Udarregi izenordea erantsiko.

Irakurleak jakingo duanez, ori bera gertatu zitzaion Txirritari ere. Au Ernaniko Latze-zar baserrian jaioa zan; bañan Txirrita izenordea ezarri zioten, familia Errenteriko baserri ontara aldatu zalako, eta berak bere burua andik ezagutarazi zualako.

Udarregi baserria, Usurbildik Aginagara kamioz goazela, eskubitara dago, mendi-kaxko baten gainean.

Gaur egunean ez da baserri ortan Udarregiren familikorik inor bizi; zein urtetan ez dakigula, Artikula-aundi baserrira aldatu baitziran.

Artikula-aundi Mendizorrotz eta Bordatxo edo Arratzain mendien arteko lepoan dago, Donostia aurre-aurrean duala. Etxea, Usurbilko partean; bañan lurrak erdizka: batzuk Usurbilko partean eta beste batzuk Donostikoan.

Elizako lanak egiteko, berriz, gertuena Igeldo zuten.

Mendi-lepo ortan beste baserri bat ere badago: Artikula-txiki. Ontan beste bertsolari bat bizi zan: Manuel Sagardia, izengoitiz *Oloki* esaten ziotena.(3)

Udarregi 1859-III-1-ean ezkondu zan, Maria Bautista Astiasaran Arsuagarekin. Ezkontza-agiriak dionez, ezkongai biak txikitandik Usurbillen bizi ziran: "*residentes en Usurbil desde su niñez*".

Andrea nungoa zan jakiten ez dago oso errez. Ezkontza-agiriak dionez, Azkoitiko alaba zan. Aita, Inazio, errezildarra, eta ama, Josefa, Alkizakoa. Bañan, Udarregiren eriotz-agiriak dionez, Errezilko alaba omen zan.

Udarregiren ama irurogei ta amar urterekin il zan. Aita, berriz, larogei ta amarrekin, 1883-I-9-an.

Udarregik iru alaba izan zituan: Mikaela Inazia, Josefa Inazia eta Juana Joxepa. Etzuan semerik izan.

Emaztea, bera baiño lenago il zan. Udarregi, berriz, 1895-X-2-an, irurogei ta sei urte bete eta biaramonean.

(1) Atal ontako argibide guziak Aia eta Usurbilko eliz-liburuetatik artuak ditugu.

(2) "*A primero de Octubre de mil ochocientos y veinte y nueve yo Dn Juan Antonio de Guibisasti Rector de la Iglesia parroquial*

*de San Esteban de la Universidad de Aya bauticé solemnemente en dha Parroquial a Juan Jose de Alcain, hijo legitimo de Juan Miguel de Alcain y Francisca Ignacia de Iruretagoiena naturales de esta Universidad; nieto por línea paterna de Juan Bautista de Alcain y María Ana Josefa de Lizaso naturales de Asteasu; y por la materna de Juan Manuel de Iruretagoiena y Maria Josefa de Eguzquiza naturales de esta Universidad: fueron sus Padrinos Juan Ignacio de Iruretagoiena y Maria Ana Josefa de Lizaso, por Josefa Antonia de Alcain, a quienes advertí el parentesco oficial y la obligación de instruirle en la Doctrina Cristiana; nació en Uztaetaburu a cosa de las seis de la mañana del mismo día: en cuja verdad firmé: Dn Juan Antonio de Guibisasti". (Aiako bederatzigarrren bataio-liburuan)*

(3) Bi baserri auek, bai Artikula-aundi eta bai Artikula-txiki, Bilbo-Donostia autopista egiteko bota zituzten.

## Udarregiren aita

**U**darregiren aita ere bertsolaria izan omen zan, ona gañera, esaten dutenez. Bañan, zoritxarrez, aren bertso gutxi jaso al izan degu.

Bertso-sail batzuetan, irakurlea oartuko danez, *Udarregi gaztia* esaten du semeak bere buruagatik. Onek, guk uste, *Udarregi zaarra* ere bazala esan naiko du, bertsolaria bera ere: bere aita alegia.

\* \* \*

Gau batez, erretira berandu samar egin zuan nunbait semeak, eta aitak kargu artu zion:

– Au ez da garaia gaztea etxera etortzeko! Aita-  
ren esanak ez al du baliyo?

Ta Udarregik:

– Bai semeak egingo baliyo!

Orduan aitak pentsatu omen zuan: “Ba! Bertsolari zetorrek! Semeak bertsolari-jatorria zekarkik!”(1)

\* \* \*

Beste batean, arto zuritzen ari omen ziran aita-semeak. Zubietako Lizarraga baserrian beste aita-seme batzuk bizi ziran, biak ere illerik etzutenak. Udarregiren aitak onela esan zion semeari:



- Aizak: Lizarraga zarrak buruan jarri omen dik peluka.

Ta Udarregik:

- Semeak ere obe luke baleuka.(2)

\* \* \*

Oria ballara, ango etxeak eta kamioa-eta alegia, egiterakoan, amar argin ari omen ziran lanean. Bai zenbait pioi ere. Garai artan, *siseroa* arbitrio-kobratzalleari esan oi zitzaion. Langilleentzako ardoa kontrabandoan pasatzen zan Lasartetik (Ernani) Oriara (Urnieta). Erri ontako agintariak errezeloa egin zuten kontrabandoa ote zebillen. Ala, egun batez, alkatea, bi kontzejal eta aguazilla Oriara joan ziran, eta kontrabando billa ibili ere bai. Bañan etzuten aztarrenik ere arkitu. Orduan, Udarregiren aitak onako bertso auek jarri zizkien:

1 Paratu nai nituzke  
bertso bat edo bi,  
*sisero* jaun oriya  
ibillera orri:  
ziran Treku ta Luis(3)  
eta Bordaberri,(4)  
kontrabanduan billa  
or dabilta larri.

2 Zulo ta piko-ondo,  
gañera sasiyak,  
ez dituzte seguru  
gaizki ikusiyak;  
armariyuan botak  
eraten asiyak,  
eraman dizkigute  
diranak guziyak.

3 Beren tabernatikan  
ekarritakuak  
utzi ta juan dira  
kontrabandokuak,  
ez izanagatikan  
berenaz tontuak;  
milagro bat egin du  
gure Jaungoikuak.

4 Erriko aguazilla  
gu giñan lekura,  
alkatian ordenaz  
aren mandatura:  
zer biar ote duen  
juan da Bentura,  
botak nai ziyozkaten  
laga aren kontura.

5 Agitz miserabliak  
entero poliki,  
iñork ere ez ginduen  
orduan erruki;  
eraman zituenak  
nun ziran badaki,  
berak entregatzia  
litzake obeki.

6 Zazpi bizkaitarrakin  
kuadrilla batian  
bazkaitan ari giñan  
aiek etortzian;  
kontrabandoko bota  
zeguen arri-pian,  
begiratu ezker  
billa zitekian.

7 Agitz miserabliak  
gera amar argin,  
geren abitaziyoz  
gaude Baso-aundin;(5)  
kontrabando aundirik  
eztiyegu egin,  
orain saia gintezken  
igual da berdin.

8 Orra bertso berriyak  
euskera garbiyan,  
argiñak paratuak  
dituzte Oriyan;  
ikasi nai dituenak  
artu memoriyan,  
jaian kantatutzeko  
sagardotegiyan.(6)

\* \* \*

Igande-goiz batez, Udarregiren aita triste etorri  
zan etxera. Semeak -emezortziren bat urte izango  
zitan orduan- onela galdetu zion:

- Aita, ondo triste etorri da gaur.

- I ere tristetuko intzake, neri eman didaten  
pasada eman baziaten.

- Jo egin al diote, ba, aita?

- Ez, ez niotek jo. Bañan Ollokik bertsoan gaiz-  
ki ibili niok.

- Etxean daukagu gauza orren erremedioa, aita;  
ez kejavu.

- Naiago niķek, ba, egia balitz.

- Gaur illunabarrean etorriko da gure soroaren  
ondora allorbetara, ta orduan egingo degu saio bat.

Ala, illunabarrean, juntatu ziran Olloki eta Uda-  
rregi gaztea, eta onek onela ekin zion:

Aspaldiyan arro zabiltz,  
Manuel Oloki,  
gure kontra mintzatzen  
zerade galanki;  
zu nagusi ziñake  
bestek ezpaleki,  
gu're bizi gera ta  
zabiltza poliki.

Saio luzea egin omen zuten; bañan goizean nagusi bazan ere, illunabarrean mendean gelditu Oloki, aitaren partez Udarregi gazteak azpiratuta.(7)

\* \* \*

Udarregiren aita irurogei bat urterekin Ameriketara joan zan, andrea ta famili guzia emen utzita.

Bañan kukuak oker jo zion lurralde aietan: emendik eramandako txanponak aitu, lanerako modurik ez eta etorri eziñik gelditu zan.

Ta paperetan bertsoak jarri zituan. Pedro Bidasorok -Eguzkitza baserria, Aginaga- sail ortako bertso oso bat eta beste baten zenbait puntu eman dizkigu:

Sei arrua ta erdi banitzan  
orain jetxi naiz bostera,  
au da munduko diferentziya  
egun batetik bestera;  
sosik baneuka Euskalerrira  
joango nitzake ostera,  
zer estadutan arkitzen naizen  
korputza erakustera.(8)

Familiya daukata urruti,  
andriak ez nau erruki,  
izurratu nau ederki!

\* \* \*

Ain zuzen, semearen ezkontza-agirian, aita itxaso-  
soz beste aldean dala esaten da: *residente en Ultra-*  
*mar*. Eta semea ezkondu zan urtean, 1859-an,  
aitak irurogei ta sei urte zituan.

Bañan etorri zan ostera ere; Usurbillen il bai-  
tzan, 1883 urteko ilbeltzaren 9-an, larogei ta amar  
urterekin, leen esan degunez.

\* \* \*

Lurralde aietatik etorri zanean, Donostira sartu  
omen zan leenengo, etxera bidean; eta an, Bretxako  
azokan, bere emaztea arkitu omen zuan, baserri-  
-tratuarekin etorria. Bañan andreak ezagutu ez  
gizon ura nor zan. Ori ikusirik, bertotan asi omen  
zan an bertan senarra, eta orduan ezagutu zuan  
emazteak, alkar pozez besarkaturik.

Gero, bertsoak jarri zizkion bere Ameriketako  
ibillera tristeari. Geiago omen ziran, bañan pare au  
besterik ez degu jaso al izan:

Amerikako biziya  
deskalabratzen asiya:  
Buenos Airesen espalda atera,  
Bitoriyan det autsiya;  
beti dago desgraziya,  
iñola ezin etsiya,  
ai au gauza itxusiya!

Medikuaren eskua  
ariña dalaik pixua  
eun da ogei duro igaro zan  
orduko nere gastua;  
masajiakin nastua,  
au ura ordu estua,  
jaunak, ez daukat aztua!

(1) Mateo Landa Alkain, Udarregiren billoba, Igeldo.

(2) Id.

(3) Kontzejalak.

(4) Alkatea.

(5) Oriako baserri bat, kamio ondoan,

(6) Ernaniko Antonino Pagolari jasoak.

(7) Migel Erauntzeta-Murgil, Murgil baserria, Igeldo.

Manuel Sagardiak -Ollokitarren ondorengoa bera, *Gure-etxea*, Lasarte- pasadizoa nola zan etzekian, bañan bertsoa beste onela eman zigun:

Zer esaten ari zera,  
Manuel Olloki?  
Gure kontra mintzaten  
zerade galanki;  
nola portatu zeran  
jendiak badaki,  
ni're bizi naiz eta  
itzegin poliki.

Manuel Olloki bertsolari orrek ere Sagardia zuan abizena, eta ari buruz lerro auek arkitu ditugu Donostiko *El Urumea* egunkarian, 1879-VI-3-ko zenbakian:

*"El viernes último entregaba su alma a Dios un anciano que reunía a las relevantes prendas de un corazón generoso y noble, las elevadas concepciones del espíritu y de la reflexión.*

*Este anciano era Manuel Sagardía, conocido por el versolari de Mendizorrotz o por Olloqui, nombre del caserío en que nació.*

*¿Quién no conocía a Olloqui?*

*Cuando llegadas las fiestas de la Virgen de Agosto se reunía el pueblo en compacta masa bajo los arcos de la Casa Consistorial, subía al tablado con seguro paso un anciano simpático y venerable, de juvenil mirada, de voz fresca y vibrante.*

*Empezaba el certamen y, en breve, se entablaba la lucha.*

*¡Cuántas veces los demás poetas, comprendiendo la superioridad del coblacari de Mendizorrotz, como tributo debido al más fuerte, dirigíanle sus tiros tratando de abrumarle, y Olloqui, con fácil palabra y asombrosa rapidez, contestaba a todos con finísima ironía e inesperados conceptos, granjeándose las simpatías y los aplausos de la entusiasmada concurrencia que se hallaba pendiente de sus labios!*

*Aquel anciano era Olloqui.*

*Ha muerto a los 81 años de edad en el caserío Articulachiqui, y el sábado fue enterrado en Usúrbil, llorado por su desconsolada familia y sus cariñosos amigos.*

*De los trece hijos que ha tenido quedan nueve que no olvidarán al amantísimo padre, al probo y laborioso trabajador, víctima de una pulmonía, debida al afán con que aún se entregaba a las faenas del campo, y con las que ha proporcionado y creado para sus hijos el bienestar y el desahogo.*

*Les acompañamos en el sentimiento".*

Uztapide zanaren aotik, berriz, Manuel Oloki onen bertso erdi bat jaso nuan:

Eure burua amorrai egin,  
beste guziak eskalu,  
a zer mutilla intzaken i're  
bestek abildadeik ezpalu!

(8) Bertso au Ernaniko Patxi Bakallorena izango da. Ikus Auspoa 66, 77 orrialdean.

## Aotik aorako bertsoak

**U**darregi mutil koxkorra zalarik, apaiza konturatu egin omen zan bertsoarako trebetasuna zuala; eta, probatu nairik, onela jarri omen zion puntua:

– Goizian jaiki eta  
lenbiziko lana...

Bai Udarregik azkar erantzun ere.

– Ziñatzia badakit  
prezisua dana;  
ez dakianik bada  
betor neregana,  
gaizki aterako da  
deskuidatzen dana.(1)

Bertso au bera, Lasarteko Sasueta-aundi baserriko Migel Zuaznabar-ek emana:

Xenpelarrek:

Goizian jeiki eta  
lenbiziko lana...



Udarregik:

Ziñatzia badakit  
prezisua dana;  
gero biotza jaso  
Jaungoikuagana,  
kondenatua dago  
deskuidatzen dana.

\* \* \*

Onako bertso auek kantatu omen zizkioten alka-  
rri, bein batez, Xenpelarrek eta Udarregik.

Xenpelarrek:

Nolabait pasatu degu  
oraindañokua,  
ez egunero janaz  
ogiya naikua;  
astian aurreratu  
ezin deu jaikua,  
partitzen lanik gabe  
sobratutakoa...  
Zer moduz bizi zera,  
Udarregikua?

Udarregik:

Zuk ogiya diyozu  
ta nik talua're,  
pozik jango lutekenak  
etxian badaude;  
askotan baba zarra  
oliyorik gabe,  
babarrunak aitu ziran,  
artoik eztakat batere...  
Igasi juanak dira  
arratoiak ere.(2)

\* \* \*

Bein batez, bidean zijoala, mando bat ikusi zuan  
Udarregik, eta onela kantatu zion;

Mando bat emen dago  
koronak utzita,(3)  
biar dan lekuraño  
ezin iritxita;  
Santik erosiya du  
merke iritzita,  
gero pasiatzeko  
kotxia erantsita.(4)

\* \* \*

“Bein Donostiko Udaletxera juan zan, paperen  
baten billa noski. Ikusi orduko -ain zan ezaguna-  
ezagutu zuten an ari ziranak, eta esan ziyoten:

– Emen asko gaude ta bertso bat bota bear diguzu.

Baita Udarregik azkar erantzun ere, aien naia  
beteaz. Ara nola:

Kontzejura etorri naiz  
paper baten billa,  
pentsatzen jarri ta ere  
au dek alper pilla!  
Pluma eta tintero,  
bastoi ta makilla,  
pobriak altxatzeko  
a ze kuadrilla!”(5)

\* \* \*

Udarregik, bere bizimodua gai artuta, onako  
bertso au kantatu omen zuan bein batean:

Lanerako ez gaude  
ziaro arretan,

etxian ematen digutena  
daukagu errentan;  
pobriak bizi biar  
pobrien errenkan,  
sardin zarra jan eta  
ura eran errekan.(6)

\* \* \*

Pello Errotak eta Udarregik onela kantatu omen  
zioten bein batean alkarri.

Pellok:

Tatxak oiek al dira  
errotariyenak?  
Abek ematen dituzten  
lotsak eta penak!  
Zulatzen ditutela  
zakuk besterenak...  
Nunbaitetik biar dik  
berak eztubenak!

Udarregik:

Pello, asi al zera  
gaizki arrantzan?  
Ajustatuko dizut  
zarraill ori giltzan;  
pobriak askorentzat  
ez lezake izan,  
nork beria biarko deu,  
*Juan Debalde* il zan.(7)

\* \* \*

Bertso au ere bearbada Udarregirena izango da:

Pello, ematen didazu  
zenbait estuasun,  
eztakit zuk nerekin  
zer arraio dezun;  
batian Tolosan ta  
bitan Astiasun,  
badakit neregatik  
zer esan dituzun.(8)

\* \* \*

Garai artan ba omen ziran illea oso luze ibiltzen zuten gizonak. Bein, olako igeldoar bat Agerre-azpiko sagardotegira etorri omen zan; ta, ondo berdindu zanean sagardoz, lo artu zuan bertan. Orduan, gazte batzuek illearekin sillari lotu omen zuten.

Ori ikusi zuanean, bertan zegoan Udarregik bertso au bota zuan:

Gaztiak badabiltza  
beren zortzikuan,  
ezkera akordatu  
lendabizikuan;  
igeldoar bat zegon  
Agerre-azpikuan,  
lorra erantsi diyote  
etxera eztijuan.(9)

\* \* \*

Aldi artan, Udarregi Usurbilko Xendoia tabernan zan bazkaltzen. Euxebi, ango etxekoandre gaztea, sukalde-lanetan ari zan.

Bazkalondoan, Udarregi sukaldera sartu zan eta onela esan zion:

– Aizu, Euxebi: zuri bertso bat botatzeko esan didate.

- Ori esan al diote?

- Bai.

- Bota beza, ba.

Ta onela bota zuan:

.....  
.....  
lana egiten dubenak  
jornala're on du;  
bi peztarena eman,  
irutxo bat kendu,  
ai urrengo astian  
beste bat bagendu!(10)

Bañan bertso au ez da aotik aorakoa, Udarregik  
idi-dema bati jarritako sail baten 11-garrena baizik.

\* \* \*

Neskatxaren bati kantatua:

Saltoa egin zan, neska,  
ankak arin-arin,  
egonda're gauz onik  
etzion berdin;  
koloriak txuri-txuri,  
betonduak urdin,  
neska mutil-zaliak  
ortan ezagun din.(11)

\* \* \*

Gregorio sastrea bertsolari ona omen zan.  
Bañan Pello Errotak ez omen zuan gauza ori aitor-  
tzen; ezta Gregorio il zanean ere. Eta, bein batean,  
Udarregik bederatzi puntuko bertso au kantatu  
omen zion Pellori:

Onrak merezi dizkik  
sastre Gregorियok,  
ua il ezkeru dituk  
arrokeriyok.  
Geiagua aizela  
zertarako diyok?  
Gauza ori nola dan  
bazekigu geyok.  
Arri zer nai diyok?  
Erregu akiyok,  
nai baldin badiyok,  
ik eta nik biyok:  
ildakuai pakian  
utzi akiyok.(12)

\* \* \*

Zer famili zuan galdetu zioten batean, Udarregik  
kantatua:

Iru alaba ditut  
oraindik gaztiak:  
zarrenak zortzi urte,  
sei ta lau bestiak;  
seme bat bear dala  
diyo emaztiak,  
atarramentu txarra  
jarri dit tristiak.(13)

\* \* \*

Bertso au bera, gertaera nola izan zan kontatu-  
ta, Bautista Zumetari (Txokoalde, San Esteban,  
Usurbil) jaso zion Felix Aizpuruak. Pasadizoa egoki  
dagoala ematen du, Udarregik bi alaba zituala dion  
ortan izan ezik. Dakigun bezela, iru baitzitian. Ira-  
kurleak, ordea, errex zuzendu dezake ori. Ona ber-  
tsoa eta gertaera, Zumetak zion eran:

“Beste bein Udarregiri gizon bat etorri zitzaion, Donostira bertsoara eramateko; ta, tratua itzez zerratu ondoren, elkar-izketan asi ziran, beren bizi-modua gai zutela. Bitartean, emaztea taloak erretzen ari omen zan sukaldean. Bi alaba zituzten, eta semerik ez. Ta gizon onek tamalgarria zala esan omen zion, ondorengo bertsolaririk ez izatea; ta orduan Udarregik bertso au bota zion:

Bi alaba daduzkat  
oraindik gaztiak;  
amazazpi urte batek,  
amabost bestiak:  
seme bat nai zuban  
nere emaztiak,  
amaika lan alperrik  
egin du tristiak!

Bereala, emazteak, irriparrez, talo-palarekin jotzeko kiñada egin omen zion”.

\* \* \*

Ziur esateko ez dakigu bertso au Udarregirena ote dan; bañan bearbada ala izango da:

Illetikan illera  
kontribuziyua,  
aurrak azitzeko a  
ze alibiyua!  
Etxian koipia falta,  
dendan oliyua,  
.....  
.....  
.....  
au dek erriyua!

Nun da baliyua?  
Purgatoriyua:  
zeñi bota jakin ez  
maldiziyua!(14)

\* \* \*

Urte batean, Donostira San Tomasetan bertsolariak eramateko kargua Pello Errotari eman omen zioten. Lau izan omen ziran kantu-lanean, eta berdin gelditu. Gero, onako bertso au kantatu zuan Udarregik:

Donostiyan jokatuak  
gu lau bertsolari:  
Usurbildik Olloki  
ta Udarregi,  
Zizurkildik Bernardo,  
Pello Errotari;  
lan ori markatzeko  
iru epailari:  
Gazteluko Gorri  
eta Pedro Mari,  
Lertxundi jaun ori  
danon juzgalari;  
orrek esan du: "Lan au  
berdin jua bedi!"(15)

\* \* \*

Pello Errotak eta Udarregik, Ondarrabira bertso-tara deitu zituzten batean, onela eman zioten asiera saioari.

Pellok:

Berez kupi gaitzala  
guziyon jabiak,  
ta eman ditzaigula  
abillidadiak;



orain aстера guaz  
predikadoriak,  
beñe kolejiyuan  
ibilli gabiak.

Udarregik:

Asiera eman du  
Pello Errotariyak,  
batek ainbat eginkizun  
badaukagu biyak;  
aitortuko ditugu  
publiko egiyak:  
gure kolejiyuak  
sagardotegiyak.(16)

\* \* \*

Bein batean, Elgoibarrera joanda, bertso au  
kantatu omen zuan Udarregik:

Atzo Usurbildik atera giñan,  
gaur Elgoibarko kalia,  
Garizumaren atzena da ta  
sermoi bat egin nayian;  
fraile berriak sartu gaituzte  
emen komentu zarrian,  
zer mutil gauden probatutzeko  
ez gaude toki txarrian.(17)

Bañan, gure iritzirako, bertso au ez da Udarregi-  
rena, Jose Bernardo Otañorena baizik.

\* \* \*

“Ez dakit beste errietako berri, baño Usurbil'en  
beintzat, San Juan aurreko gabian, mutil gazteak  
San Juan eskian etxez-etxe ibilli bear izatea jakiña

izaten dute. Gau artan, bakoitzak bere itz neurtuetako trebetasuna agertu bear izaten du; etxe bakoitzean zerbait esan biar izaten baita. Urte barrunbian inor il dan etxian, bakarrik "Aita guria" esan da alde egiten dute.

San Juan aurreko illunabar batian Usurbil'ko Artikula-Aundiko alabatzua joan zan Aintzi baserriko Istoani esatera:

– Aitak esan dit mutil gazte batzuek biltzeko, gaur zuekin San Juan eskian ibilli nai lukela ta.

Juan Jose Udarrei zan bere alabatzua Aintzira bialdu zuena.

Esan bearrik ez dago, Istoanek berialaxe auzoetako mutillai deitu ziela, ta, Udarrei Aintzira etorri orduko, amalau bat mutil gazte bere zai zeudela. Ain atsegin zitzaien Udarrein itz neurtuak entzunaz gau ura igarotzea!

Ate-ondo guztietan zerbait esan omen zuan. Aidanean, amaika gauza eder bai! Oraindikan ere, Istoanek gogoan dauka Agiñako Uriberri ate-ondotan Mutiozabal'dar Migel Antoni bota ziona.

Au omen zan:

Migel Antonek dauka  
orrelako abillidadia:(18)  
egun bi dira jaio zala ta  
ori dek barku paria!

Migel Anton au il zala oraintxe da urtia. Azkeneko Agiñako itxas-ontzi egin-zalia izandu zan. Mapil da Urberri aldian amaika ontzi eder egin zituan, eta Europako guda ostean azkenekoa egin zuan ezkerostik, ez da geiago egin. Aspaldiko urte-tan Oriyon bizi zan eta kristau zintzoa bezela an il zan. Oar onekin obeto ulertuko dira Udarrein itz neurtuak."(19)

Ain zuzen, Aginaga'n ontziren bat uretara bota bear zan bakoitzean, Udarregi eramaten omen zuten bertsozara.

\* \* \*

“Igandea zan: gure Udarrei, Agiñagako elizan meza entzun ondoren, Aiako Agerreiko Patxiku mutilzarrarekin bildu da. Patxikuk bertsoan zer-bait bazala uste zuan, eta berak jarritako neurrian ezetz jarraitu esan dio Udarreiri. Onek baietz, eta Patxikuk:

Onera etorri naiz  
andregai bat naian...

Bai Udarreik jarraitu ere;

Serbituko zaitugu  
dadukagun gaian;  
billa ibilliko zera  
juan dan aspaldiyan,  
zuretzako modukorik  
ez al dago Aian?”(20)

\* \* \*

Beste bein, Udarregi zan inguruan, kapitan bat ezpata atera eta erronkaz asi zan, bateonbati lepoa moztu bear ziola.

Orduan onela esan zioten Udarregiri:

- Aitona, kapitan orri bertso bat!
  - Ez dek posible, motell! Ez dek ikusten nola dabillen?
  - Ez dio inporta, aitona! Bota!
- Ta, azkenean, onela bota zuan:

Zu izango zaitugu  
danoren kapitan,  
eziñ exeriko gera(21)  
edozein alkitan!  
Jarriko nizkizuke  
sei libra alkitran,  
erdiyak ipurdiyan,  
beste erdiyak praktetan.(22)

\* \* \*

Udarregi gaixo zegoalarik, Usurbilko medikua bisita egitera joan omen zitzaion, Aiakoa lagun artuta; ez dakigu ala tokatuta edo bien artean obeto ikusteagatik. Ta Udarregik bertso au bota omen zien:

Bat Usurbilko semia,  
Aiakua bestia,  
neri bisita egitera  
etorriyak-tia;  
eztula txarra daukat,  
petxuba tristia,  
ni sendatz'ez banaute  
gizonak ezta.(23)

\* \* \*

“...Agiñatik Usurbilla bide zabaletik zijoaztela, *Arranpla* deritzen zaion tokian txitxardiñ zaliak txitxardiñetan zebiltzala ikusi zituzten. Aiek ala ikusita, inola ere ezin igaro Udarrei ezer esan gabe, ta gau illun arren erdian bere abots ederrarekin txitxardiñ zaliai au abestu ziyen:

Jendiak badauka  
arraxkatu naia,  
txitxardiñagatik  
uzten due oia;

alperrikan benik  
al dan arte saia,  
kalatzen due baña  
utsik dator baia".(24)

Usurbilko Felix Aizpuruak beste onela jaso zuan bertso au, bañan Gaztelu bertsolariarena dalakoan:

Aberasteagatik  
eiten dira saia,  
angula arrapatzearren  
utzi dute oia.  
Orrela santifikatzen  
al dezute jaia?  
Kalatu dezute baña  
utsik dator baia.

\* \* \*

Artzai bati Udarregik bein batean bota ziona:

Antxi ontan daukagu  
artzai jendia,  
iñungo terrenotan  
mugarik gabia;  
eztu ilko gosiak  
onen artaldia,  
ezpada kejatutzen  
inguruko jendia.(25)

\* \* \*

Usurbilko Aintzi baserrian bi artzai ziran: Esteban eta Batista. Aietako bati bertso au kantatu omen zion bein batez Udarregik:

Antziya au daukagu  
artzai dezentia,

iñoren terrenotan  
mugarik gabia;  
gosiak ez du ilko  
onen artaldia,  
auzotarren batzuek  
kejatz'ezpadia.(26)

\* \* \*

Zubietako festak Santiagotan izaten dira. An mozkortu eta biamamonean oraindik ere burua ezin altxaturik zebillen bat, itxura gabeko bertsoak botatzen asi zitzaion Udarregiri. Eta onek:

Au da bertsolariya  
tokatu zaiguna:  
mingaña motela ta  
buruba astuna;  
atzo zan Santiago,  
gaur Santa Ana eguna,  
zurekin al daukazu  
atzoko laguna?(27)

\* \* \*

Bein batez, Igeldoko erria zer zan galdetu omen zion bertsoan Pello Errotak Udarregiri. Eta onek:

Zer dan galdetze'irazu  
Igeldoko erriya,  
besteik ez da ikusten  
sasi ta arriya;  
bosteun lagun daude,  
iruntzat ogiya,  
gañontzekoak dute  
ixtillu gorriya.(28)

\* \* \*

Donostiko Antiguako tabernaren batean erdi ipurdiko bertsolari batzuek ari omen ziran bertsoan; eta, Udarregi an zegoalarik, laguntza eskatu omen zion batek, eta Udarregik onela bota omen zuan bertsoa:

Jaunak, laguntza billa  
datoz neregana,  
auxen da lantegiya  
arkitzen zaidana!  
Batetik kemen gutxi det,  
bestetik erana,  
zutik geldituko da  
nik jotzen dedana.(29)

(1) Bautista Zumetari (Txokoalde, San Esteban, Usurbil) eta Antonio Portalekoari Usurbilko Felix Aizpuruak jasoa.

Badira bertso au Pello Errotarena dala diotenak, irakurleak *Auspoa*-ren 49-50-garrenean, 56 orrialdean, ikus dezakenez.

(2) Sorabillako Federiko Otegiri (*Andoain* izengoitiz) Usurbilko Felix Aizpuruak jasoa.

(3) Korona: lepokoa.

(4) Pello Saikola bertsolaria (Pedro Aranburu), Orio.

(5) *Ardunbe*, Felix Zatarain apaiz jauna alegia: *Udarrei, Argia'ren Egutegia*, 1933, 108 orrialdean.

Bertso au len ere argitaratua du *Auspoa*-k: *Pello Errotaren Itzala*, *Auspoa* 49-50, 87 orrialdean. Asteasu aldean Pello Errotarena dala diote; bañan Usurbil aldean Udarregirena dala.

(6) Sorabillako Federiko Otegiri (*Andoain* izengoitiz) Usurbilko Felix Aizpuruak jasoa.

(7) Id.

Bertso auek len ere *Auspoa*-n argitaratuak dira: 48-49, 50 eta 22-23 orrialdeetan. Ez, beraz, alkarren segiran: ta aldaketa nabarmen batzuekin, gañera.

(8) Id.

(9) Jose Ramon Alzaga, Olarrondo, Usurbil; Felix Aizpuruak jaso.

Mateo Landa Alkain, Udarregiren billoba. Onek zionez, sokaz lotu zuten, pala ta balenka erantsiz. Aldaketak: 1: Gaztiak zabiltzate; 2: zeren zortzikuan; 3: ni ez naiz akordatu; 5/ igeldor bat bada.

Asteasuko Bautista Kortajarena, *Ondartza*, Pello Errotaren billoba: 1: Gaztiak or dabilta; 3/ ez naiz akordatua; 5/ mutil eder bat dago; 7/ sokaz lotutzen dute.

(10) Manuel Urruzmendi, Larzabaleta, Zubieta, Usurbil.

(11) Felix Aizpuruak Usurbil aldean jaso.

(12) Migel Zuaznabar, Sasueta-aundi, Lasarte.

(13) Sebastian Salaberria, Oriamendi, Donostia.

Mateo Landa Udarregiren billobak puntu pare au eman zidan:

Iru alaba dauzkat,  
palta det semia,  
negarrez ixildu gabe daukat  
emazte tristia.

(14) Usurbilko Felix Aizpuruak jaso.

(15) Usurbilko Olarrondo baserriko Jose Ramon Alzagari Felix Aizpuruak jaso.

(16) Sorabillako Federiko Otegi (Andoain izengoitiz) Usurbilko Felix Aizpuruak jaso.

(17) *Ardunbe*, Felix Zatarain apaiz jauna alegia: *Udarrei, Argia'ren Egutegia*, 1933; eta Mateo Landa Alkain, Udarregiren billoba. Jarri degun era, bi jaun auk esaten zutenetik moldatu degu, Mateo Landak onela zion: *Abendubaren bita da eta*.

(18) Bearbada, bi lerro auk onela idatzi bearko lirake: *Migel Antonek daduka orre-lako abillidadia*.

(19) *Ardunbe: Udarrei, Argia'ren Egutegia*, 1933.

(20) Id.

(21) Bearbada, irugarren lerro ontan zera esan bearko luke.

(22) Mateo Landa Alkain, Udarregiren billoba, Igeldo.

(23) Usurbilko Felix Aizpuruak, Isidro Añorgari (Zabaltxiki, San Esteban, Usurbil) jaso.

Inazio Zubizarretak (Errementeri, Loiola, Azpeitia):

Gaxo pasa detalako  
joan dan astia,  
bi medikuk pentsa dute  
orain ikustia;



bata Tolosakua,  
aiarra bestia,  
oien bisita ez det  
gutxi kostia,  
ni sendatz'ez banaute  
bapuak ezta.

Pello Saikola (Pedro Aranburu, Orio) bertsolariak:

Jaun abek nai luteke nik orain  
kantu-lanian astia,  
Aiako medikua bat eta  
Oriyokua bestia;  
beti eztulka ari naiz eta  
daukat estomau tristia,  
ni sendatutzen ez banaute  
oiek gizonak ezta.

(24) Felix Zatarain apaiz jauna, *Ardunbe: Udarregi* idazlana, *Argia*-ren astekaria, 1933; eta *Argia*, 1935.

(25) Felix Aizpuruak Usurbillen jaso.

(26) Kristino Arruti Lertxundi, Errikotxia bertsolariaren biloba, Andu baserria, Orio.

(27) Jose Ramon Esnal, Arizmendi baserria, Orio.

(28) Id.

(29) Federiko Otegi, Andoain.

## Gerratea

**A**tal ontan esaten diranak, Mateo Landa Alkain Udarregiren billobaren aotik jasoak dira: aren alaba baten semea bera, eta Artikula-aundi base-rrian jaioa:

“Gure etxeak Mendizorrotz eta Bordatxo edo Arratzain mendiak ezker ta eskubi ditu; bien tarte-ko lepoan dago, Donostia aurrez-aurre duala.

Orregatik, karlisten gerratean, komeri latzak ikusi ziran an. Soldadu-saillak, batzuetan karlistak eta besteetan liberalak, maiz samar etortzen ziran.

Gero, denbora luzean, karlistak Mendizorrotz, Bordatxo eta Bentazikiñ-en egon omen ziran; libe-ralak, berriz, Igeldoko Gudamendi-n. Karlistak Bor-datxotik tiratzen zizkioten granadak Donostiari; baita liberalak erantzun ere.

Artikula-aundi baserriari ere tiratzen zioten, karlistak bertan gordeko ziralakoan. Etxe aundia zan: bi bizitzakoa. Gure etxekoak, tiroka alde bate-tik asten zitzaizkienean, beste aldeko bizitzara iges egiten zuten. Iru aldiz jo zuten granadaz. Pareta bat pasa eta bestea pasa gabe gelditzen zan granada.

Granada batek etxe-ixkiña jo eta arri sillarea puskatu zuan. Oraindik ere ala dago, iñork ikusi nai badu.

\* \* \*

Udarregi bera ixpitzat artu zuten. Ez dakit karlistak ala liberalak ziran. Il egin bear zutela. Udarregi, ordea, aldameneko borda batean, garo-pillan sartuta izkutatu zan.

Bañan soldadu tzar aiek, andik erretiratu baño len, borda ari su ematen asi ziran, an iñor ote zan pentsatu ere gabe.

Udarregik neskame bat zeukan, Pantxika, urte-mordoxka bat zuana. Onek, soldaduei morraletik eldu eta atera egiten zituan bordatik, eta sua itzali. Orrela salbatu zuan bere nagusia.

Gero, neskame ura, San Prantziskotan, Agiñagako festetan alegia, etxera konbidatuta etortzen zan urtero.

Usurbilko Erruki-etxean il zan. Entierroa Artikula-andik pagatuko ziola agindu zion gure aitonak, eta neronek eman nuan dirua.

\* \* \*

Beste batean, soldadu-sail bat gure etxean gelditu omen zan gaua pasatzera. Urrengo goizean, jeiki zanean, iru kaka-pilla arkitu zituan gure aitonak. Soldadu aietan euskaldunak ere baziran nunbait, eta onela esan zioten:

– Bota bertsoa oiri!

Bazekiten, ba, bertsolaria zana. Onelaxe kantatu zuan:

Goizian jeiki eta  
jarri naiz begira,  
bat ikusi nuan da  
bestiak segira;  
iñoiz patrullak sarri  
etortzen badira,  
gure suelo zarrak  
zimaurtuko dira.

Allegatu zaizkigu  
soldadu trastiak,  
batzuek onak eta  
gaiztuak bestiak;  
ez ditu ikaratzen  
propina uztiak;  
errezibitu ditu  
nere emaztiak,  
ez du suerte txarra  
izandu tristiak.

Ganbaran ein dizkigute  
iru kaka-pilla,  
orain joan bearra naiz  
jabiaren billa...

Bertso geiago ere baziran”.

\* \* \*

Bañan Felix Aizpuruak beste onela jaso dizkio gertaera eta bertso auek, Naparroako Leitzan jaio eta Usurbillen bizi dan Tomas Retegiri; onek bere aitari ikasi omen zizkion:

“Garai artan, gerratea bukatu eta fueroak galdu ondoren, gobernuak patrullak jarri omen zituan Euskal-Errian. Sei gizonen taldea izaten omen zan. Baserrietan bearrezkoa omen zuten otordua eta gaua pasatzeko lekua ematea.

Bein, Artikula-aundin tokatu omen zitzaien gaua pasa bearra. Seiak euskaldunak omen ziran. Jakin omen zuten etxe artan bertsolaria zegoana; eta, apalondoan, taloa eta esnea jan da gero, egiñalak egin omen zizkioten kantatzeko. Bañan, batetik barrenak ez agintzen eta bestetik bildurrak, ez omen zuan bat ere kantatu.

Urrengo goizean, aietako bati gogoak eman zion Udarregiri pegatzea; au da, txarkeria egitea; eta

beren egin bearrak suelo gañean egin omen zituzten, eta taloa ta esnea janda joan omen ziran.

Bañan zer gertatu da? Urrengo egunean beren nagusiak agindu diete berriro Artikula-aundira joatea; eta orduan berak ere bildur, azio txarra eginda zeuden eta. Bañan esan omen zuten:

– Gaur ere esan bear zioagu, ba, kantatzeko!

Ezetz esango zuala uste zuten, bañan Udarregik erantzun omen zien:

– Bai; gaur kantatuko dizuet.

Eta onela bota zien:

Bar arratsian sartu zaigu  
etxian patrulla,  
ganbaran ein dizkiate  
iru kaka-pilla;  
maiz etortzen bazaigu  
olako kuadrilla,  
ez degu juan biarrik  
zimaurraren billa.

Oietik jeiki eta  
jarri naiz begira,  
antxen aurreraxeguan  
beste bi segira;  
maiz etortzen bazaigu  
olako kuadrilla,  
gure suelo zarrak  
ustelduko dira”.

\* \* \*

Errenteriko Baringarate-goiko baserriko Eusebio Zabalak iru bertso auek eman zizkigun, aurretik adierazpen au egiten zuala:

“Onako bertsoak lengo karlista gerra zarrian tokatutako asuntua da. Zeñek jarriak diran ez dakit; bañan nik bertso auek onela aditu izan nituen: etxe batean bertsolariren batek kantatu zituela.

Allegatu zaizkigu  
soldadu trastiak,  
batzuak onak eta  
gaixtuak bestiak;  
ez ditu ikarutzen  
propina uztiak,  
errezibitu ditu  
nere emaztiak,  
fortuna txarra eztu  
izandu tristiak.

Goizian jaiki eta  
jarri naiz begira,  
pilla bat ikusita  
bestia ensegira;  
ikaratu eta ni  
beste aldera jira;  
oiek patrullara maiz  
juntatzen badira,  
gure solairu zarrak  
ustelduko dira.

Ni enkargatu naute  
bertsuak jartzeko,  
gauza dan bezelaxe  
nago esplikatzeko;  
kontu politikak dira  
nunai kantatzeko,  
nunbait propina zeuden  
guri botatzeko,  
argizai utzi dute  
sala plotatzeko.

\* \* \*

Aiako Errejista-goiko baserriko Jose Odriozolak onela esan digu:

“Egun batez, soldadu tzar batzuek arkume bat arrapatu zioten. Aren falta sentitu zuanean, berealaxe pentsatu zuan Udarregik zer izango zan. Joan zan soldaduengana, eta orduantxe zijoazen jaten aстера. Onako bertso au kantatu zien:

Penagarriyak dira  
olako kasuak,  
eztizkidazue eragin  
alperrik pausuak;  
zueiri ere gustatzen  
mokadu goxuak,  
zeren kulpa zedukan  
arkume gaxuak?”

## Fueroen alde

**A**rdunbe izenordeaz izenpetzen zuan batek, Felix Zatarain apaiz jaunak alegia, onela zion bere *Udarregi* idazlanean, *Argia* astekariaren Egutegian, 1933-an, eta *Argia*-n, 1935-I-20-an:

“...Ala gertatu zan S. Tomas batzuetan Donostiko antzoki zarrera eraman zutenian.

Pello Errotak, Otañok, Ollokik eta Udarreik itz neurtuetan, amaika txalo irabaziaz, saio ederra eginda gero, antzoki jaia antolatu zutenak Udarregiri eskatu zioten Fueroen alde zerbait esateko.

Bere gogozko gaia zualako, etzioten bi bider eskatu izan bear. Begi eder aiekin antzokiyan zeudenai begiratu bat eginda gero, zutikan jarri-rik asi zan:

Aberats eta pobre,  
markes eta konde,  
begira badaukagu  
makiña bat jende.  
Ez giñuke esango  
bildurrak bagende:  
zertan egon biar degu  
erdaldunen mende?(1)



Zaute atentziyuan  
piskatxo batian,  
beriala esango  
det nola nukian:  
utzi deiguela  
guri pakian,  
aindu dezatela  
beren parajian.(2)

Pello, konprenditu ezak  
nere auko itza,  
atentziyoz bazaude  
ez da izango gaitza:  
Gernikako arbola  
euskeraren giltza,  
ez gaitue bentzituko,  
alperrik dabilta!

Itz neurtu oiek entzunda gero, ango txaloak noski! Batzuek buruko txapela botiaz, bestiak "goraka!", guziak zutik jarrita, alegindu ziran atsegiña Udarregeri agertzen.

Zoritxarrez, oien atzetik bota zituan itz neurtuak betiko galdu ziran, ez baitzituzten artu. Baño entzun ziotenak diyotenez, gero ta gero obiagoak bota omen zituan, aditzalle guztiyak txoratuta utzirik."

(1) Igeldoko Mateo Landa Alkain-ek, Udarregeriren billobak, onela eman zidan bertso au:

Probintzi ontan bagaude  
makiña bat jende,  
aberats edo pobre,  
markes edo konte;  
ez giñake ariko  
bildurrak bagende:  
zertan egon biar degu  
erdaldunen mende?

Lasarteko Sasueta-aundi baserriko Migel Zuaznabar-ek,  
berriz, beste onela:

Aurrian ikusten det  
makiña bat jende,  
aberats eta pobre,  
markes edo konte;  
ez genduke esango  
beldurrez bagende:  
zertan bizi biegu  
erdaldunen mende?

(2) Bertso au onela jaso nuan Igeldoko Murgil baserrian:

Itzegiteko allegatzen  
gera korajian,  
gauzak esan ere bai  
klaro nola dian:  
guri utzi dezaiguela  
emen pakian,  
agindu dezatela  
beren parajian.

## Erantzunak

Udarregik aroztegian ere ba omen zekian. Erremienta asko izaten zituan: maia, zipillu ederak eta guzi. Kurtetxeak egiten ere bazekian.

Ala, egun batez, arotz-lanen bat egiten ari omen zan etxe aurrean. Izengoitiz *Muki* zeritzaion bat, etxe-aldaeran, Aiatik Igeldora, Erauntzeta-txiki baserrira zetorren bere trasteekin. Artikula-anditik pasatzean, *Muki* orrek onela esan zion Udarregiri:

– Juan Joxe, zer ari aiz: arotzin?

Eta Udarregik:

– Bai, motell, nere iritzin;  
obiago danik etzak irudituko probintzin,  
onena batek bear zin!

Orduan Udarregik galdetu zion:

– *Muki*, zer daramakik or?

Ta *Muki*-k:

– Emen? Arriua.

Eta Udarregik:

– Batenbatek eramango dik berriua!  
Ere traste txarrak eramán eziñik larri ua!(1)

\* \* \*

Udarregi Igeldora meza nagusira zetorrela, topo egin zuan Orioko Miel Anton Mutiozabalekin eta Aintzirako Ixtebanekin. Eiztari amorratuak ziran biak ere, eta erbi aundi bat ilda zeramaten.

Udarregik esan zien:

– Jaunak, egin al da *caza*?

Eta Ixtebanek, erbia altxatuz, erantzun zion:

– Bai; nai zuan, bañan ez da pasa!

– Lastima ere bazan olako gauza!

– Konbiatzen zaitut; etorri lasa!(2)

\* \* \*

Bein batean, Errikoetxia bertsolaria Artikula-aundi baserrira joan omen zan, eta iru asto ikusi omen zituan gaztain-morkots utsetan miazka; eta Udarregiri, tentatuz, onela esan omen zion:

– Zer ematen diezu oiri: gaztaña?

Eta Udarregik:

– Izan egin bear estraña.

Latzagoan dantzatzen dute ezpaña.

Balitz, gerok jango genduke, oiek ez baña!

Errikoetxiak orduan:

– Iru asto oiek zureak al dia?

Eta Udarregik:

– Bi neriak, artzaiarena bestia.

Igel pasa du lengo astia.

Asta-arra badaukat, baño gaztia.

Ezta atrebitzen oiekin astia;

badauka naiko buru-austia!(3)

\* \* \*

Erantzuera au beste onela jaso nion Lasarteko Sasueta-aundi baserriko Migel Zuaznabar-i:

Batek:

– Juan Joxe, orixe dek astozko pestia!

Eta Udarregik:

– Bai! Bi oik auzokuak tia,  
neria bestia.

Batek igel pasa dik astia.

Ar oi, berriz, gaztia.

Ez atrebitzen ezertan astia.

Badauka naiko buruaustia!

\* \* \*

Udarregi gaixo zegoalarik, bere alaba Mikela botikara joan omen zan sendagai billa. Eskatu ondoren, etzeukala erantzun omen zion botikarioak; eta Mikelak, asarreturik, onela dio:

– *Boticario sin botica,*

*¿qué demonio significa?*

“Kaka zutzat” esan zian,

onra aundi bat eman zian,

baztarrak orduan galdu zian!(4)

\* \* \*

Udarregik:

– Zer ari zera, Errikoetxia: koziñan?

Errikoetxiak:

– Bai; zuk ere ikusiko zenduan, lentxeago etorri baziñan!

Udarregik:

– Garaia zala ez abixatzeko, nun ziñan?(5)

\* \* \*

Amalau bat urte zituala, baserriz baserri zijoan bein batez Gaztelu bertsolaria, iru azarirekin, pizti gaiztoen dirua biltzen. Iritxi zan Udarregiren etxera eta onek ala esan zion:

- Kaixo, txikito! Zer abil?
- Ementxe!
- Zer dituk?
- Azariak.
- Zenbat?
- Iru.
- Balio ditek makiña bat diru.

Asko bildu omen zuan Gazteluk.(6)

(1) Mateo Landa Alkain, Udarregiren billoba, Igeldo.

Lenengo erantzuna beste onela jaso zion Felix Aizpuruak Sorabillako Federiko Otegi:

Udarregi, egurrarekin kertenen bat egiten ari omen zan, eta Errikoetxia bertsolariak esan omen zion:

- Zer ari zera, Juan Joxe: arotzin?
- Bai; ondo alare, nere iritzin!
- Onentxoena izango zera probintzin?
- Norbaitek bear zin!

(2) Mateo Landa Alkain, Udarregiren billoba, Igeldo.

(3) Erantzun auek, F. Aizpuruak Bautista Zumalderi jasoak.

Bañan besteren aotik ere jaso ditugu, alkarrengandik berezita ordea. Adibidez, Lasarteko Sasueta-aundiko Migel Zuaznarri:

- Udarregi, zer jaten ari dituk asto oik: gaztaña?
- Balego, gerok jango genikek estraña, oik ez baña; otiakin igurtzi biarko iek ezpaña.
- Juan Joxe, orixe dek astozko pestia!
- Bai; bi oik auzokuak tia, neria bestia; batek igel pasa dik astia, ar ori berriz gaztia; ez atrebitzen ezertan astia; badauka naiko buru-austia!

(4) F. Aizpuruak Usurbilko Olarrondoko Jose Ramoni jasoak.

(5) F. Aizpuruak Sorabillako Federiko Otegi (*Andoain* izen-goitiz) jasoak.

(6) Pello Saikola (Pedro Aranburu) bertsolaria, Orío. Gazteluri berari entzun omen zion.

## Idazteko lana

Udarregik etzekian irakurtzen eta idazten. Azpeitiko Premioaren ondoren piztu zan sesioan, kontrarioak beren paperetan ziotena jakingo bazuan, aldameneko baserrira, Artikula-txikira, joaten omen zan, papera irakur zezaioten.

Nola, bada, argitaratzen zituan bertso-paperak? Ona zer dion Mateo Landa Alkain Udarregiren billobak:

“Nik ez nuan nere aitona ezagutu: nere arreba Dominika zanak bai. Ta onela onela esaten zuan:

Bertso somatzen, bere gisa, garia jotzeko kuartoan aritzen zan; ta, bertsoa somatu alean, tella-puska batekin paretan arrastoa egiten zuan. Kuarto guzia arrastoz betea zeukan.

Gero, Usurbilko organista zan Jose Txiki (Jose Aranburu) etortzen zitzaion. Garia jotzeko kuartora joaten ziran; ta an, arrastoen aurrean, Udarregi len somatutako bertsoak esaten asten zan, ta Jose Txiki eskribitzen. Gero, onek betetako papera inprentara eramaten zuten.

Arrastoak berdintsuak ziran, bañan gure aitona-arentzat izango zuten diferentziren bat.

Aitona arrastoak egiten ikustean, onela esaten omen zion gure arrebak:

– Aitona, nik egingo diot arrastoa!

Ta arek:

– Milla aingerua! Utzidazu, umea! Zoaz, gaixo ori, emendik!

Makiña bat aldiz kontatzen zuan gure arreba zanak”.

\* \* \*

Bañan, Jose Txikik joaterik etzeukanean-edo, Udarregi bera jeisten zan Usurbilla, eskuan makil bat artuta; eta paretako arrastoak makillan ekartzzen zituan. Ta makillari begira esaten zizkion bertsoak Jose Txikiri.(1)

(1) Jose Ramon Alzaga, Olarrondo, Usurbil.



## (1862) Pelota-partiduaren bertsoak

**O**nako bertso aukerak *Argia* astekarian arkitu ditugu, 1933-ko maiatzaren 14-eko eta 21-eko zenbakietan.

Apirillaren 30-ean, Ipar-Amerikan (Mountain Home, Idaho) zegoan euskaldun batek bertso oien eskaera egin zuan, *Argia*-ren *Galde-erantzuerak* izeneko saillean; eta *Aingeru* idazleak bialdu, sail ortan bertan argitaratzeko. Zortzigarrena ez omen zekian *Aingeru* dalako orrek.

**I** Milla zortzireun eta  
irurogei ta bian,  
bertso berriak jartzen  
orain naiz abian;  
pelotariak izan  
dira Donostian,  
fama zabaldu bear det  
España guztian.

- 2 Zazpi espñoolekin  
Mateo frantzes,  
partiduba orretan  
izan da trabesa;  
arrixkatua bada  
zenbait interesa,  
irabazi duanak  
aprobetxa beza.
- 3 Irutatik bi bazan  
frantzesaren bando,  
trabesa doblatuban  
asi ziran sendo;  
azpeitiarra dago  
jo gabia fondo,  
orren fabore zana  
atera da ondo.
- 4 Mateo ta Urtxalle  
irundar batekin,  
laugarrena Arrasko  
or zuten berekin;  
Bautista ta Zirilo,  
Ezkerra eta Joakin,  
orra zein diran esan  
nai dubenak jakin.
- 5 Pelota aidian artzen  
frantzesaren maña,  
indarrez artzen dio  
nai duan tamaña;  
badakiela nago  
diabruak aña,  
oraingua galdu du  
abilla da baña.

6 Manuel Urtxalleko  
ez dago tontua,  
plazara joan liteke  
jaun orren kontua;  
ezaguera ona ta  
joera prontua,  
zartuagatik dauka  
gorputz sueltua.

7 Irundar sakalari  
oriyekin zanak  
listo egiten ditu  
pelotaren lanak;  
artarako apropos  
egiña du amak,  
merezi ditu eta  
artu ditzan famak.

8 .....

9 Oiek onak ziran da  
bestiak obiak,  
guztiak dira gizon  
kupira gabiak;  
bertsuak jarritzeko  
badira bidiak,  
arritu gaituzte oien  
abilidadiak.

10 Azpeitiar ori da  
berez trinketista,  
luze eta errebotatuta;  
ona da Batista;  
ez det esan biarrik  
begira egon naiz ta,  
ez dauzka galduak  
besua ta bista.

11 Zirilok jokatu du  
egoki ta fuerte,  
baduela derizkiot  
batek ainbat parte;  
pelota argandikan  
etzebillan aparte,  
alegiña egin du  
partida dan arte.

12 Ezker orrek dauka  
golpe egokia,  
argana dijoana  
dago errukia;  
izaten badu ondo  
artzeko tokia,  
kintze arrek izaten du  
deskantsu txikia.

13 Joakin sakalaria  
pelotari fiña,  
badauka malizia  
gizon baten diña;  
arek neurritu ezker  
kintzia jakiña,  
zenbaiti egin dio  
sabeleko miña.

14 Biba azpeitiarra,  
portatu da oso,  
gradueta geitxoro (*sic*)  
biar degu jaso;  
partida irabaziya  
ari dala kaso,  
berriz jokatzeko ere  
daude animoso.

15 Askok espero zuten  
frantzes nagusi,  
bañan azpeitiarrak  
dio irabazi;  
oriyek desonratzen  
ez edozein asi,  
tamaña artako asko  
nik ez det ikusi.

16 Oiek pelotariyak  
zaizkigu etorri,  
badakite plazako  
zirkilluen berri;  
orren goien-barrenak  
ongi dira neurri,  
txiripa asko pasa  
ziyoten alkarri.

17 Guztiak egin dira  
ogei ta bost joko,  
bitartean izan da  
luzapena pranko;  
*cuarenta ados*-ara  
bajatzen zan bapo,  
nun billatzeko beste  
zortzi orrelako?

18 Kintze batez plazako  
oien ibillera,  
bost biraje pelotak  
gora eta bera;  
azkenian Batistak  
baztar-bazterrera,  
bistan gauden guziok  
ikaratu gera.

19 Oiek eman dituzten  
gusto arrituak,  
arraiskatuak dira  
gizon korrituak;  
batzuek ez dirade  
galtzak berrituak,  
beste asko badira  
ondo geldituak.

20 Jaun oieiri graziyak  
euskeraklaruan  
eman biar zaiztela  
gendukan goguan;  
komeni ere bazan  
nola emen nagan,  
Udarreiren sermoia  
orra nun dagan.(1)

(1) Zenbait tokitan ez ditugu itzak *Argia*-n dauden bezela idatzi, gaizki zeudelako ustean. Astekari onek onela zion:

5/3: *indar artzen dio. Indarraz artzen dio* idatzi degu, urrena aitatuko degun eran, Leitzan jasotako ortan alegia, orrela esaten baita.

6/4: *jaun orren kontura*. Punturako ala bear dualakoan, *kontua* idatzi degu.

7/2: *oriyekin lanak*. Poto, beraz; *oriyekin zanak* idatzi degu, Leitzan jasotako eran orrela baitago.

9/5: *besuak jarritzeko*. Dudarik ez da *bertsuak jarritzeko* izango dala.

10/2: *beraz trinketista*. Garbi dago *berez trinketista* bear duala.

13/7: *zenbati egin dio*.

\* \* \*

Leitzako Gorritiene baserriko aitonak sail ontako amar bertso buruz zekizkian, eta bere biloba Maria Josefa Zestauk kopiatu eta bialdu zizkigun. Onako auek, alegia, beste orden ontan: 1, 4, 2, 3, 10, 5, 6, 12, 13, 7.

Aldaketak: 2/3: Partidu orretantxe; 2/5: arriskatu ere bai; 3/6: poderean ondo; 3/7: aren fabore zana; 4/1: Mateo ta Urzelay; 4/3: Arroxko Beratarra; 4/4: an zuan berekin; 4/7: orra esan zein diran; 5/1: Pelota bolera artzen; 5/4: nai zuen tamaña; 6/1: Urzelay ori ere; 6/5: ezaguera aundia; 6/7: zartua izateko; 7/1: Juakin sakalari; 7/6: egiña da amak; 10/5: esan bearrrik ez det; 10/8: besuak ta bista; 12/3: argana dijoanak; 12/4: dauka errukia; 12/5: pelota ondo artzeko; 12/6: ark badu tokia; 12/7: kintze orrek izango du; 13/3: malezia badauka; 13/5: au ukitu ezker; 13/7: zenbaïti eman dio.

## Bei baten gertaera

Udarregiren urrengo bertso auk Usurbilko bei baten gertaera kontatzen dute. Balentin Ota-mendiren (*Espaldi, Villa Bigarrena, Aginaga*) aotik jasoak ditugu. Bañan paperetan agertutako sail bat omen zan. Bertso geiago ere ba omen ziran. Gañontzekoak aaztu, ordea. Karlisten gerratea bukatu eta laister jarritakoak omen dira.

1 Tristurak nago, asi biar det  
libertsyua berritzen,  
gu oraindikan aprendiz gaude,  
eztegu asko korritzen:  
Galardi-azpiko Eujeniyo orri  
nua bertsuak jarritzen,  
or gertatu dan kaso batekin  
guztiyok gaude arritzen.

2 Larre-beien bat Aranburutik  
aspaldi zuan erosi,  
gezurrik ez nun publikatuko,  
nik ala ditut ikasi;  
zenbaitek eztu ganadubakin  
suerte onik merezi,  
aurten ez ditu umiak ein da  
ixtillu txarrak ikusi.



3 Artzaien batek eman omen du  
larre-bei orren berriya:  
inposiblia egongo dala  
umia eiteko larriya;  
buelo aundiya daukala eta  
errape izugarriya,  
obe lukela balerukake  
etxe aldera ekarriya.

4 Mendira jua da beia billatu,  
lazua erasten dira asi,  
kolpia tira bañan utsegin,  
beia saltoka igesi;  
amerikano askok bezela  
oraindik eztu ikasi,  
begira zanak oiekin eztu  
pesta gaiztua ikusi.

5 Aita-semiak izan biaute  
beia etxian sartuba,  
pesalunbriak ikusitzeko  
mundu ontara sortuba;  
oriyen kejak kontatutzeko  
etzan egongo gortuba,  
izan biar du derrigorrian  
Gilisagastin sartuba.

6 Andik etxera ekarri dute  
orgullo aundi batian,  
gubernatzeko jarri omen du  
amarraturik katian.  
“Esnia pranko emango digu  
onek umia egitian,  
denboraz bota lezake eta  
ernai ibilli gaitian”.

7 Txal gaztetxo bat nola dabillen  
abisua da etorri,  
zer esan ere etzekiten  
begiratubaz alkarri;  
gizon abillak izanagatik  
beiari ezin igarri.  
Zer egin dute? Agiñagatik  
albaiterua ekarri.

8 Albaiteruak esan omen du  
ikutu baño lenago:  
“Orren barrenen umerik danik  
nere artian enago;  
egin da ondo sendatu ere  
egiña dala ni nago,  
rekonozitu egin biarko  
deskuidatuba banago”.

9 Errejizatzen asi omen da  
tokatzen zaion graziyan,  
albaiterua ondo zijuan  
zebillen irabaziyan;  
Eujeniyo're ondo izana  
bere denbora guziyan,  
oriyek baño estubago zan  
txekorra Irisasiyan.(1)

10 Albaiteruak esan omen du:  
“Dago umia egiña,  
esnia dauka turbiyatuba  
tiratzeko alegiña;  
errapia're gogortutxua,  
ori da gauza jakiña”.  
Eujeniyoren zilimoniyak:  
“Len akordatu bagiña!”

- 11 Arrautzak artu pardelian ta  
Irisasira jun zian,  
enteratubak egongo ziran  
txekor-orrubak nun zian;  
umill askua billatu dute  
agoniyako trantzian,  
alimenturik izan ezpalitz  
lan diabrubak an zian.
- 12 Arrautza oiek eman dizkate  
batitu edo nastuta,  
eskusa gabe gaxuak artu,  
gosiak txantxik ezta;  
txit azkeneko asnasetan zan  
illoki odol ustuta,(2)  
sasi-zuloko kolaziyuak  
eztitu izango aztuta.
- 13 Lepo-otarrian sartuta dute  
txala etxera ekarri,  
berialaxe bota dizkate  
ama-umiak alkarri;  
bei koitadubak ikusi orduko  
arena dala igarri,  
etzan plakiyak aplakatzeko  
leku txarrera etorri.
- 14 Mapill-errekan beste beien bat  
omen zeguen saltzeko,  
Eujeniyo orri gogua egin  
ura dirutan artzeko;  
Jose Agustiñ e konporme zala  
milla errialian saltzeko,  
esku onetan allegatu da  
zer duben ezagutzeko.

15 Gizon oriyek pentsatu dute  
deposituban jartzia,  
edo bestela lengo jabiak  
atzera eramatia;  
ezpaita ondo beiari fama  
kulparik gabe galtzia,  
obe litzake pentsu onakin  
etxian gobernatzia.

(1) Irisasi, Usurbil eta Aia bitartean dagoan mendi edo baso  
aundi bat da.

(2) *Illoki* itz orrek zer esan nai duan ezin diogu antzeman,  
naiz eta Balentin Otamendiri orrela kopiatu genion, eta Udarre-  
giren 1966-ko liburuan ere orrela argitara eman genduan.

## (1878)

# Bertso berriak

**B**ertso auk *Donostiyán: Juan Osés-en moldizte-guián* argitaratu ziran paperetan. Ale bat Parisko liburutegi nazionalean arkitu genduan.

Paper orrek itz auk ditu eskuz erantsita: *Concours de Sn. Sebastian de 1878, par Juan Jose de Udarregui.*

**I** Ama Birjiñetarako  
señaladamente  
Donostiyán broma bat  
bidakaitu dute,  
bertsuetara juateko  
lau gizon dezente;  
iru apuntadore  
an zeuden presente;  
jarri gera frente,  
kantatu da fuerte,  
berak nai duen arte,  
ez degu izan kalte:  
milla errial premiyo  
eman digute.

2 Manuel Oloki eta  
Udarregi gaztia,  
Bernardo Otaño eta  
Pello bestia;  
dibersiyorako zan  
gure ajustia,  
ezta kalte piska bat  
alkar ikustia;  
ala zan ustia,  
erabat uztia  
da modu tristia,  
orra albistia;  
konbeni da pruebak  
erakustia.

3 Don Kanuto jauna zan  
komisionatuba,  
gizon orretzek badu  
fundamentuba;  
Oloki zarrarena  
au zan biartuba,  
biyen artian zuten  
lan au formatuba;  
nago informatuba,  
badu eskarmentuba,  
da adbertituba,  
estudiatuba;  
ez daukagu penarik  
guk ezagutuba.

4 Bernardo Otaño da  
txit balientia,  
Pello Errota ere  
korrientia;  
Oloki zarra berriz  
oso dezentia,  
Juan Jose Udarregi  
sufizientia;  
kuadrilla fuertia  
nai zuten juatia,  
gusto ematia  
zan borondatia;  
arako etzan kapaz  
inozentia.

5 Manuel Oloki zan  
nere lagun fiña,  
anparatutzen nuan  
nere alegiña;  
ala ere bagenduben  
naiko zer egiña,  
akabo zan bildurrak  
juan izan bagiña;  
boza du klariña,  
ez buru ariña,  
zartzera egiña  
edadez da, baiña  
zeñek egingo luke  
gizon orrek aiña?

6 Tablerora iyo ta  
eraso alkarri,  
patxara itxusiyan  
ez giñaren jarri;  
grano bat apenas zan  
bildurrak etorri,  
len ere nunbait jakin  
ainbesteren berri;  
bertso asko neurri,  
paperan ezarri,  
gero irakurri,  
begiratu orri;  
notiziyak izango  
ditugu guk sarri.

7 Orra lau bertsolari  
iru erritatikan,  
salida egin degu  
txit gogotikan;  
letra zuzenak daude  
gure gramatikan,  
osasuna desio  
nere partetikan  
txit biotzetikan;  
bi dira goitikan,  
beste bi betikan  
kantuzko platikan;  
beti azaltzen dira  
Gipuzkoatikan.



8 Gure apuntadoriak  
baitaude famoso,  
kortia eman zuten  
txit kurioso:  
obe zala gelditu  
guztioz onroso,  
formalidez egin  
nai zuten preziso;  
lan au dala kaso  
gaude animoso,  
guztiz kariñoso,  
txit biktorioso;  
kantidade igualak  
ginduben guk jaso.

9 Zelebratu genduben  
Ama Birjiñ eguna,  
illaren amabostian  
izaten deguna;  
Ramon Artola eta  
don Kanuto jauna,  
don Jose Manterola  
bazuten laguna;  
kuadrilla biguna  
tokatu zaiguna,  
gerok dakiguna  
leiala eta ona;  
prueban ezagutzen da  
prestu dan gizona.

10 Donostiyan dagan  
aiuntamentubak  
listo egin zituben  
orduko kontubak;  
baliyo izan zuben  
egin zan kantubak,  
berrogei ta amar duro  
ditugu artubak;  
beste alimentubak  
danak pagatubak,  
gabeko ostatubak  
len ajustatubak;  
gizon oiekin gaude  
txit gustatubak.

11 Nere dotriña dago  
garbi irakurriya,  
notatu eta paperan  
klaro ezarriya;  
premiyo kontu au da  
oraingo berriya,  
akaso izango da  
betiko jarriya;  
nago igarriya,  
talentuz urriya,  
ai nere larriya,  
bajatu naiz iya;  
agur aiuntamentu  
maitagarriya.

12 Orra bertsuak jarri  
Udarregi gaztiak,  
nik ainbeste deretxo  
badute bestiak;  
pena emango liket  
isillik uztiak,  
ez iñor ofenditu  
mintzatzen astiak;  
alkarri erastiak  
edo ikastiak,  
dira ondo kostiak  
kantuzko txistiak;  
ogiya jan dezala  
itxu tristiak.(1)

(1) Azken itz auek aditzera ematen dutenez, itxuren batek artuko zuan bertso auek saltzeko kargua.

# Bertso berriak

1 Milla zortzireunekin  
amairugarren urtian  
gerra bat izandu zan  
Españi partian;  
desgraziya gogorak  
askoren kaltian,  
Donostiya erre zan  
txit malamentian,  
irurogei ta bost urte  
ezta apartian.

2 Frantzesia España'ra  
traiziyoz zan sartu,  
Madrill'a jua da errege  
preso zuten artu;  
zaragata gogorak  
emen ziran sortu,  
baña kontrariyuak  
zitzaizkan agertu,  
arro etorri arren  
laster zan bildurtu.

3 Ustez Españaia'ko  
buru zan frantzesa,  
arren kontra etorri  
baizan ingelesa;  
anparatzalle txarra  
etzan portugesa,  
bestia erretiran  
estu eta presa,  
etzuen azkenian  
len aña grandeza.

4 Pesadunbria maiz-ta  
gerrako lanian,  
kulpa gabiai kargak  
bota geienian;  
ordenak partitu gabez  
errespeto onian,  
aguztuaren ogei ta  
amaikagarrenian,  
.....  
.....

5 Donostiya'rako zan  
egun itxusiya,  
ondo dakiyenakin  
nago ikasiya;  
nundik-nai sakioa  
eta desgraziya,  
gauza amabilia da  
personen biziya,  
Zubieta'ra etorri zan  
ango Justiziya.

6 Nola izan zan desgrazi  
orren ondoria,  
publikatzeko dana  
badet poderia;  
gauza galduak beti  
badu doloria,  
ziudade guziyak  
erre-koloria,  
estantzi estu artan  
aien baloria!

7 Tristura gogorra zan  
nere iritziyan,  
beren ondasunakin  
betiko etsiyan;  
etziraden egongo  
txit pazientziyan,  
ziudadia jarri nai  
lengo dezentziyan,  
Aizpuru'n junta egin zuten  
Agorran zortziyan.

8 Zerbait disimulatzen  
lengo desgraziya,  
enpeñatu zirala  
dago ikusiya;  
jueza ta konsula  
eta Justiziya,  
kabilo ta bezino  
kuadrilla guziya;  
etzuten zelebratu  
obra itxusiya.

9 Formal egitekotan  
alako kasuak,  
Justiziya ta konsula  
ziran prezisuak;  
bezino jaunak ere  
gizon balerosuak,  
gañera sazerdote  
relijiosuak,  
biyotzian ukitu  
Jaun amorusuak.

10 Tristura gogorra zala  
nago igarriya.  
Besterik zer egongo zan?  
Ondarra ta arriya.  
Erreunitu ziran  
egiteko berriya,  
len zan bezin dezente  
or dago jarriya,  
ziudade formala,  
txit gustagarriya.

11 Paperak orain dira  
errekonozitu,  
Don Nikolas Soraluze'k  
billatuak ditu;  
Aiuntamentuari  
dizka prebenitu,  
gero Gobiernora  
dute akuditu,  
milagro bat bezela  
zaie iruditu.

12 Ikusirikan obra  
ain arrigarriya,  
igez ta aurten egin da  
festa bat berriya:  
Aizpuru'ko etxiari  
arturik neurriya,  
arri marmol eder bat  
dute ekarriya,  
numeraturik dago  
dezente jarriya.

13 Festa zelebratzen da  
ondo dan moduan,  
meza eta sermoia  
tokatzen dan graduan;  
kargua eman zuten  
leku seguruan,  
Don Nikolas Soraluze  
an zan inguruan,  
pentsamentua franko  
bazeukan buruan.

14 Soraluze'k egin du  
bere alegiña,  
ondo deklaraturzen  
bada zer egiña;  
musika ta bertsolari  
eta danboliña,  
komediante moduko  
kuadrilla bat fiña,  
aumentua're bazan  
nai genduben aiña.



15 Zubieta'ko bezino  
estimagarriyak,  
leialtadiaz daude  
gogotan jarriyak;  
modu oiek argatik  
daude etorriyak,  
aitormena dutela  
gaude igarriyak,  
sijnifikantza dauka  
Aizpuru'ko erriyak.

16 Orra erregaliya  
Donostiya'k egin,  
Zubieta'ko jendia  
akordatu dedin;  
gauza onak errezibitzen  
beti da atsegin,  
graziyak eman nairik  
ondo ezin itzegin,  
gaitz erdi iñorekin  
ez banu utsegin.

17 Donostiya'k Zubieta'ri  
beti amoriyo,  
berak leialak izan  
dirala meriyo;  
beñere ezta izandu  
oien kontrariyo,  
señale bat ederra  
egin du seriyo,  
elkar estimatzia  
ez da misteriyo.

18 Orra bertsuak jarri  
euskera klaruan,  
ikasten ditubenak  
eduki goguan;  
lenago gauza ori  
ixilik zeguan,  
azaldu biar zana  
nola emen nagan,  
Alkaiñ'en predikua  
orra nun daguan.

Leenengo bertsoak dionez, irurogei ta bost urte ez dira apartean, Donostia erre zala. Beraz, urte oiek 1813-ri erantsita, 1878 urtea degu.

1877 urtean, Nikolas Soraluze kondairalariak *Memoria* edo idazlan bat agertu zuan Zubietako batzarrari buruz. Amaikagarren bertsoak itzegiten du orrezaz.

Urte berean, amabigarrenak dionez, Aizpurua etxeari "arri marmol eder bat" erantsi zioten, 1813-an an egin ziran batzarren oroigarriako, jaialdi ederrak ospatuz: "igaz ta aurten egin da festa bat berriya".

1878-ko festa zer izango zan, *Diario de San Sebastian* egunkariak adierazten du, urte artako irailaren 12-an, jaialdien programa argitaratuz:

### **Parte primera**

*"El 15 del corriente mes de Setiembre, domingo, habrá misas rezadas, por extraordinario, en la basílica del barrio de Zubieta.*

*La misa solemne la celebrará el Pbro. D. Ignacio Múgica, comenzándola a las diez de la mañana, y será presidida por el Sr. Alcalde pedáneo del mismo barrio, cuya comitiva la formarán el Sr. Soraluze como encargado del Excmo. Ayuntamiento de esta Ciudad de San Sebastián para todo lo concerniente a la organización y dirección de esta función cívico-religiosa, juntamente con algunos señores vecinos de Zubieta.*

*El orador sagrado, el Pbro. D. Isidoro de Bengoechea, predicará en vascuence.*

*La charanga y el tamboril, alternativamente, a las 9 y media de la mañana tocarán primero en frente de la fachada principal de la casa Aizpurua, en que se halla la gran lápida conmemorativa dedicada a aquellos héroes en 9 de Setiembre de 1877, y, satisfecho este acto de justo homenaje, después recorrerá hasta las 10 las inmediaciones de las casas centrales del barrio e iglesia, ejecutando aires de cantos euskaros.*

*Celebrada la citada misa cantada, el Alcalde pedáneo y su comitiva, con la demás de la concurrencia, pasarán al son de la música y del tamboril al frente de la preindicada fachada principal de la casa Aizpurua.*

*Ante ella, los trovadores vascongados, hijos de la contigua villa de Usúrbil, que espontáneamente se han ofrecido al Sr. Soraluze, ofrecimiento que ha aceptado con gratitud en nombre del Excmo. Ayuntamiento, don Manuel de Sagardia (a) Olloquegui, octogenario del cabello tan blanco cuanto sonora voz y aún potente inteligencia y memoria; y don Juan José de Alcain (a) Udarregui, respetado aun entre los mismos poetas, cantarán versos euskaros en loor a los insignes patriotas de las memorables Actas celebradas en los días 8 y 9 de Setiembre de 1813 en el salón de aquel frontispicio y lápida. Ambos son de los 4 poetas de los certámenes euskaros celebrados el 15 de Agosto próximo pasado y 9 del corriente en San Sebastián. Tal será la parte primera del programa”.*

## **Parte segunda**

*Después del cambio completo de decoración y aspecto, merced al satisfactorio desempeño de las interesantes funciones gastronómicas, para lo cual la isla Urbitarte, allí situada, es tan pintoresca cuanto apropiada, la música y el tamboril recorrerán de nuevo desde las tres y media en la misma forma que a la mañana.*

*Seguirán a esta excitante llamada para la juventud, aurrenescus, o sea zortzicos, y después bailes del país en la plaza pública en varias agrupaciones al son de la música, alternando con el del tamboril”.*

**Amalugarren bertsoak esaten duana, beraz: “musika ta bertsolari eta denboliña”. Onela jarraitzen du:**

*“Se jugarán partidos de pelota a rebote y a blé en oportunos intervalos, singularmente desde el medio día hasta las tres y media de la tarde.*

*Una media docena de los más aventajados jóvenes de los discípulos del señor don Marcelino Soroa, que dirigirá los ejercicios gimnásticos de la barra, desde 4 a 5 de la tarde, tocando en espacios dados la música, contribuirá también a dar mayor variedad a esta función cívico-religiosa de Zubieta, que ha de ser perpetuada como gloriosa memoria dedicada a aquellos insignes patricios que, en los días más aciagos para San Sebastián, nos dejaron tan gratisimo legado”.*

Soroa ori, ain zuzen euskal antzerkiaren alde ainbat lan egindako idazlea degu. Jimnasia-eskola bat izan zuan Donostian, eta bere ikasle gazte oiek izango dira amalaugarren bertsoak aitatzen dituanak: “komediante moduko kuadrilla bat fiña”.

Jaialdiak iragarrita zeuden bezela eta ezin obeto ospatu omen ziran, *Diario de San Sebastián* orrek iraillaren 16-an adierazten duanez. Bertsolariengatik onela dio:

*“Inspirados y muy felices estuvieron durante las 11 1/4 a 12 del día ante la lápida conmemorativa los antedichos trovadores Sres. Sagardía y Alcain...”*

*Frecuentes y nutridos fueron los aplausos que en aquel local merecieron dichos Sres. Sagardía y Alcain, lo mismo que a la tarde en las reuniones de la misma casa Aizpurua y en otra allí cercana. ¡Bien por estos bardos euskaros!”.*

\* \* \*

Bertsoen egillea Udarregi dala, azken bertsoak esaten du: “Alkaiñ'en predikua orra nun dagoan”. Abizen ori zuan beste bertsolari bat izan zan Urnietan. Baiña 1877-an jaioa. Gaiñera, bertso auen beste bi iturri ere badaude, eta oiek “Udarregiren predikua” edo “Udarregiren itzaldia” esaten dute.

Esan degunez, 1878-ko iraillaren 15-ean, Udarregi antxe zan Zubietan bertso kantari, Ollokiegi bertsolaria lagun zuala. Bertso auetan esaten dituanak ere, geienak beintzat, antxe jasoko zituan. Soraluze eta beraren idazlanaren aitamenak nola egingo zituan, bestela, irakurtzen eta idazten etzekian batek?

Alboan zuan bertsolari lagunak ere zerbait esango zion gai ortaz. Ollokiegi orrek, izan ere, larogei urte omen zituan 1878-an; amabost urte, beraz, Donostia erre zanean.

Orregatik esango du bosgarren bertsoan: “ondo dakiyenakin nago ikasiya”.

\* \* \*

“Bertso-sail au Jose Aranburu zanaren etxetik jaso degu. Len ere esan degun bezela, jaun au Usurbilko organista zan, eta *Jose Txiki* esan oi zioten izengoitiz. Beragana etortzen zan Udarregi, bertsoak jartzeko asmoak artutakoan”.

Orrela esaten genduan *Auspoa*’ren 56-garren zenbakiaren leenengo argitaraldian, 1966-an, Udarregiren sail onen aurretik, ondoren onela jarraituz:

“Bertso auek eskuz idatzita daude, ta puntu asko, lendabizi jarria zegoana tatxatu ta gañetik berrituta daude. Bañan guk lenengo era jarri degu, bigarrena oarretarako utzirik. Puntu berritzeari euskera garbitzearren ekin diotela ematen baitu”.

Aldi ontan, berriz, oarretan ez, baiña emen ezarriko ditugu aldaketa oiek:

1/7: arritzeko moduan; edo: arritzeko zerate; 1/8: nola entzutian; 1/9: Donostiya ere erretzeraño; 1/10: bada azkenian; 3/5: orobat etorri zan; 3/6: bada portugesa; 3/7: orduan erretiran; 4/1: Naigabia, Desgraziya; 4/2: gerra dagonian; 4/5: ordenak kunplitu gabez; 4/7: Donostiya erre zuten; edo: Donostiya erre zan; 4/8: San Roman egunian; 5/5: nundik nai lapurreta; 5/6: negar karrasiya; 5/9: nork esan zenbatek zuan; 5/10: orduan utziya; 6/3: adierazteko dana; 6/9: istillu gorri artan; 6/10: ai zer naigabia! 7/7: ziudadia jartzearren; 8/4: bada notiziya; 8/6: baita Justiziya; 8/8: onradua guziya; 8/10: junta itxusiya; 9/9: eman zituzten danak; 9/10: biar ziran pausuak; 10/2: gauza ikusiya; 10/5: asmua artu zuten; 10/7: len baño ere ederrago; 12/8: dute erantsiya; 12/9: juantako jaunen onran; edo: jaun aundi oien onran; 12/10: txit ondo jarriya; 13/4: Santiagoren onduan; 13/5: oroipena izateko; 13/6: betiko munduan; 13/7: aditutzen danian; 13/8: gertatu zana orduan; 13/9: negar malko samiña; edo: errukizko sentimentua; 13/10: sortzen da

barruan; 14/1: Donostiarrak egiten dute; 14/2: beren alegiña; 14/7: Aiuntamentua ere bai; 14/8: da gauza jakiña; 14/9: Zubieta'n juntatzen zan; 14/10: kuadrilla atsegiña; 14/7: Zubieta'n juntatzen da; 14/8: kuadrilla atsegiña; 14/9: Aiuntamentua ere bai; 14/10: da gauza jakiña; 15/1: Donosti'ko jendien; 15/2: ongi etorriak; 15/3: ta borondatiaz daude; 15/9: aditzera ematen du; 16/7: graziyak ondo emanaz; 16/8: nai litzake itzegin; 16/9: estimatu ondo ta; 16/10: ez al bait utsegin; 17/3: bera leiala izan; 17/4: dalako nai diyo; 17/8: diyo egin seriyo; 18/5: lenago kondaira; 18/6: atzendua zeguan; 18/7: berritu biar dala; 18/8: jarri zait buruan; 18/9: Udarreiren predikua.

\* \* \*

Bertso auen beste kopia bat, eskuz idatzita noski, geroztik ere eskuratu degu, Donostiako Anbrosio Zatarain jaunaren eskutik jasota. Amabost bertso ditu. Iru falta, beraz: 11, 15 eta 16-garrena.

Gaiñontzeko aldaketak: 1/1: Milla zortzireun eta; 1/7: arritze-ko moduan; 1/8: nola entzutian; 1/9: Donostiya erretzeraño; 1/10: bada azkenian; 2/5: naspilla txit gogorak; 3/3: baña arren kontra etorri; 3/5: igualmente etorri zan; 3/6: bada portugesa; 3/7: ordu-ban erretiran; 4/1: Naigabia maiz da; 4/2: gerra dagonian; 4/5: ordenak kunplitu gabez; 4/7: Donostiya erre zuten; 4/8: San Ramon egunian; 4/9: aguztubaren ogeta; 4/10: amaikagarrenian; 5/5: nundik-nai lapurreta; 5/6: negar karraxiya; 5/7: iñola eziñ aldegiñ; 5/8: ura desgraziya; 5/9: zenbatek utzi zuan; 5/10: erreta biziya; 6/3: adierazteko dana; 6/9: istillu gorri artan; 6/10: ai zer naigabia; 7/7: ziudadia jartzearren; 8/4: bada notiziya; 8/6: baita Justiziya; 8/8: onradu guziya; 8/10: junta itxusiya; 9/5: bezino jaunak eta; 9/9: eman zituzten denak; 9/10: al ziran pausuak; 10/2: gauza ikusiya; 10/5: asmua artu zuten; 10/7: len baño ere ederrago; 12/1: Ikusirikan orren; 12/2: erri eder aundiya; 12/3: urte oro egiten zan; 12/8: dute erantsiya; 12/9: Juntako jaunen onran; 12/10: ederki jarriya; 13/1: Festa elebratzen zan; 13/3: meza ta sermoiakiñ; 13/5: oroipena izateko; 13/6: betiko munduban; 13/7: sermoiyan esatian; 13/8: gertatu zana orduban; 13/9: errukizko sentimentuba; 13/10: sentitutzen da barruban; 14/1: Donostiarrak egiten zuten; 14/2: beren alegiña; 14/7: Aiuntamentuba ere bai; 14/8: da gauza jakiña; 14/9: Zubietara juntatzen zan; 14/10: kuadrilla atsegiña; 17/3: bera leiala izan; 17/4: dalako nai diyo; 17/6: bada kontrariyo; 17/8: diyo egiñ seriyo; 18/5: lenago kondaira ori; 18/6: atzenduba zeguan; 18/7: berritu biar dala; 18/8: jarri zait buruan; 18/9: Udarregiren itzaldiya.

## Usurbilko mixioa

**O**nako bertso auek Orioko Txara baserriko aitona zaarrak kantatu omen zituan bein batez arta-zuriketa batean, Udarregik jarriak zirala esanez.

Pello Saikola bertsolaria ere an zan, eta kopiatu egin zizkion.

Gero Pello onek, 1934 urtean, Orion mixioa zalata, argitaratu nai izan zituan. Naiz eta Usurbilko mixio baterako moldatuak izan, bear zana aldatu eta Oriorako ere ondo.

Bañan inprentara baño leen, Orioko apaiz batek, don Joakin Loidi zanak, bertsoak bere kontura artu eta an da emen itz asko aldatu zituan, euskera *garbitzearren*.

Orrela, bertsoak beren itxura guzia galdu atera ziran.

Bertso-paper au, *Elustondo-Zarauz* moldiztegian inprentatua, Adunako Kamio baserriko Segundo Mendibururen eskutik jaso genduan.

Emen argitaratzeko, ordea, Loidi apaiz jaunaren ikutuak kendu eta bertsoak beren jatortasunera ekartzen alegindu da gure Pello Saikola adiskidea. Apaizaren aldaketak, berriz, ez dute oarretan jartzerik merezi ere.

1 .....  
.....(1)  
bi milla emendikan  
ez dira aparte;  
Kristo mundura jaio  
dirala diyote,  
bertsuak ipintzera  
jarri azi naute,  
alegiña egin biet  
gauza naizen arte.

2 Orrenbeste urte da  
Kristo jaio zala,  
libruan jarri bazuten  
dana dan bezela;  
uste det an gezurrik  
egongo etzala,  
otoitz egiten diyot  
txit lotsa naizela,  
nere entendimentuba  
argitu nazala.

3 Lenagotikan bazan  
Jaungoikotasuna,  
Birjiñan entrañetan  
egin zan gizona;  
Trinidad Santuko  
bigarren pertsona,  
Aita Eternuan Seme  
gure Jesus ona,  
Espiritu Santuan obraz,  
guretzat gauz ona.



4 Belengo portalian  
Jesus jaio baitzan,  
beartasun aundiyan,  
ez dudarik izan;  
oñaze, neke asko  
arturik bizi zan,  
ogei ta amairu urtian  
emen ibili zan,  
gu salbatziagatik  
gurutzian il zan.

5 Adan eta Ebak egiñ  
zuten pekatuba  
erremediatutzen zan  
asko nekatuba;  
baizedukan anima  
askoren kontuba,  
Jesusen gurutzeko  
Pasio santuba,  
guregatik izan zan  
kruzifikatuba.

6 Jesus Nazarenua  
guztiyon jabia,  
serbituz maitatzia  
litzake obia;  
beste aldera dago  
zenbaiten legia:  
biziyo txarretara  
billatu bidia,  
naiago du serbitu  
etsai traidoria.

7 Asko sufritu zuan  
Jesus Salbadoriak,  
berak iriki zituan  
zerura bidiak;  
ondo aztubak gaude  
arren faboriak,  
atzeratu ditzagun  
etsai traidoriak,  
ez bagera mudatzen  
egin du guriak.

8 Gelditu ez gaitezen  
desanparatubak,  
oain etorri zaizkigu  
misiyo santubak;  
praile jaun orri gaude  
sermoi ona aitubak,  
sobra geunden etsaiak  
lepotik lotubak,  
zer estadutan gauden  
atera kontubak.

9 Misiyo santu oiek  
egin dute lana,  
arrimatu gaitezen  
Jaungoikuagana;  
biyotz umillarekin  
guazen beragana,  
egin zaun konfesiyo  
egiyazko bana,  
gaizki aterako da  
deskuidatzen dana.

10 Konfesatzera juanda  
zenbaitek zer dauka?  
Txikiyenak aitortu,  
aundiyenak uka;  
emakume batzuek  
senarraren kulpa,  
senarrak ere berriz  
arrazoia dauka,  
ez dago zerurikan  
gezurraren truka.

11 Konfesiyan esan  
dena dan moduban,  
iñoren aitzakirik  
ez egin orduban;  
zertan utsegin duben  
eduki buruban,  
bestela ez gabiltza  
leku seguruban,  
egiyaz dabillena  
sartzen da zeruban.

12 Kontu aundiyarekin  
egin esamiña,  
biyotzetikan artuz  
oñaze samiña;  
berriz ez mantxatzeko  
propositu fiña,  
penitentziya zuzen  
kunplitu alegiña,  
ezin deskuidatu  
zintzuak bagiña.

13 .....  
.....(2)  
biyotzetikan eman  
Jesusi graziyak,  
uste det dituala  
ondo mereziyak,  
bere odolarekin  
gaitu erosiyak,  
eriyotzaz ordaindu  
zituben guziyak.

14 Gure misiyo santu  
biyotz-biyoztiyak  
burura ditu gertu  
geren siniskayak;  
nola umiak ala  
eta aundiyak,  
utzi pekaturako  
bide ondatiyak,  
ori egintzen digu  
Jaun maitatiyak.(3)

15 Atzeratu ditzagun  
biziyo gaiztuak,  
utsa bezela dira  
munduko gustuak;  
eman biarrak gera  
txit kontu estuak,  
gure lanak ez dira  
izango aztuak,  
azalduko bait ditu  
Jaungoiko justuak.

16 Fede bizi batian  
orain jarri gera,  
maitatu nai genduke  
Jesus ona bera;  
ez degu ofenditu nai  
emendik aurrera,  
ez gaitu eramango  
paraje txarrera,  
gutzaz ezta aztuko  
saiatzen bagera.

17 Gorroto gaizto gabe  
bizitu gaitian,  
menturaz eriyotza  
degu bat-batian;  
berriz trabatu gabe  
etsaien katian,  
gure misiyo santu  
oiekin batian,  
San Pedrok sartu gaitzan  
zeruko atian.

18 Jaungoikoaren legia  
bete zagun kontuz,  
ofenditu degula  
gaude gu damutuz;  
biyotzetik eskatu  
berai pulamentuz,  
gorde gaitzala bere  
bendiziyo santuz,  
ala gerta dedilla,  
biba, amen, Jesus.

(1) Pello Saikolak atera arazi zuan paperean, bi lerro auk onela daude:

Emeretzireunekin  
ogei ta amalau urte.

Bañan ez baitakigu Udarregik bertso auk zein urtetan jarri zituan, ezin bete izan degu utsune ori.

(2) Bertso-paperak onela dio emen:

Osoro zuzendurik  
gure lengo gaizkiyak.

Pelloren iritziz, bi lerro auk ere apaizak aldatuta daude. Baiña iñola ere ezin gogoratu itz jatorrak nola ziran.

(3) Esan bezela, Pello Saikolak bertso auk beren jatortasunera ekartzen saiatu arren, ez det uste bertso ontan ori lortu zuanik. Ez du ematen Udarregik jarri bezelaxe dagoanik, beintzat.

## Bertso berriak larre-beienak

Udarregi etzan artzaia, bañan mendi-beiak, larre-ganadua alegia, bee aldean eukitzen zituan neguan. Udaran, berriz, maiatzetik negua berriro eldu arte, Aralar aldean.

Urte batean, negu sarreran, oi bezela, ganadua-ren billa joan zan. Billatu zituan beiak. Bañan, goitik beera Zaldibira zetorrela, an tokatu zitzaion Gaintzako kondea zaldiaren gañean, beetik gora, bere kapa ta guzi.

Kondeak, beiak topo egin zituanean, kapa atera eta bidea libratzen asi zan. Ganadu guziak ikaratu eta alde egin zuten. Udarregi, berriz, alerik ere bistan etzuala gelditu zan.

Andik laister beste gizon bat ikusi zuan. Onela galdetu zion:

- Adiskidea, zein zan gizon ori?
- Ori? Gaintzako kondia.
- Gaintzako kondia?

Demoniñoak eramango al dik olako jendia!

Gure ganaduak beintzat jun dia!

Gero, beiak ezin billaturik ibili ziran, mendi guziak korrituz. Billatuta ere, etziran beren bidera etortzen, eta zakurrekin ekarri bear izan zituzten.

Ondoren, pasadizoa bertsoan jarri zuan.

Berri auek, Mateo Landa Alkain Udarregiren billobaren aotik jasoak ditugu.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Getariko Garro baserrian eskuratu nuan. Berezitasun bat dauka paper onek: amarrekoak izanagatik, ez daukela bertsoak amar lerrotan idatziak, bostetan baik. Guk ere era ortan kopiatu ditugu.

Doiñua Mateo Landak kantatua da.

U - da-rre-gi ju - an da aur-  
ten A-ra - la - rra be - ti zu a-rra - pa-  
tze-ko na - go gi-zon za - rra zen-  
bai - tek a - di - tu-ta e - gin-go du fa-  
rra pe - na det min - ga - ñi-an i-  
bi - lli bi - a - rra au - rre - ne-ko jor-  
na-da ez - ken - du-an txa - rra.



- 1 Udarregi jua da aurten Aralarra,  
betizu arrapatzeko nago gizon zarra;  
zenbaitek adituta egingo du farra,  
pena det mingañian ibilli biarra;  
aurreneko jornada ez genduen txarra.
- 2 Aurten gelditu zaizku Aralarren beyak,  
etzituzten aditzen etxerako deyak;  
eraman gaitu aiek errenditu nayak,  
ezin billaturikan gure ibilliyak,  
onekin alderdirik ez du familiyak.
- 3 Bi gizon da zakurrak erritikan artu:  
Jose Maria Azurza, D. Bizente Portu;  
beste lagun batzuek an zaizkigu sortu,  
Aralarko mendiyak bapo dira neurtu,  
orra arro banitzan juiziyuan sartu.
- 4 Zaldibiyau dauzkagu bi sozionista,  
mendira egiten zuten iñoiz errebista;  
larre-ganaduakin disgustua maiz-ta,  
azienda gaiztua gelditutzen gaitz-ta,  
neonek dakit ondo proatuba naiz ta.
- 5 Zaldibira jua da biyaramonian,  
mendiz mendi asi giñan koraje onian;  
sustantziyan biar da alako lanian,  
zerbaiten aitzekiya bazan geienian,  
ez ditugu ikusi iru egunian.
- 6 Urte Zar eguna zan señaładamente,  
banuen inguruban makiña bat jente;  
napar artzaitxo batek eman zigun parte:  
puntu artatik beiak etzirala aparte;  
ankak dantzatu ziran aiek ikusi arte.

- 7 Salida egin degu Urte Berri goizian,  
zazpi gizon juañ giñan guztiko pozian;  
beiak jarri ditugu nai degun klasian,  
balazua bezin zuzen txit bide luzian,  
baña kontrariyuak guretzat bazian.
- 8 Beiak bota ditugu nai degun mendia,  
ustez egin genduen aziyo grandia;  
an fortunatu zaigu Gaintzako kondia,  
bi aldetara beiak saltaka juañ dia,  
bapo izorratu du orretzek jendia.
- 9 Beiak salto, guk segi, zer dibertsiyua!  
Ez nintzan nai orduko arañño iyua.  
Ataungo aldera urrengo sayua,  
ni ez naiz fortunoso mundura jayua,  
zori gaiztoz sortu zan konde arrayua.
- 10 Mateo Garmendia etzan apartian,  
alegiña egin du bere suertian;  
ganadu agurua guretzat kaltian,  
baña segitzen ziyen onradamentian,  
ark batu ditu oiek aitz-zulo batian.
- 11 Aitz-zulo orretara laister giñan bildu,  
zakurrak irrintziyaz, guk ezin ixilldu;  
bati ezpañetatik an ziyoten eldu,  
ankaz gora botata genduen uzkaldu,  
alegiña egin gabez ezta ezer galdu.
- 12 Bat bota genduen da bestia aurrera,  
zakurrak arengana urrengo sarrera;  
eldu ziyotenian egin zuen kera,  
ni ta Bizente Portu abiyatu gera,  
amildu egin zaizku arkaitzetik bera.

- 13 Amilduta osin-zulo batera sartutzian,  
luzaro egon gabe laiste irten zian;  
txala igesi zijuan, gu berriz atzian,  
ikusitzen genduen noizik bakoitzian,  
ura sentimentuba nere biyotzian!
- 14 Eguna pasa degu txit neke aundiyan,  
tabernaz aukerarik eztago mendiyen;  
laiste giñaden zerbait pentsatzeko gayan,  
aulduta jarri gera alimentu nayan,  
gauba pasa genduen Ataungo Ayan.
- 15 Gau ura pasa nuen oso penatuba,  
txala bere salletik abandonatuba;  
betiko gelditu naiz eskarmentatuba,  
zopa eta ura zan gure alimentuba,  
amalauna errial genduben kontuba.
- 16 Ango ostalariyak baloriak ditu,  
diru gutxitxorekin dirua du bitu;  
paraje garestira degu akuditu,  
gure kuarto apurrak laiste ziran aitu,  
Ataungo atsu orrek zikiatu gaitu.
- 17 Beia agertu da baña txal gaxua galdu,  
esanda ere zenbaitek sinistuko al du?  
Datozen kastiguai biar zaie eldu,  
lekua aldatzera genduen bialdu,  
Naparruako Etxarrin gero da azaldu.
- 18 Mateo Garmendia juan zan Etxarrira,  
pozez zoraturikan txalari begira;  
berak ekarri zuen andik Zaldibira,  
Artikulara zuten gero urrengo jira,  
ezurrak beraritan etorriyak dira.

19 Noizbait osatu zaizku ganadu guziyak,  
makiña bat funtziyo gaude ikusiyak;  
San Migeletan giñan aldrebes asiyak,  
geroztik izan dira modu itxusiyak,  
orain kontentu gera Jaunari graziyak.

20 Orra bertsuak jarri Udarregi gaztiak,  
euskeraz eman ditu bere albistiak;  
ni konfesatu naiz ta aditu bestiak,  
erotu ote naizen diyo emaztiak,  
arrazoia daukala deritzat tristiak.

## Bertso berriyak

**B**ertso auek, Oiartzungo Altzibar ballaran jaso nituan, Olalde baserriko Jose Anjel Sarasola-ren eskutik, moldiztegi-izenik gabeko paper batean.

Egillea nor dan ez da iñun ageri. Bañan Zubieta-ko Lartzabaleta baserriko Manuel Urruzmendik lau bertso aoz eman zizkidan, 5, 6, 7 eta 15-garrena, Udarregirenak zirala esanez.

**I** Paratu biar ditut  
bertso bat edo bi,  
zer gertatuko zaigun  
azkenian guri:  
pentsatzen ez degula  
eriotza etorri,  
kontua emateko  
anima ori larri,  
ojala orrelakorik  
gerta ezpaleri!

2 Ongi konfesatu eta  
mezak ere entzun,  
ia errezelarik  
barnan senti dezun.  
Relijio santutik  
al zaude jakintsun?  
Jaunak ezaguera  
ona eman zizun,  
begira deskuidorik  
gerta ez dakizun.

3 Palaziyo ederrak,  
munduko jardinak,  
ez bereala iltzeko  
asmoan egiñak;  
etsaiaren bandera  
egĩñ alegiñak,  
pekadori ingrato  
gaizki itzegiñak,  
Jaunak presente dauzki  
gure utsegiñak.

4 Espiritu malijno  
demoniño zarrak,  
Luziferrek ez dauzki  
laguntzalle txarrak;  
luzatzen dituztela  
beren atzaparrak,  
diranak gorrituak  
suak eta garrak,  
zer kontra egin lezake  
anima bakarrak?

5 Juiziyoko egunian  
suzko lau ibaia,  
eskuak berotzeko  
izango da gaia;  
iya, nere kristabak,  
lenagotik saia,  
gure animen billa  
or dator etsaia,  
Antekristo mundutik  
infernuko artzaia.

6 Orduan jartzen danak  
ibai oiei begira,  
naiko luke bereala  
sekatzen balira;  
kontu au dakitenak  
munduan badira,  
nik ikasi dedala  
oraindik berri da:  
Jesusen oñetatik  
jaioko omen dira.

7 San Juan Ebanjelistak  
au berak esana,  
bazekiyen nola zan  
ibai oien plana.  
Zer egin dezakegu?  
Au da gure lana:  
bitarteko paratu  
Andre Birjiña Ama,  
enpeña dakigula  
Seme Jaunagana.

8 Orra nola dijoazen  
urak itxasora,  
guziyon eriyotza  
orrela eldu da;  
ontarako jaio giñan  
kristabak mundura,  
pentsamentu txarrikan  
badator burura,  
egin dilijentziya  
sartzeko zerura.

9 Orra bertso berriyak  
orain, mundutarrak,  
askorentzat on dira,  
bestientzat txarrak;  
ikaratuak dauzki  
animako larrak,  
akordatu gaitezen  
gazte eta zarrak,  
zer nolakoak diran  
inpernuko garrak.

10 Infernuan badira  
zepo ta grilluak,  
egiya esaten badu  
nik dedan libruak;  
an ez du baliyoko  
batere diruak,  
atormentatuko du  
beraren selluak,  
posada gaiztuetan  
munduan bilduak.



11 Etsaiaren banderan  
baldin bazabiltza,  
maiz idukiko dezu  
aparte eliza;  
gustuak kunplitutzen  
animali-gisa,  
despreziaturikan  
Jainkuaren itza,  
orra nola galtzen den  
sekulako ditxa.

12 Bizimodu berri bat  
guazen artzera,  
ikusi gabetandik  
anima galtzera;  
ustez mundu onetan  
luzaroko ezker,  
emendik dijuanik  
ez dator atzera,  
etzaigu damutuko  
ondutzen bagera.

13 Etsaiak memoriya  
daukagu nasiya,  
gure animak dauzki  
iya irabaziya;  
arreta baten faltan  
lan ori guziya,  
apartatzen bazaigu  
Jaunaren graziya,  
izugarriya izain da  
gure sententziya.

14 Juiziyoko eguna  
egun bat larriya,  
aspalditik oi nago  
bildurrak jarriya;  
guziyok badakigu  
lan orren berriya,  
bitarteko paratu  
Birjiña Mariya,  
logratzeko Jaunaren  
miserikordiya.

15 Aingeruak tronpeta  
duanian jotzen,  
anima ta gorputza  
joango gera zuzen;  
jendia asiko da  
Josafaten sartzen,  
munduan asieran  
notiziya bazen,  
ai zer bildurtasuna  
sententziya artzen!

16 Zertarako jaio giñan  
mundu onetara,  
infernura joatekoz  
ango penetara?  
Zuzendu nai badegu  
oraindik beta da,  
zierto jakitera  
joain gera bertara,  
allegatuko gera  
trantze orretara.

17 Jesusen dotriña ona  
letuaz goazen,  
prebenitu gaitezen  
zerurako zuzen;  
anima egongo da  
kontentuz zorutzen,  
Birjiña Ama paratu  
graziyak logratzen,  
gauzarik bearrenaz  
ez gera akordatzen.

18 Prebenitu gaitezen  
gu guztiyok emen,  
ez dakigu eriotza  
uste gabe gauden;  
Mariya Santisima,  
lagun zaiguzu arren,  
iya gure trantze au  
noiz izango ote den,  
ondo gerta dedilla,  
biba Jesus, amen.(1)

(1) Manuel Urruzmendiren aldaketak: 5/9: Antikristo mundura; 7/5: zer egiñ al gentzaken; 7/8: gure Birjiña Ama; 15/3: korputza ta anima; 15/6: Josepetan sartzen.

\* \* \*

Guk bertso auek arkitu ditugun papera ez da Udarregiren denborakoa, askoz geroagokoa baizik. Ez dakigu, beraz, zenbatgarren argitaraldia izango dan.

Irakurlea oartuko zanez, Usurbil aldeko euskera ez dana ere azaltzen da an eta emen bertso auetan: *barnan, dauzki, nola galtzen den, izain da, bazen, joain gera, ote den...* Dударik ez da Udarregik etzituala oiek orrela jarri. Geroko eranskiñak edo aldaketak izango dira. Edo, bestela, bertso auen egillea beste norbait izango da.

\* \* \*

Errenteriko Jose Goñiren eskutik jaso genduan orri batean, sail ontako iru bertso arkitu ditugu, aldaketarik gabe eta makinaz idatzita: 1, 4 eta 6-garrena. Bañan baita beste iru bertso auek, Udarregirenak edo norenak diran ez dakigunak:

Zer pentsatutzen dezu,  
kristau txoratu?  
Non da Airstoteles,  
maiso famatua?  
Aborrezitu etzuen  
bere pekatua,  
Jaunaren sententziya  
kruel da artua,  
infernuko zoletan  
dago ondatua.

Igual ere omen dago  
errege Alejandro,  
sinistaturik nago,  
libruak esan du;  
pekadore ingrato  
nola zan izandu,  
akordatu omen zan  
Jainkuaz berandu,  
Luziferrek anima  
aisa eraman du.

Nai duenak eskoi ta  
nai duenak ezker,  
aukeran gaudenian  
Jaungoikoari esker,  
destinatuak gaude  
bagabiltza oker,  
gaitzerako pronto ta  
onerako alper,  
kristabak, eriyotza  
gurekiñ da laister.

\* \* \*

Aita Donostia zanak, bere *Euskal eres-sorta* liburuan (1921), 223 zenbakian, sail ontako leenengo bertsoa eta doiñua dakarzki, Arraiotzen bilduta:

Paratzera nuaie  
kopla bat edo bi,

zer gertatuko zaigun  
 azkenean guri.  
 Pensatzen ezteguna  
 eriyua etorri,  
 kontuen emaiteko  
 animo ori larri,  
 ojala olakorik  
 gerta ezpaledi.



Pa - ra-tze-ra nu - a - ie ko -



pla bat e-do bi zer ger-ta - tu - ko



zai-gun az - ke - ne - an gu - ri. Pen -



tsa-tzen ez - te - gu - la e - ri - yu - a e - to -



ri kon - tu - en e - mai - te - ko a -



ni - mo o - ri la - rri; o - ja - la o - la -



ko - rik ger - ta ez - pa - le - di.

\* \* \*

Ondoren, doiñu ori *Gure Herria* aldizkarian agertu zuan Aita Donostik, bukaeran argibide auek emanaz:

*"Cette mélodie a été publiée dans mon Euskal eres-sorta, n° 223. Je l'ai recueillie au début de mes recherches folkloriques de Miguel Esteban Gortari, âgé de 74 ans, le 11 décembre 1911. Il vivait dans la "borda" d'Inda du village d'Arrayoz (vallée de Baz-*

tan). Il tenait de ses parents que ces vers avaient été composés par "Kapote", fameux pertsulari de Sumbilla".

Bañan oraingo ontan, bakarra eskeiñi bearrean, zortzi bertso ematen dizkigu. Oiek nundik dituan adierazteko, onela esaten du:

*"Les couplets m'ont été communiqués par mon confrère, le savant euskeralogue, le P. Polycarpe d'Iraizoz, que les a copiés à Lanz, petit village de la Navarre".*

Bañan Lantzen bildutako bertso oiek, guzira zortzi, leenengoan izan ezik, beste sail batekoak dira.

Ala ere, guk leen idatzitakoa, bertso auek Udarregirenak ez dirala agian izango alegia, indartu egiten da Aita Donostiak esaten dituenekin.

# Santa Agedaren bertso berriak Udarreik jarriak

**B**ertso auek, Azpeitiko Fidel Uria apaiz jaunaren eskuz idatzitako kuaderno batean arkitu ditugu.

**1** Pekatariak etsai oekin  
degun gerra edo desditxa,  
enpeñatuko baldin bagiña  
sujetatutzen da errex;a;  
adi dezagun nola izan zan  
Santa Agedaren bizitza,  
bere etsaiak eman zioten  
txit martirio portitza.

**2** Kristau fielen alabantzan da  
tormentatua munduban,  
ez dakit eta nik ezin esan  
zenbat sufritu zituban;  
aspalditxoan libru batetik  
pruebak artu nituban,  
aztu ez bazat saiatu biat  
kontatzen ote ditudan.

- 3 Santa Ageda dama eder bat  
Sizilian zan jayua,  
Cataniako juezen mende  
igaro martiriyua;  
egin nai izan ziotelarik  
gaiztoak engañiyua,  
ez baizioten muda erazi  
sekulan opiniyua.
- 4 Cataniako gobernadore  
Kinziano zan orduan,  
kristandadia galerazi ta  
bere emazte nai zuan;  
Jesukristori bere bizitza  
len agindua baizuan,  
erejiakin bat egitiaz  
gustorik artzen etzuan.
- 5 Kinzianoren iritzirako  
ark esatia basta zan,  
bañan agindu etzionian  
bene-benetan triste zan;  
andre gaizto bat biraldu zion  
konbertitu al bazezan,  
atormentatu biarko zala  
baldin mudatzen ez bazan.
- 6 Andre gaiztoa bazebilkion  
ematen zenbait idia,  
toparik asko ematen zion  
atajaturik bidia;  
bingo batian esan zion eze:  
“Ez det galduko fedia,  
beste gizonik ez det biar da  
Jesukristo det neria”.



7 Andre gaiztoa bueltatu zan  
Kinzianorengana're,  
esaten zion: "Ez da mudatzen,  
ez det ainbeste balore;  
ez det sinisten neskatxa ori  
konbertituko dala're".  
Erantzun zion: "Mudatuko da  
tormentuakin bada're".

8 Burni-plantxa bi gori-goriak  
galtzarpietan sartuta,  
len bezin gogor zeguan santa  
oriek bertan oztuta.  
"Atormentatu dezagun gogor  
konbertitu nai eztu-ta,  
ezur guziak ego begitza  
prensa batian estuta".

9 Ereje oien krueldadia  
zenbateraño ote da?  
Ola bezela egindu zuten  
prensa artatik atera;  
ala ere ez konbertitu nai  
Kinzianoren aldera,  
agindu zuen sartu zedilla  
kartzela illun batera.

10 Kristok San Pedro biraldu eta  
argitu zion kartzela,  
gañera berriz esaten zion  
neskatx au senda zezala;  
penagarria billatu zuan  
zakar tartian zetzala,  
gorputz guztia sendatu zion  
lenago zuan bezela.

- 11 Kristal-puska ta *talavera*-kin  
galtzara eragin zuan,  
larru gorrian, soka lepotik  
zeukala, eraman zuan;  
an arrastaka erabiltzeko  
sententzia eman zuan,  
oiek guztiak eginda ere  
mudantzarikan etzuan.
- 12 Alde guztitik puska jario  
santaren gorputz ederra,  
au ikusi ta ez lastimatzen  
ereje biotz gogorra!  
“Borondaterik ez badaduka  
mudatuko du biarrak,  
arma zorrotz bat ar zazute ta  
ken zaizkatzute bularrak”.
- 13 Bular oriek kenduta ere  
bere koraje fuertian,  
galdetu eta erantzun zien  
leengo borondatian;  
agiñdu zuen sartu zedilla  
kartzela illun batian,  
an zeguela atera gabe  
bizia zuan artian.
- 14 Kalabozora eraman zuten  
puskak zintzilik zeuzkala,  
odola ere bazerarion  
iturriari bezela;  
Jesukristori eskatzen zion  
munduan aspertu zala,  
konbeni bazan, aren despeida  
arren disponi zezala.

- 15 Talavera-zko galtzara ortan  
guztia urratu zan da,  
kalabozuan ezin zeguan  
ez jarrita, ez etzanda;  
bai Jesukristok aditu ere  
adiskideak esanda,  
orain glorian gozaten dago  
minutu artan ill zan da.
- 16 Santa Agedak kulparik gabe  
orra zer paraderuak,  
gorrotu artu zion medioz  
ereje majaderuak;  
munduko gauzai begiratu ta  
au ematen dit goguak:  
gaurko egunean asko gaudela  
mudatzen errezaguak.
- 17 Ziertua da Santa Ageda  
modu orretan ill zala,  
banago eze libru orretan  
gezurrik jarri etzala;  
neronek oso sinistutzen det  
fedeko gauza bezela,  
gure Jesusek aren moduban  
indarrez jantzi gaitzala.
- 18 Santa Agedak boto firmia,  
guk alakua eztegu,  
jenio txarrak ditugulako  
arrisku aundiak dauzkagu;  
azken fiñian bitartekotzan  
bera jarriko al zagu,  
Udarrei zarrak au desio du  
ala konbeni bazagu.



## Asto-demaren bertsoak

**B**ertso auek Oiartzungo Altzibar baillaran jaso genituan, Portueneko Inozentzio Urkiaren eskutik, moldiztegi-izenik gabeko paper batean.

Baňan ez da Udarregiren denborako argitaraldia, askoz geroagokoa baizik.

Paperaren barren aldean Otaňoren *Mutil koxkor bat* bertsoak daude.

Udarregirenak dirala ez da iňun ere esaten. Baňan Mateo Landa Alkain Udarregiren billobak, Lartzabaletako Manuel Urruzmendik eta Portaleko Antonio Aizpuruak sail ontako bertso batzuk eman zituzten, Udarregirenak zirala esanez. Bertso oiek Felix Aizpuruak jaso zizkien.

Igeldoko plazan jokatu omen zan dema au: bost asto eta bei pareá, bertako arriarekin:


Bei pariaren kontra  
bost ziran astuak...

Eta:

lau asto eme aurrian  
ta ar bat atzian...

Arri txikia izango zan. Ala ere, galdu egin omen zuten.

Doiñua Fabian Loidi Igeldoko erretore jaunaren aotik jaso da.



As - ti - ar - te e - gu - na —  
se - ña - la - da - men - te — de - ma bat jo - ka -  
tzi - a — dis - po - ni - tu du - te —  
i - kus - te - ra jun gi - ñan — ma - ki - ña bat jen -  
te — gor - pu - tzak me - se - deik ez —  
pa - tri - ka - rak kal - te. —

**I** Astiarte eguna  
señaladamente,  
dema bat jokatzia  
disponitu dute;  
ikustera jua giñan  
makiña bat jente,  
gorputzak mesederik ez,  
patrikadak kalte.

- 2 Dema bat jokatu da  
Igeldoko erriyan,  
lau asto eme aurrian  
ta ar bat erdiyan;  
orlako funtziyorik  
juan dan aspaldiyan  
apenas izandu dan  
gure alderdiyan.
- 3 Bei pariaren kontra  
bost ziran astuak,  
kargetan ez pizkorrak,  
jeniyoz bastuak;  
aurrera biarrian  
iztingan listuak,  
ez dituzte eragin  
algara gaiztuak.
- 4 Markos argiña eta  
Maraita bestia,(1)  
desiatzen zan oiek  
plazan ikustia;  
nai zuten marka on bat  
an erakustia,  
asto diabru aiek  
portatu eztia.
- 5 Markos ori da gizon  
ikaragarriya,  
ekarri zuan ugal  
bat izugarriya;  
sorbaldatik lepora  
zedukan jarriya,  
tiratzen ziyon baña  
geldirik arriya.

6 Ikusgarri ederra  
or digute jarri,  
batzuetan iso ta  
bestietan arri;  
akullu motz banarekin  
zirikatu sarri,  
latigo eder asko  
etzuten ekarri.

7 Jende asko giñaden  
dema orri begira,  
makiñatxo bat gizon  
gustatubak dira;  
aurrera biarrian  
atzera salida,  
indarririk asko bazan  
portatu balira.

8 Astuak dadukate  
ejerziziyo gutxitxo,  
dema kontu oietan  
daude atzeratxo;  
arrieruak berriz  
nekatubak geitxo,  
batek esaten ziyon:  
“Arri, txiki potxo!”

9 Oso egoki ziran  
astuak jarriyak,  
alanbre ta kollare  
txit gustagarriyak;  
oiez gañera berriz  
bildots-zintzarriyak,  
Belabietatikan(2)  
zakuz ekarriyak.



10 Lau asto eme aurrian  
ta ar bat atzian,  
arto-burubak janez  
noizik bakoitzian;  
dema ori jokatu  
balitz maiatzian,  
panderubaren billa  
saiatuko zian.

11 Berriri portatu da  
iriyaren gisa,  
Boletiñian bialdu  
biar det Parisa;  
beiak egin zituzten  
bi arroa txixa,  
aien gañian marka  
ondu dute aixa.

12 Orra zer pasatu dan  
Igeldoko erriyan,  
esplikatu nai nuke  
eusker a garbiyan;  
arriya eraman dute  
bost oiñ da erdiyan,  
larri ibilli dira  
salbo-ta epurdiyan.(3)

(1) Maraita edo Marabita Igeldoko etxe baten izena da. Ango gizona aitatu ko da emen.

(2) Belabieta Amasako mendi-lepo bat da. Aren azpitik, tunel batean alegia, pasa bearra da Iruñetik Donostiraiñoko autobidea.

(3) Bertsoak erriaren buruan pixkanaka nola aldatzen diran ikusteko, ona emen Manuel Urruzmendik eta Antonio Aizpuruak eman zizkiguten bertsoen aldaketak: 1/3: dema ori jokatzeko; 1/5: inguratu giñaden; 1/7: gorputzak mesere du; 5/1: Andres ori da gizon; 5/3: uel aundi bat zuen; 5/4: plazara ekarriya; 5/5: espaldatik bueltan; 5/6: amarraz jarriya; 8/5: arrieruak ziran; 10/1: Asto eme bat aurrian; 10/2: lau arrak atzian.

(1893)  
**Bertso berriak**  
**Juan Jose Alkain-ek**  
**jarriak**

**B**ertso auk Leioako Zabale baserriko Eulojio Bidea Agirrerengandik jaso genituan, *Imp. de Fernandez y Diego*. - Eibar moldiztegiko paper batean, Bilboko Alfontso Irigoienek bitartekotza eginda.

**I** Milla zortzi eunekin  
larogei ta amairuban,  
ditxa eder bat sortu da  
gure inguruban;  
bertsuak formatzia  
jarri zat buruban,  
korputza ez dadukat  
lengo estaduban,  
saiatu egin biat  
al dedan moduban.

2 Biba Kabildua ta  
Aiuntamentuba,  
esperatzen det oien  
konsentimentuba;  
memoriya debilla,  
au sentimentuba!  
Zerbait itzegiteko  
det pentsamentuba,  
egingo banu oien  
kontentamentuba.

3 Usurbilko erriko  
parroko guria,  
izan du itzegiten  
abillidadia,  
errespetua eta  
formalidadia;  
piska bat bajatuba  
dauka edadia,  
izan degu guztizko  
predikadoria.

4 Ai, gure erretore  
leial eta fiña!  
Fedia aumentatzeko  
orrek badu griña.  
Sermoi ederra franko  
guretzat egiña,  
beti enpliatu du  
bere alegiña,  
gu guztiak egiten  
saiatu bagiña.

5 Orain ekarri dizku  
bi relijioso,  
sermoi eder oieri  
egiyegun kaso;  
premiakuak izan  
gintezke akaso,  
oien laguntasuna  
biar da preziso,  
ondo prebenituta  
guazen animoso.

6 Martxuan amaikian  
dirade asiyak,  
ez ditugu aditu  
sermoi itsusiyak;  
nola predikatutzen dan  
daude ikasiyak,  
gizon estudiatu  
asko ikusiyak,(1)  
ondo portatu dira,  
Jaunari graziyak.

7 Frai Daniel Baertel eta  
Fraia Andres bestia,  
asko desiatzen zan  
oiek ikustia;  
predikadore txarrak  
azaldu ezta,  
pentsatu det graziyak  
ematen astia,  
lastima da oieri  
ixillik uzta.

8 San Frantziskoren seme  
estimagarriyak,  
Aita piadoso bi  
dira etorriyak;  
bete gabe pekatu  
grabien neurriyak,  
orain artu ditzagun  
bizitza berriyak,  
ikusiz ez ditzagun  
istillu gorriyak.

9 Bildur gabe juateko  
digute otsegiñ,  
modu obian eziñ  
gizonak itzegiñ;  
etsaiaren mendian  
ez dala atsegiñ,  
libratzeko moduba  
obe degu egiñ,  
Jesusen asarria  
aplakatu dediñ.

10 Anima garbitzen du  
konfesiyo onak,  
ez du ezer serbitzen  
bildurrak egonak;  
itxurak egiteko  
desiuan danak,  
engañatuko ditu  
konfesore jaunak;  
Goikuari pegatzen  
izango dira lanak.

11 Ark kargu artuko du  
zorrotz edo estu,  
zeñek bere kontuba  
eman biagu justu;  
batzuek ukatu ta  
beste zenbait aztu,  
konfesiyo txarrakin  
ez bizi ro poztu,  
goiko jueza iñork  
engañatzen ez tu.

12 Gustora ez badago  
len kontzientziya,  
orra orain garbitzeko  
konbenientziya;  
anima badijua  
pekatuz jantziya,  
sufritu biarko du  
an penitentziya,  
iñork ez tu jirako  
aren sententziya.

13 Pekatu guztientzat  
da barkaziyua,  
milla izanda ere  
konparaziyua;  
lapurretak biar du  
restituziyua,  
dago konfesatzeko  
obligaziyua,  
konsegituko bada(2)  
absolbiziyua.

14 Munduban egiñ arren  
txit asko pekatu,  
zer edo nola diran  
esaten nekatu;  
orren gañian dute  
asko predikatu,  
akusatzia eziñ  
iñork debekatu,  
lotsaz edo bildurrez  
ez arren ukatu.

15 Espazioz ta ondo  
egiñ esamiña,  
artu doloria ta  
propositu fiña;  
damutasunarekiñ  
pekatu egiña,  
aubaz konfesiya  
kontuz alegiña,  
izan penitentziya  
kunplitzeko griña.

16 Preziso ez naiz asi  
itzegiten grabe,  
ni ez nago oraindik  
oiek bezin trebe;  
emen sufritutzia  
askoz degu obe,  
gero izan gaitzen  
gloriaren jabe;  
iñor ezta salbatzen  
penitentzi gabe.



17 Konfesiya egin da  
komulgatuzian  
konsidera dezagun  
geren biyotzian,  
gure Jesus maitiak  
bere eriotzian  
sufritu zitubenak,  
aundiak baitzian;  
gure onagatikan  
ill zan gurutzian.

18 Bere odolarekiñ  
ginduben erosi,  
pekatutik libratu,  
zeruba irabazi.  
Orain akordatzia  
ez al du merezi?  
Egunero eman ez  
asko esker eta grazi,  
ofensa gutxi egiñ da  
umildadez bizi.

19 Utzi pekaturako  
dauden biziyuak,  
menderatu ez gaitzan  
kondenaziyuak;  
egiñ errespetozko  
konbersaziyuak,  
kunplitu estaduko  
obligaziyuak;  
enkargu ori eman  
dute Misiyuak.

20 Oien sermoietara  
allegatu dana,  
konformatu diteke  
Jaungoikoagana;  
bederatziurren batian  
egiñ dute lana,  
konfesiyan ere  
asko oiengana,  
badute talentuba  
Jesusek emana.

21 Deskubritu dituzte  
fedeko kasuak,  
etorri dira gizon  
sustanziosuak;  
arritu gaitu oien  
itzketa gozuak,  
nola umiak eta  
ala gurasuak;  
osasuna diyela  
Jaun amorosuak.

22 Oien sermoi ederrak  
ondo adituta,  
orain gustora gaude  
mantxak garbituta;  
emendikan aurrera  
Jauna serbituta,  
konforme egon biagu  
Ark noiznai deituta;  
galtzia sentitzen du  
beriak gaitu ta.

23 Iñor ere ez gaude  
leku seguruban,  
etsaiak gau ta egun  
beti inguruban;  
zer peligrotan gauden  
eduki buruban,  
garbi ta pronto egon  
esan dan moduban,  
enkontro txarrik gabe  
sartzeko zeruban.

24 Jauna ofenditurik  
gaude sentimentuz,  
nola itzez ta obraz  
ala pentsamentuz;  
emendikan aurrera  
bizi biagu kontuz,  
estali gaitzan bere  
bendiziyo santuz;  
ala gerta dedilla,  
amen, biba Jesus.(3)

(1) Bertso-paperak *ikasiyak* esaten du bai puntu ontan eta bai aurrekoan ere. Poto, beraz. Moldiztegiaren okerren bat dala-koan, eta ala bear dualakoan, bigarrengoan *ikusiyak* idatzi degu.

(2) Bertso-paperak: *concebituco bada*. Dударик ez da *konsegituko bada* bear duala.

(3) *Argia* astekariaren puska edo *recorte* batean ere arkitu ditugu bertso auek, argitaraldi ori noizkoa dan ezin esan badegu ere.

Ez ditu bertso guziak; 12, 13, 14, 16, 18, 22 eta 23-garrena falta dira. Dituanak, berriz, beste orden ontan: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 15, 17, 19, 21, 20, 10, 11 eta 24-garrena.

Aldaketak: 11/3: zeñai bere kontubak; 15/8: egin alegiña; 17/1: Konfesiyo ondoren; 20/3: konforme egon liteke.



(1894)

**Bertso berriak  
obrero katolikoan  
peregrinazioari jarriak**

**S**ail au bi tokitan arkitu degu: bertso-paper bat, *Establecimiento tipográfico de los Hijos de I. R. Baroja*; *Constitución 2* moldiztegian argitara emana eta bertako Joakin Muñoz-Baroja jaunaren eskutik jaso; eta esku-idazkia, Udarregiri bertsoak kopiatzen zizkion Usurbilko Jose Aranburu edo *Jose Txiki*-ren etxean azaldua eta beraren semearengandik eskuratua.

**I** Milla zortzireun larogei ta amalau  
urte kunplitu gabiak,  
bere etorrera egiñ zigula  
zeru ta lurren jabiak.  
Aurten Erroman izan ditugu  
gutziz funtziyo gabiak,  
oriyek ondo deklaratzeko  
apenas gauden trebiak,  
oraiñ badaude Juan Jose baño  
ofiziale obiak.

2 Lurrian gure Bikariyua  
Erroman Aita Santuba,  
aurten orrera persona askok  
izan du juntamentuba;  
ondo egiñak geroko ere  
badu aprobetxamentuba,  
peregrinaziyo au onratzeko  
artu det pentsamentuba,  
Zeruko Aita, argitu zazu  
nere entendimentuba.

3 Zenbait nagusi edo obrero  
parte oriyen artian,  
sendaleia bat aundiya egon da  
juan dan asko urtian;  
Españi ontan bakarrikan ez,  
mundu guziko partian,  
junta eder au pentsatu dute  
txit borondate fuertian,  
sujetatzeko Aita Santubak  
ematen duan kortian.

4 Disputa aundiya ikusi dira  
publikuan ta klaruan,  
arriturikan egondu gera  
gauza orri erreparuan;  
gerra bizi bat iya sortu zan,  
bai, nola emen naguan,  
peregrinaziyo eder orrena  
premi aundiya zeguan,  
Aita Leonen enkargu ederrak  
artu ditzagun goguan.

5 Gure Erromako Aita Santuba  
mundu guziko buruba,  
Valencia-ko artzobispuak  
dauka bigarren graduba;  
Aita Leoni presente egiñ diyo:  
“Nai degu lege puruba”,  
berialaxen kontestatu du  
tokatzen zaion moduba,  
danon partetik desiatzen diyet  
osasuna eta zeruba.

6 Obrero askok segitu nai du  
zortzi orduko lanian,  
nagusi askok amabiyen nai  
aientzat ondo danian;  
gauza txarrikan pasa ez dediñ  
gero denbora juanian,  
Aita Santubak erabaki du  
formalidade onian;  
kontentu gera asunto ori  
orretan dagoanian.

7 Obrero onak izan biar du  
lana egiteko etsiya,  
nagusi jaunak ondo pagatu  
arturik pazientziya;  
Aita Santubak errejistatu  
du bere kontzientziya,  
ordenak eman diyon moduban  
bota digu sententziya,  
errespetatu nai badegu  
orra konbenientziya.

8 Aita Santuba eta arzobispua  
bakoitza bere klasian,  
beste ogei ta sei obispo ere  
Españiatik bazian;  
apaiz, fraile eta jesuita  
zenbat geiago nai zian?  
Goiko erreinuan glori ederrak  
logratutzeko pozian,  
tormentu-pian nork egon nai du  
eternidade luzian?

9 Leialtadian jua zaizkiyo  
Aita relijiosuak,  
beste batzuek bertatik eman  
geren limosna gozuak;  
moduba zuenak gastuak berak  
nekiak eta pausuak,  
borondatezko ofrenda oiek  
dirade baliosuak,  
obra onak egiñ, pagatuko ditu  
gure Jaun amorusuak.

10 Jua zaizkiyo katoliko eta  
bere ministro lagunak,  
obra onetan enpliatzera  
orduko gau eta egunak;  
kristau fiolak izanagatik  
leialak eta bigunak,  
asko gerade alako gauzen  
berririk ez dakigunak,  
gutxi emana sentitzen degu  
limosna egiñ degunak.



11 Erriyetako parroko jaunak  
ala ziguten agindu,  
uste dedanez persona askok  
karidadia egiñ du;  
gutxi duenak asko eziñ eman,  
lotsetan gera egondu,  
borondatia izanakgatik  
boltsak ez digu lagundu,  
geiago ere luzatuko zan  
moduba eduki bagendu.

12 Mundu onetan aberatsa da  
diru edo gauzaz jantziya,  
pobriak ere bagaude eta  
guretzat penitentziya;  
eskas degunak askotxo gera,  
batzuek abundantziya,  
emen ez dago beste modurik:  
artzagun pazientziya;  
al daneraño saiatu danak  
libre du kontzientziya.

13 Erriyetako parroko jaunak  
jarririk adbertentziyak,  
limosnak bildu, berak egiten  
biar diran dilijentziyak;  
itxasoz edo tren eta kotxez  
jendezko abundantziyak,  
obra eder orrek izango ditu  
geroko inportantziyak,  
beste munduan aprobetxatzen  
dirade induljentziyak.

14 Amasei milla persona omen zan  
Espania onetatikan,  
bertakuena ez da ainbeste,  
asko txit apartetikan;  
parroko edo sazerdotiak  
segitu dute platikan,  
jendiak asko asistitu du  
paraje askotatikan,  
gorroto edo bizitza txarra  
desterratziagatikan.

15 Gure lurreko Bikariyua  
Leon amairugarrena,  
karitatibo leiala franko  
allegatu da orrena;  
Aita San Pedro jarriya zuten  
enplio orretan aurrena,  
orain zeruban portero dago,  
sartu nai gaitu barrena,  
guazenerako ez degu izango  
bitartekorik txarrena.

16 Aita San Pedro persegitiba  
izanagatik orduban,  
orain gloriyak gozatzen dago  
altueneko graduban;  
eskubak eta onak garbitu  
anima aien moduban,  
aren bizitza nola izan zan  
iduki zagun buruban,  
fediari eutsi ark bezela ta  
sartuko gera zeruban.

17 Aita Santubaren presentazioz  
txit gustatubak badira,  
kardenal askoz inguraturik  
ekarri zigun segida;  
berrogei milla persona bazan  
gutxienian begira,  
malkuak eta suspiriyuak  
alako orduban oi dira,  
an etzan askok desiatzen du  
bistan tokatu balira.

18 An izan dira suspiriyo ta  
gutzizko sentimentubak,  
dudarik gabe egingo zituben  
biyotzak mobimentubak;  
katolikuak unitutzeko  
esan du Aita Santubak,  
ari alaxe agintzen diyola  
bere ordenamentubak,  
desuniyotik zer datorkigun  
gerok atera kontubak.

19 Pakiak edo uniyo ederrak  
baliyo digu munduban,  
lenago ori egiñ bagendu  
oraiñ mesede genduban;  
Aita Leonen enkargu ederrak  
artu ditzagun buruban,  
bide onian segi dezagun  
agintzen digun moduban,  
orrentzaz kalterik ez degu izango  
eriotzako orduban.

20 Erroma degu danen buruba,  
ori da fundaziyua,  
Españiko guzientzako  
bota du bendiziyua;  
aren laguntzaz bentzi dezagun  
etsaien tentaziyua,  
fedean onian segitutzeko  
artu dizposiziyua,  
gauzarik prezisuena degu  
animen salbaziyua.

21 Indar aundiko bendiziyua,  
doai ederrez betia,  
kabu gabia iruditzen zat  
ark digun borondatia;  
askok beiñik-beiñ disponitu du  
ofrendarekiñ juatia,  
txiki eta aundi limosna askok  
izan biao botia,  
karidadiak zabalduko du  
zeruetako atia.

22 Emen egiten baldin badegu  
biyetaryako du baliyo,  
falta duenak pozikan artu  
iñork ematen badiyo;  
gaizki egiñentzat billatzen dira  
txit asko erremediyo,  
mundu onetan gauden artian  
arreglatzen dira seriyo,  
anima asko salbatutzen da  
limosna dala mediyo.

23 Españaiko gizon noble bi  
bienabenturadubak,  
aspaldiyan ondo dakitela  
zer gusto duben zerubak;  
edozeiñ moduz logratzen ez dira  
orrenbesteko gradubak,  
oiek dirala katolikuak  
animatzeko modubak,  
egun oietan deklaratu du  
Leon guziyon burubak.

24 Juan de Avila eta Diego de Cádiz  
Españaiko santubak,  
bide onian segitutzeko  
badaude eskarmentubak;  
eztu baliyo galdutakuan  
artzen dan sentimentubak,  
garbiyak egin itz edo obrak,  
igual pentsamentubak,  
ondo guardatu Jangoikoaren  
legeko mandamentubak.

25 Aurten Erroman izan ditugu  
funtziyo gustagarriyak,  
kutsutu dira Españiyako  
probintzi eta erriyak;  
an izan danak ikusi ditu  
gauza goguagarriyak,  
peregrinaziyo eder orren onran  
euskeraz bertso berriyak,  
Juan Jose Alkain Usurbilkuak  
al dan moduban jarriyak.(1)

(1) Esku-idazkiak beste onela ditu 17 eta 24-garren bertsoak:

17 Tronu ederrian presentatzeko  
errezibimendu tokira,  
kondiziyuak konprenditzeko  
klaro itzegiñ nai dira;  
berrogei milla persona omen zan  
denbora artan begira,  
biyotz gogorrek ere alakuan  
laister bigundu oi dira,  
izerdi edo malkua lasai  
bota dutenak badira.

24 Juan de Avila eta Diego de Cádiz  
Españiako santubak,  
aien bidian segitutzeko  
badaude eskarmentubak;  
desanparatu okerrerako  
datozen pentsamentubak,  
ez du baliyo galdutakuan  
artzen dan sentimentubak,  
oriyen ditxa logratutzekoz  
oraiñ atera kontubak.

---

**(1894)**  
**Bertso berriak**  
**(Igeldo-ko mixioa)**

**B**ertso auek *Donostiyan: Victoriano Iraola'ren moldizkidan* inprentatu ziran paperetan, eta ale bat Gregorio Mujika zanaren bilduman arkitu genduan.

*Argia* astekariak ere argitara eman zituan, 1934 urteko garagarrillaren 24-ean.

**I** Milla zortzireun kunpliturikan  
larogei ta amalau urtian,  
misionero bat izandu degu  
bederatziurren batian,  
trabaturikan baldin bagiñan  
deabruaren katian,  
libraturikan bide onian  
betiko jarri gaitian.

- 2 Bikario jauna tokatu zaigu  
kanpoetara juana,  
asko beñik-bein ondo dakigu  
txit prezisua zuana;  
desiatzen zan suerte on bat  
allegatu da gugana,  
egun oietan saia diteke  
borondatia duana.
- 3 Jauregi jauna da Igeldora  
orain etorri berriya,  
misionero bat gure onagatik  
daduka erakarriya;  
anima asko nunbait sentitzen  
etsaien mende jarriya,  
Don Frantziskok gu salbatzeko du  
deseo izugarriya.
- 4 Sazerdote bat Don Blas Pradere  
Albisturko erretoria,  
Aita Santuak emanik dauka  
biar dan fakultadia.  
Emen jendia konbertitu du,  
ori predikadoria!  
Bildur diranak animatzeko  
badu abillidadia.
- 5 Abendubaren zazpiyan baizan  
predikatutzen asiya,  
gustaturikan geldituba zan  
bistako jende guziya;  
aundiya da orren doaiya edo  
itz egiteko graziya,  
desiatzen dizkat osasuna ta  
urte askoko biziya.



6 Inguru onetan egongo ziran  
asko anima eritu,  
bederatziurren osuan diye  
mediku onak segitu;  
saiatu eta satisfaziyo  
obeko degu gelditu,  
enkargu ederrak eman dizkigu  
iñork egin nai baditu.

7 Gure Don Blasen sermoi ederrak  
dirade talentutsuak,  
zeiñ ez du bada konbertituko  
orren izketa gozuak?  
Desterraturik utzi ditzagun  
pekaturako pausuak,  
ditxa eder au bialdu digu  
gure Jaun amorusuak.

8 Desgraziarik aundiena da  
anima kondenatzia,  
Jesus maitiak irabaziya  
nork bere faltaz galtzia;  
uste ez dala etorriko da  
eriotzako trantzia,  
konbeni zaigu ditxa eder au  
ondo aprobetxatzia.

9 Konfesio ona nola egiten dan  
klaro asko du otsegiñ,  
aurrenetikan azkeneraño  
granorik ez du utsegiñ;  
gauza guziyak presente dauzka,  
badaki nola itzegiñ,  
orrek dionez infernuetan  
ez da izango atsegiñ.

- 10 Konfesio onak bost kondiziyo faltarik gabe biaitu,  
zirkunstantziya guziyak orrek klaro itz egiñ nai ditu;  
besteren aotik egokiyago sekulan ez det aditu,  
orren burubak eta mingañak fakultadiak baditu.
- 11 Konfesatuta zer egiñ ere dauzka adieraziyak,  
ez du egingo obra txarrikan persona gogoz asiyak:  
errezibitu Jaun aundiya ta Berari eman graziyak,  
beste munduban kobratuko dira emengo irabaziyak.
- 12 Pekatu errez egiten dala konfesorik badaki,  
argalak ere asko gera ta oso gaituzte erruki;  
absolbituta bere ordenak emango ditu egoki,  
penitentziyak kunplitutzeko kuidado aundi bat eduki.
- 13 Aurten Igeldon ditxa eder onek guri egin digun sarrera!  
Desterraturik utzi nai degu pekaturako karrera;  
berriz ez degu mugitu biar lengo oitura txarrera,  
artu ditugun propositubai sei zaiegun aurrera.

14 Pekatubaren mantxa dubenik  
ez du artuko zerubak,  
peligro aundiyan arkitzen gera,  
aska ditzagun burubak;  
mantxa gaiztuak garbitutzeko  
egiñ ditugu modubak,  
goiko erreinuan izan gaitezen  
bienabenturadubak.

15 Negarrezko balle triste onetan  
garbiyak izan gaitian,  
bizitza onak pasa ditzagun  
Jaunaren borondatian;  
Aita San Pedrok sartu gaitzala  
zeruetako atian,  
zoriontasunak gozatutzeko  
eternidade batian.

16 Kandelariyoz badatorrela  
berriz ere det aditu,  
jende pobria izanagatik  
berak nai digu segitu;  
predikatzeko kapaz dan arte  
ez dedillela gelditu,  
guk naiko degu biaje asko  
onera egiten baditu.

17 Mundu onetan egiñ biagu  
guztiyok penitentziya,  
beste munduban glori ontasunez  
nai degu abundantziya;  
bideko neke trabajuakin  
ar beza pazientziya,  
ez degu gutxi estimatuko  
bedorren asistentziya.

18 Aurten Igeldon izandu dira  
funtzio gustagarriyak,  
daude fedeko misteriyuak  
ederki irakurriyak;  
don Blas Pradere, berorren onran  
euskeraz bertso berriyak,  
orren talentuz gustaturikan  
Udarrei zarrak jarriyak.

# “San Pedro egun batez...”

1 San Pedro egun batez  
Igeldoko pesta,  
galai bana artuta  
juan ziran bi neska;  
ardua eskeñi ta  
kalian igeska,  
irentsiko luteke  
zagia trabeska.

2 Errotara juan ziran  
biamonian,  
asto bana artuta  
deskantsu onian;  
leku disimuluan  
jarri ziranian,  
iruna kuartillo ardo  
zuten barrenian.

3 Lau dozena sardin da  
amabi txitxarro,  
librerdi banakuak  
iru opill arro;  
orietzaz gañera  
pitxar t'erdi ardo,  
betetzen gaitzak dira  
zenbait tripa-zorro.

4 Ogi eta txitxarro  
det adierazi,  
sardin berriak ziran  
berrogei ta zortzi;  
txopin bana edanda  
ezpañak igurtzi,  
ostatuan ez dute  
propinarik utzi.

5 Asto belarri motza  
batek azienda,  
kargak arindu eta  
kontentu omen da;  
iriña laga dute  
ostatuan prenda,  
zakubak pagatu du  
oien merienda.(1)

Bost bertso auek Urnietako Felipe Yurramendi-  
ren aotik ditugu.

Leenengo bertsoa Udarregirena dala entzun izan  
degu. Ala baldin bada, gaiñontzekoak ere ala izango  
dira.

Azken bertsoari buruz argibide au eman zidan  
San Estebango Txokoaldeko Bautista Zumetak:

“Igeldoar batzuk errotara Zubietara jetxi omen  
ziran bein batez, meriendatu omen zuten eta, aien  
poltsan dirurik ez baitzegoan, iriñarekin pagatu  
zuten. Eta Udarregik, kontu ori jakin zuanean,  
oneko bertso au bota edo jarri omen zien”.

## Basteroeneko ostatuan

**G**arai artan ba omen zan Andoaiñen ostatu edo taberna bat, Basteroenea deitzen ziotena. Orain denda bat omen da toki ortan.

Eguna an igaro omen zuan bein batean Udarregik, ondoren bertsoak moldatuz. Sail ortatik bi aukerak jaso zizkion Felix Aizpuruak Sorabillako Fedoriko Otegi:

**I** Andoaiña jua eta  
asi naiz galdetzen,  
ia inguru onetan  
bertsolairik zuten;  
denak etzekiyela  
esaten ziaten,  
bigarrego aldiya det  
modu ortan aurten;  
jaunak, ai zer poliki  
engañatzen nauten!

2 Eguna pasatu degu  
Basteruanian,  
jan da eran da kantatu  
umore onian;  
gero etxe aldera  
illun-illunian,  
lurrian bueltaka norbait  
bazan geienian,  
pozik nago etxian  
sartu naizenian.



## Peri-egun bateko ondorenak

**P**eri-egun batean izan eta ondoko gauean, Martin Sagardia *Oloki*, Manuel Sagardiaren semea, bere kideko mutil talde batekin, Ernaniatik etxe aldera zetorren.

Ostolatzaren etxetik, Arratzain baserritik alegia, pasatzean, ate joka asi zan; eta, idikitzen etziotelako, bota atea eta barrena sartu zan, eta bai pazi esnea edan ere.

Ostolatza jetxi zan eta izugarrizko sesioa izan zuten, noski.

Ostolatza ori Udaregurengana joan, gertatuaren berri eman eta Martin Sagardia *Oloki* orrentzat bertsoak jarriko ote zituan eskatu omen zion. Bai jarri ere.

Ogei ta lau bertso omen ziran, eta paperetan argitaratuak. Bañan, zoritxarrez, ez degu ale bakar bat inun ere arkitu.

Orain urrena irakurleari eskeiñiko dizkiogun bertsoak onako jaun-andre auen aotik jasoak ditugu: Maria Josefa Lertxundi, Andu, Orio, Errikotxia bertsolariaren alaba; Manuel Urruzmendi, Lartza-baleta, Aginaga; eta Nikolas Aizpurua, Zabale, Usurbil.

1 Gauza bat gertatu da  
aurtengo urtian,  
Arratzain deritzaion  
baserri batian;  
saltsa au izandu da  
askoren artian,  
portun ona gugandik  
beti apartian.

2 Periyako gaba zan  
señaladamente,  
gabeko amabiyak  
etziran aparte;  
ojuka asi ziran  
izugarri puerte,  
etziran deskantsatu  
sartu ziran arte.

3 Goitik bera jetxita  
eman nuben prente:  
“Mutillak, gisa ortan  
zertan zabilzate?”  
Desordenak badakar  
makiña bat kalte,  
jo ta bota niñuen  
bertan derrepente.

4 Biok asi giñaden  
bultza edo tira,  
indarra daukan onek  
ez daukana jira;  
fameliya geiena  
negarrez begira,  
oien atrebentziyak  
itxusiyak dira.

5 Ni nintzan kolpetuta  
neretzat kaltian,  
anparua ez nuan  
guztiz apartian;  
jendia juntatu zan  
ixtante batian,  
aplakatu genduben  
guziyon artian.

6 Ollokiren semia  
Martin Sagardia,  
askok kalte izan du  
zure pikardia.  
Pobriak altxatzeko  
a ze alderdia!  
Jaunak izan dezala  
miserikordia.

7 Apetitu ona du  
Jaunari graziyak,  
gure ixkiñak ditu  
ongi ikusiyak;  
ustu esnez beteta  
genduzkan paziyak,  
orrentzat onak dira  
jenero guziyak.

8 Nik biar zan lekura  
eman nuben parte:  
gauza zuzen dedilla  
denbora zan arte;  
barbero eta zibil,  
alkate ta naste,  
errejimentu ona  
juntatu zan laiste.

Eta azken bertsoa onela:

24 Ogei ta launa bertso  
kito buruz buru,  
guk ere izan degu  
orrenbeste modu;  
iñork aurrerapenik  
jartzen baldin badu,  
Ostolatzak zer egin  
disponituko du.

Bañan gero, ordañetan, Manuel Ollokik bertsoak  
atera omen zituan. Auek ez ditugu iñun ere arkitu.  
Baten bukaera onela omen zan:

Beltza eta zuriyak  
mendiyan ardiyak,  
zuk ere ez dituzu  
bentaja guziyak.

Auek, ordea, kanta zaar baten itzak dirala uste  
degu.

## Famili bateko sesioa

**F**amiliren batean, alaba etxeko morroiarekin ezkontzea gertatu omen zan, eta bere etxerako zegoan semea kanpora atera bear.

Onek, orduan, Udarregiri gertakizun guziaren berri eman zion, bertsoak jartzeko eskaturik. Baita jarri ere. Bertso asko omen ziran, eta paperetan argitaratuak. Onako lau auek Oriako Pedro Ibarzabal jaunaren aotik jasoak dira.

1 Gure aiton zar ori  
mutiltxo bat bada,  
ori zan kejatuba  
nagusiyetara.  
Zeñek agindu eta  
juan ote zan ara?  
Sentimentuak dauzkat  
alde askotara.

2 .....-n izandu dira(1)  
bi illabetian  
zerri ondradu oiek,  
gizendu artian;  
ona errez galtzen da  
galxtuen artian,  
ama engañatu dute  
guztiyen artian.

3 ..... .. zan(2)  
nere aita zana,  
.....-ko baserriyan(3)  
egin zuben lana;  
emen askotxok daki  
eskasa etzana,  
obrakin ez al dago  
pruebak emana?

4 Gurasuak etzuten  
bajezik merezi,  
asko errukitu zan  
seme Jose Mari;  
diruba eman diyo  
ama gaxuari,  
zorra pagatutzeko  
suia ta alabari.

- (1) Baserriaren izena.  
(2) Aitaren izen-abizenak.  
(3) Baserriaren izena.

## Idi-demaren bertsoak

**O**nako adierazpen auek Usurbilko Felix Aizpuruak jaun auen aotik jasoak dira: Antonio Aizpuru, Portalekoa, eta Manuel Urruzmendi, Urkamendikoa, gaur Zubietako Larzabaletan bizi dana.

Idi-dema edo apustu bat jokatu omen zan Usurbilko arri aundiarekin, sei kintal gañean zituala eta itzai bakarrean.

Dema-zaleak onako auek omen ziran: Axentxio Rekondo, *Aialde-zarra*, gaurko Rekondotarren aitona, eta *Txertubi*, Aieteko Goiko-galtzarakoa. Axentxiok *Kollado* Igeldokoaren idi famatuekin jokatu omen zuan.

Egun artan, Udarregi eta Pello Errota ere Usurbilla etorri omen ziran. Baita beren arteko sesio izugarria eta pamatu ura asi ere, Azpeitiko Premioa zala eta. Alkarrengana juntatu eta Pellok onela galdetu baitzion:

– Zer berri Azpeititik?

Udarregik, berriz, burlatzat artu eta mindu.

Patxi Aranburuk ere, Usurbillen jaioa eta Donostiako *Iru-Nesketa* ostatuko nagusiak, gogoan dauka bertsoan nola ekin zioten. Baita jende guzia berengana nola inguratu zuten. Azkenean, saio aundia egin da gero, ixildu arazi omen zituzten, dema asiko bazan. Tomaxek, *Tomaxeneko* ostalariak, onela esan omen zien:

- Juan Joxe, zuek orrela segitzen badezute, ez diat negozio aundirik egingo, ez dek ardorik salduko ta!

Doña, Manuel Urruzmendik kantatua da, eta Ambrosio Zatarain jaunak solfeoz papereratua.



A - pi - ri - lla - ren bi - an U -



sur - bil - ko pla - zan de - ma



ba - li - en - te bat jo - ka - tu -



ba ba - zan an - go pa - sa -



di - zu - ak nai ni - tuz - ke e -



san ez da - ki - yen gu - zi -



yak kon - pren - di - tu de - zan.

\* \* \*

Bertsorik geiena, berriz, Aieteko Sebastian Salaberraren eskutik jasotako bertso-paper batean arkitu degu. Paper onek moldiztegi-izenik ez du, eta izenburuak onela dio: "Bertso berriak usurbildar Jose Urdanpilletak jarriak". Bere-bereak izango dituan bi bertso ere sartzen ditu, zortziko nagusiak gaiñera; bañan beste guziak Udarregirenak dirala dudarik ez da:



1 Apirillaren biyan  
Usurbilko plazan,  
tema baliente bat  
jokatuba bazan;  
ango egi batzubek  
nai nituzke esan,  
lenago eztakiyenak  
konprenditu dezan.

2 Kollado Igeldokuak  
iri famosuak,  
lege ederrekuak,  
txit talentosuak;  
Txertubik ere zeuzkan  
aiñ kuriyosuak,  
jakiñ degu zein dauden  
bitoriyosuak.

3 Aspaldiyan zabiltzan  
disputa edo teman,  
probatu gabe eziñ  
iriyai antzeman;  
galdu-irabaziyak  
eiten dira teman,(1)  
eztiyot nai iñori  
bajezarik eman.

4 *León-castillo* botatzen  
formal ziran asi,  
Txertubik suertia  
ziyon irabazi;  
aukeran dagonari  
eziñ galerazi,  
Asentziok arraia  
jarri du lenbizi.

5 Kargak jarriyak ziran  
klase jakiñian,  
kontubak ateriaz  
ondo alegiñian;  
Usurbilko arri aundiya,  
sei kintal gañian,  
pasatu zan laroge ta  
amar bat oñian.

6 Asentziok arraia  
jarri du aurrian,  
Kolladoren iriyak  
zeuden indarrian;  
Txertubi ere asi zan  
patxara ederrian,  
ura're pasatu zan  
ogei ta amarrian.

7 "Galdubak oñazia"  
lengo errepaña(2)  
zeñek artutzen diye  
guztiyai tamaña?  
Txertubi itzaia da,  
indarra ta maña,  
oraiñgua galdu du  
abilla da baña.

8 Iri onak zituzten,  
gorputzez aziyak,  
itzai banaka dira  
elkar ikusiyak;  
lana nola egiten dan  
daude ikasiyak,  
ondo portatu dira  
Jaunari graziyak.

9 Usurbillen jokatzeko  
arreglatu dira,  
diruba arriskatzeko  
izan da benira;  
baserritarren billerak  
orrela baidira,  
zazpi milla pertsona  
omen zan begira.

10 Galdu-irabaziyak  
dirade guretzat,  
legi au galduko danik  
iruitutzen etzat;  
mokadu onak nai ditu  
bakoitzak beretzat,  
temak onak dirade  
tabernariyentzat.

11 Tripa ondo betetziak  
makiña bat lan du,  
lana egiten dubenak  
jornala ere on du;  
bi pezetarena eman,  
irutxo bat kendu:  
"Ai urrengo astian  
beste bat bagendu!"

12 Desapiyua juan zan  
Zarautzako ere,  
egiya publikatzia  
dago libertade;  
karga torpiak dirala  
bildurtubak daude,  
gu berriz oraindik e  
animoso gaude.

13 Elgoibarti izandu  
degu desapiyo;  
beiak onak dituzte,  
oso dira piyo;  
Kolladoren kuadrillak  
buelta eman diyo,  
bildurrak egotiak  
eztu asko baliyo.

14 Amar kintal gañian  
len zuten arriya,  
au zan kondiziyua  
paperian jarriya;  
iruitu zaie karga  
ikaragarriya,  
errespuesta polita  
degu etorriya.

15 Aiek ere buelta  
bigaldu digute,  
arri txiki batekiñ  
jokatu nai dute;  
fama dan ainbesteko  
beirikan badute,  
lardai gabe isatsetik  
ibilliko dute.

16 Batzubek galdu eta  
bestiak irabazi,  
al dezakianari  
zeñek galerazi?  
Aspaldiko legia:  
indarra nagusi;  
galtzalliak ere ez dute  
burlarik merezi.

17 Doblian ere asko zan  
egiña trabesa,  
batzubek berdiñian  
estu eta presa;  
esku-aldatuba da  
zenbat interesa,  
irabazi dubenak  
aprotxatu beza.

18 Beiak onak dituzte,  
fuertia kuadrilla,  
errezelatzen gera  
ote dan abilla;  
Igeldo ingurura  
edo Usurbilla,  
leku txarrera datoz  
inozente billa.

19 Asentzio Rekondo  
ona zan itzaya,  
arek jarriya dago  
marka bat aundiya:  
"Sei kintal gañian eta  
arri nagusiya,  
desapiyatutzen det  
Europa guziya".

20 Ortarako eztanik  
ez det nik markatu,  
jokazale eztanak  
ez prendarik artu;  
iñork nai baldiñ badu  
marka ori tapatu,  
bost bat milla pezeta  
eiñgo'itugu prestatu.

21 Usurbildarrak orra jarri  
aurrera begira,  
bestela usariyua  
galdutzen ai dira;  
Juan Jose ta Asentzio  
Kolladori beira,  
berriz e iriyak Igeldon  
gobernatuko'ira.

22 Gai ederra zeguan  
broma bat sortzeko,  
iñor ez tet mendratzen  
punturik artzeko;  
aurrera ere lasai  
dibertitutzeko,  
eoziñ errik ez tu banda  
musika jotzeko.

Antonio Aizpuruak eta Manuel Urruzmendik emandako bertsoak, onako aukerak dira, orden onetan: 1, 3, 4, 6-garrenaren lenengo erdia, 5-garrenaren bigarren erdia, 17, 2, 6-garren bigarren erdia, 7-garren bigarren erdia, 13, 14 eta 15-garrena.

Aldaketak: 1/3: dema baliente bat; 1/5: ango pasadizuak; 1/7: ez dakiyen guztiyak; 2/3: itxura ederrekuak; 2/5: Txertubik ere zitun; 2/7: ikusiko degu zein dauden; 3/6: egite'ira deman; 4/5: t'aukera daukanari; 5/5: Usurbilko arri aundiyak; 5/7: pasa zan larogei ta; 6/7: ura ere pasa zan; 7/3: zeñek artuko die; 7/4: iriai tamaña; 7/6: entero bikaña; 7/7: Usurbillen galdu du; 13/1: Elgoibartikan bota; 13/3: beiak onak dirala; 14/4: paperan jarriya; 14/5: iruditutzen karga; 15/2: biali digute; 15/3: arri txikiarekin; 15/6: beiarik badute; 15/7: timoi gabe isatsetik; 17/2: egin zan trabesa; 17/6: asko interesa; 17/8: aprobezta beza.

Baita beste bertso au ere:

Idi onak zituzten  
indarretan sendo,  
puerte gobernatuak  
jo gabiak ondo.  
Irutatik bi bazan  
Kolladoren bando,  
onroso gelditu da  
Axentxio Rekondo.

(1) Bi bider *teman* punturako. Bañan ez da poto, esan-nai ezberdiña dutelako. Urdanpilletak, izan ere, *dema* idatzi bearrean, *tema* idazten du, 1/3 eta 10/7 lerroetan ikus ditekenez.

(2) Urdanpilleta-ren bertso-paperean: *lengo ere baña*. Esan nairik ez du eta poto egiten da. Gaiñontzeko emaleak, berriz, *lengo errepañá* esan ziguten, eta ala idatzi degu.





---

## (1893)

# Azpeitiko euskal festak

**G**arai artan bazan mugaz beste aldeko Euskal-  
-Errian jaun aberats bat, Antoine D'Abbadie  
zeritzana eta euskaltzale purrukatua zana. Endaian  
bizi zan, berak egin arazitako jauregi batean.

Jaun onek dirua galanki ematen zuan, euskal  
festak egin zitezen. Aurten erri ontan eta urrengo  
urtean beste batean ospatzen ziran; 1893 urteko  
iraillean, Azpeitin izan ziran.

D'Abbadie jaun ori bezperatik iritxi zan, illaren 9-  
an. Azpeitiko kaleetan festa usai aundia aditzen zan:  
soiñua, etxafuegoak eta bazter guziak jendez gañez-  
ka. Erriko agintariak jaun orren zai zeuden. Artetxe-  
enean jarri zan ostatur, Buztintxuriko plazatxoan.

Apalondoan atarira etorri zitzaizkion erriko soi-  
ñujoleak, eta auekin batera bosteun bat mutil  
gazte, oiua onela egiten zutela:

– Biba, biba don Antonio Abadia!

Soiñujoleak *La Azpeitiana* izeneko vals bat jo  
zuten arentzat, eta urrena *Gernikako arbola*. One-  
kin asi orduko, bosteun mutil gazte aiek txapela  
erantzi eta kantari asi ziran. Aien eztarritik trumoi  
bat bezela altxatu omen zan gure arbol santuaren  
kantua, gauaren ixiltasuna astinduz. Euskaldunak,  
izan ere, alako sugarrez kantatzen zuten kantu ori,  
fueroak galdu berrian.

Ori izan zan Azpeitiko erriak D'Abbadie jaunari egin zion ongi-etorria. Etzuan arek usteko, berak bere diruz antolatutako euskal festa guzietan, Azpeitiko ori izango zala sonatuena, eta iñork gutxien pentsatuko zuan bidetik gañera.

Festak biaramonean asi ziran, illaren 10-ean, beste errietan izaten ziran ospakizunekin jarraituz.

Aurrena, meza nagusia orkestarekin.

Meza ondoren, plazara; eta D'Abbadie jauna eta agintariak udaletxeko balkoietan jarri, festak ikusteko.

Leendabizi, korrika-apustua, aizkolaria izandako batek, Arozpidek, irabazi zuana. Korrikalari batek iztarra autsi zuan.

Urrena, pelota-partidua: Azpeitiko Inazio Alberdi eta Jose Maria Beristain, Azkoitiko Modesto eta Jabier Larrañaga-ren aurka. Ordu t'erdi baten ondoren, ogei ta amairuna zeuden. Orduan saria erdibana banatu zieten. Oso partidu ederra izan omen zan.

Bazkalondoan, bertsolari saioa. Ontatik sortuko zan euskal festa auek famatuko zuan ixtilua.

Lau ta erdietan asi ziran. Udaletxeko balkoietatik jardun ziran. Bost bat milla lagun ba omen ziran plazan. Epai-maikoak etziran nornai: Resurrezion M. Azkue, Txomin Agirre eta Felipe Arrese jaunak.

Asieran beste bertsolari batzuek ere kantatu omen zuten. Bañan laister iru bakarrik gelditu: Jose Bernardo Otaño, Zizurkilkoa; Udarregi, Usurbilkoa; eta Pello Errota, Asteasukoa.

Danok dakitena, Joxe Bernardo eta Udarregi nekazariak ziran; Pello Errota, berriz, errotaria. Ala, Udarregik eta Jose Bernardok al zituzten aundienak botatzen zizkioten Pellori. Bañan au etzan iño-za besteri bazarik ateratzen uzteko; berak kulparik etzuala, alea zatarra bazan; berak ezin zuala, bi anea ale eman eta iru anea irin atera; eta abar.

Ondoren, gai ori utzi eta Euskal-Erria eta euskaldun guzien batasuna goratu eta kantatu zuten.

Jendea "Biba Pello! Biba Pello!" asi omen zan.

Epai-maikoak alkarrengana bildu eta erabakia ao batez eman zuten: saria edo, erriak beti esan dionez, premia Pellorentzat zala. Bañan au ere esan zuten: pena zutela Jose Bernardo eta Udarregirentzat beste saririk ez izatea, bideko gastuak ordaindu al izateko bada ere.

Festak aurrera jarraitu zuten: emakumeen korrika-apustua, sulla bat ur buruan zutela; pelota partidua, Luis eta Bizente Ezeiza *Mardura*, Bikendi ta Frantzesaren aurka; txistulari txapelketa eta abar.

Gauean, *Círculo Católico* izenekoan ere, ospakizunen bat izan zan, *Gernikako Arbola* kantatuz bukatzeko.

Andik irtenda, d'Abbadie jaun ori eta bere lagunak bazijoazen ostatu aldera. Alako batean, taberna batean bi bertsolari kantari. Urreratu eta aietako bat Pello Errota izan. Bestea nor zan ez dakigu. Euskal-Erriko oiturak eta fueroak goratzen ari ziran. Entzule jendea zorutzen omen zegoan, eta bertso bakoitzari sekulako txaloak jotzen zizkioten.

Pixka batean an gelditu ziran. Bigarren bertsolariak, nortzuk ziran oarturik, onela kantatu zion Pellori: ixiltzeko arren, ainbeste pantasirik gabe; erronka ugari zuala, bañan bitartean etziola D'Abbadie jaunari agur egiten...

Pelloren erantzuna:

- Ni ez; zu zaude emen gizalegearen faltan. Nik or ikusten baitet D'Abbadie jaunaren andrea; eta emen, beste toki guzietan bezela, andreak onratu bear dira aurrena.

Jendearen zoramena:

- *Bravo, bravo, Pello!*

Jaun aiek erretiratu ziran. Bañan bertsolariak eta jendeak bertan jarraitu zuten, ia gauerdiraño bertso kantari.(1)

Festak beren bidean jarraitu zuten, bukatu ere bai, bañan iñork etzion igerri ekaitza zetorrenik, trumoa entzun arte; Udarregik bere leenengo bertso-papera atera arte alegia.

Azpeitian bertsolarien artean zer gertatu zan, gauza illuna da eta onezkero beste munduan jakin bearko deguna. Argi pixka bat sortu naian, bertsolarien ondorengoei galdetu diegu, eta aien erantzunak urrengo orrialdeetan ikusiko ditu irakurleak. Zarrei ere galdetu diegu; bañan iñork ez daki bertsoak diotena besterik.

Dana dala, Pello Errotak eta Jose Bernardok aurretik alkar artu eta dirua partitu egin zuten, Udarregi ezer gabe utzita.

Aurrena, onek jarri zituan bertsoak, eta Pellok erantzun.

Urrena, Udarregik Pellori. Bañan Jose Bernardo ere saltsan sartu zuan, eta onek erantzun zion.

Irugarren txandan, Udarregik osterera ere bertsoak beste bien aurka. Pelloren semeak, Migel Antonek, erantzun zion, aita Ameriketara zebillelako-edo.

Laugarren aldiz ere jarri zituan bertsoak Udarregik. Oraingo ontan, Pelloren anaiak erantzun zion, Juan Kruzek. Au Oiartzunen bizi zan.

Udarregiren aldeko beste lau bertso-sail ere arkitu ditugu.

Bertso oiek Euskal-Erri guzira zabaldu ziran. Bertsolarien artean ez baita sekula au baño sesio mikatzagorik sortu. Emen Udarregik moldatuak eskeiñiko ditugu. Gaiñontzeko guziak beste liburu auetan arkitu ditezke: *Azpeitiko Premioaren bertsoak (1893-1895)*, *Auspoa*, 27; eta *Pello Errota, Auspoaren Sail Nagusia*, 5.

Leen esan bezela, Udarregik irakurtzen etzekian. Ala, besteak beren bertsoetan zer zioten jakingo bazuan, aldameneko baserrira, Artikula-txikira, joaten omen zan, papera irakur zezaioten.

Dana dala, gure mesedetarako sortu zan sesio ura. Aretxek utzi baitigu bederatzi puntuko bertso-sortarik ugariena eta jatorrena. Udarregik bertso-mota ori aukeratu zuan, eta beste danak bide ortatik jarraitu zuten.

\* \* \*

Azpeitiko Premio oni buruz, onela esan zigun Mikaela Elizegi Bengoetxeak, Pello Errotaren alabak alegia, larogei ta amalau urte zituala:

“Ni ezkondu nintzan urtean zan, ta neronek kopiatu nituan gure aitaren bertsoak, Anaiarenak ez, arek eskola bazuan ta.

D'Abbadie frantsesa zan, oso aberatsa. Eta erriz erri euskerazko zerak, bertsoak eta dantzak eta premioak, jartzen ibiltzen zan. Eta Azpeitin premia jarri zuan bertsolariantzat, nai zuana kantatzera joateko.

Zizurkilko Jose Bernardo Errekalde, Usurbilko Udarregi ta gurea, bertsolari printzipalak orduan oik ziran. Besteren batzuk joango ziran akaso Azpeitira, bañan iru oiek beñepein joan ziran.

Gurea ta Udarregi sartu omen ziran ostatuan, ta Udarregi ori berebiziko kejak kontatzen asi omen zitzaion gure aitari, eta gureak esan omen zion:

– Gizona, ez kejavu; alkar ez degu galduko.

Alegia, batek irabazten bazuan, besteai ere partituko ziela.

Bañan Udarregi orrek erantzun zion:

– Zuek naiagatik ni galtzen errez dala uste al dek?

Aita gureari ez ondo iduritu burla ura, ta:

- Orduan, al dunak al duna egin!

Orrela partitu ziran alkarrengandik.

Ta gureak atera premiaoa; ta gureak orduan, berea zuan bezela, berak jaso.

Udarregi ori arrotuta prestatu zitzaiolako, argatik etzion ezer eman; bañan Jose Bernardori bai, eman zion.

Gauza oiek danak kantetan an jarri zizkan.

Oiek pasa ta gero, Usurbilla joan ta an egokitu biak, eta an gureak bertsoetan esan zion:

- Premioa zer moduz?

Onela asi zan bertsoetan tentatzen; ta batek bat ta besteak bestea, ta andik asi ziran kantak jartzen.

Udarregik atera zizkan lenbizi, Usurbillen burla egin zion ondoren. Ta gero gureak jarri zituan, pasadizoa kontatuaz. Ta gero Jose Bernardok ere bai: "Pello degu juez, nonbratua berez...". Ta gero gure anaiak ere bai.

Gureari berealaxe pasatzen oi zitzaion asarrea. Bakoitzak geren odola bear degu, ta badira gorrotoa sekula aztutzen etzaienak; bañan gurea etzan seto-soa. Emen ola egingo, bañan andik atera baño len dana damutua.

Gero ez dakit asarretu ezkeru adiskidetu ziranik. Ez nion nik beñere aditu beñepein: "Udarregirekin izan naiz" edo "Udarregirekin mintzatu naiz".(2)

Emen ala ibilli ziran. Ez dakit orain zeruan nola dabilzan."

\* \* \*

Adriana Otaño Odriozolak, Jose Bernardoren alabak, onela esan zigun, larogei ta iru urte zitualarik:

"Ondo gogoan det. Ni neska koskorra nintzan. Pello Errota etorri zan gure etxera.

- Notizi txarrak! Notizi txarrak! -esan zuan; ta gero eztakit zer ta badakit zer, ta bertsoak jarri zituala Udarregik, ta au esaten zuala ta ura esaten zuala.

Gero, Pello Errotak jarri zizkion Udarregi orri bertsoak, ta gero gure aitak ere bai bere gisa.

Azpeitira joan ziranean, zer partilla edo zer egingo zuten, ta Pello Errotak edozer tratu egingo omen zuan; bañan Udarregi orrek, bera etzala konforme.

Lastima! Ura partitu egin bear omen zuten: bañan Udarregi orrek uste omen zuan beretzat zala seguru; bañan besteak ere onak ziran, ta Pello Errotarentzat joan zan premiaoa.

Usurbildar ori bertsolari ona omen zan, bañan egokiera ez da beti izaten.”

\* \* \*

Mateo Landa Alkain-ek, Udarregiren billobak, onela esan zigun, berrogei ta emeretzi urte zitularik:

“Nik ez nuan aitona ezagutu ta ez diot gauza aundirik esango.

Frantzes batek premiaoa ematen zuala ta Pello Errota, Jose Bernardo ta gure aitona presentatu omen ziran. Pello Errotak jaso omen zuan premiaoa, bañan ez omen zion gureari pagatu.

Etxera etorri ta bederatzi puntuko bertso oiek jarri zizkan gureak.

Beste biak ere bai, bañan gure aitona oso bertsolari ona zala esaten dute. Arek jarritako puntu oiek tapatzen zallak dira beintzat.”

(1) Oraindañoako berrien iturriak: *Azpeitia / Les Fêtes euskariennes au pays de Saint Ignace / Septembre 1893 / Bayonne 1984.*

*Euskal-Erría* aldizkaria, 1893.

*El Basco* eta *La Voz de Guipúzcoa*, Bilbo eta Donostiko egunkariak.

(2) Arritzekoa ere ez da, Udarregi andik bi urtera il baitzan.



# Bertso berriak

1 Azpeitira dirate  
bertsuetara deitu,  
gizon balientia  
naute eskojitu;  
buelta bat egitia  
nuen disponitu,  
ai pentsamentu oiek  
artu ez banitu!  
Gutxi sponitu,  
ez gera unitu,  
utsik naiz gelditu,  
talentubak aitu,  
enfermedade txarrak  
bajatu gaitu.

2 D'Abadi jaun ori  
frantzesá da berez,  
ni berriz española,  
pobria nerez;  
premiyuak partitzen  
ditu kantidadez,  
Azpeitira juan nitzan  
bizirik dolorez,  
bajuba kolorez,  
eskasa balorez;  
Pello degu juez,  
nonbratua legez,  
ni utsik geldituba  
portatu gabez.

3 Premiyua eman zioten  
Pello Errotari,  
ez dan gauzik esaten  
ez gerade ari:  
zerbait luzatutzeko  
bere lagunari,  
Juan Jose Alkain edo  
Jose Bernardori;  
gezurra ugari  
sakatu dit neri,  
triste Udarregi,  
deskubritu bedi,  
asko partitu gabe  
juana da ori.

4 Orduban Azpeitiyan  
zan alkate jaunak  
partitu omen zizkan  
bere ordenak;  
ango tribunal edo  
komisiyo onak,  
artako nonbratuta  
zeuzkaten gizonak,  
guztizko pertsonak,  
ala dira sonak,  
pruebak emanak,  
orren falta danak,  
edozeiñ gauza libre  
lotsatzen ez danak.

5 Erriko alkatiak  
itz oiek esanda,  
errespetatu gabe  
zertako jua da?  
Tribunala ere berriz  
artako zan da,  
orrek guziyai alde  
listua izanda,  
berak artu prenda,  
publikora ertenda,  
sufritutzen lan da,  
txarra da demanda,  
etzaizkiyo urritu  
neri emanda.

6 Alkatiak jarriya  
zan kondiziyua,  
lagunairi egiteko  
partiziyua;  
eman biar danian  
txarra soziyua,  
botata kunplitzen da  
obligaziyua.  
Orren aziyua  
ai zer leziyua!  
Dala traiziyua  
konparaziyua:  
Judasek izan zuen  
ofiziyua.

7 Giza-arte txarrera  
ez nitzan etorri,  
bolsan diruba ondotxo  
ez banu jarri;  
D'Abadik premiyua  
eman arren orri,  
etziyon zentimorik  
Alkaiñi ekarri;  
artutzeko larri,  
berak gorde sarri,  
artu eta korri;  
izan banitz urri,  
ibilli bear nuen  
desonragarri.

8 Kantidade guziya  
jaso du urretan:  
eun franko justu dira  
lege zarretan.  
Ez gerade metitu  
enplio txarretan,  
propinak partitzeko  
kale bazterretan.  
Nago bildurretan,  
ori indarretan,  
ez dala zorretan  
dabil gezurretan;  
aberastu biar du  
modu orretan.

9 Premio ori artu ez,  
galanki gastatu,  
sentidubak nai ditut  
manifestatu;  
Pelloren aziyuak  
etzaizkit gustatu,  
bost duro utzi ditut  
kotxe eta ostatu.  
Zertako estutu?  
Ez gera ajustatu,  
gezurra prestatu,  
diruba arrastatu;  
kontzientziya ondo  
erregistatu.

10 Azpeitira juan nitzan  
ni zori gaitzian,  
gizon onratu batek  
deitu baitzian,  
batzuetan oñez ta  
bestian kotxian,  
zorrikan utzi gabe  
sartu naiz etxian;  
gizona zartzian,  
premiyuak atzian,  
au gogoratzian  
pena biotzian;  
lasaituko gerade  
kobratutzian.

11 Usurbillen dema bat  
aurten da jokatu,  
an alkar billatzia  
zaigu tokatu;  
askoz naiago nuen  
ez banu topatu;  
gezurrak esan eta  
egiyak ukatu.  
Saltsa eziñ bukatu,  
izketan nekatu,  
kasik da pekatu,  
eziñ debekatu;  
ojala ez bagendun  
itzik trukatu.

12 Fundamena izan zan  
Pelloren aotikan:  
zer notizi nituen  
Azpeitikan.  
Nik pakia desio  
nere partetikan,  
asko kejatu gabe  
asi zan platikan,  
illiak zutikan,  
bere gramatikan,  
oso gogotikan,  
sendo politikan;  
orri ajola diyo  
guregatikan.

13 Orduko itzakgatik  
egiñ diyot kaso,  
errespeto piska bat  
biagu preziso;  
nai dubena esatia  
ez baita alkaso,  
bere mantxak bota nai  
zizkiran akaso:  
kopak sarri jaso,  
zurrut kurioso,  
jarri animoso,  
ni ez nago gozo,  
zergatik juzgatu nau  
gezurtioso.

14 Astiasuko erriko  
Don Pedro Elizegi,  
gezurrez dabillega  
Juan Joseri;  
ez diyo begiratzen  
zenbaitek ezeri,  
prestubak insultatzen  
gizona ez ari;  
tentatu zat neri,  
Alkain Udarregi,  
egiyaz da ari,  
publikatu bedi,  
ez berak dauzkan tatxak  
bota besteri.

15 Pello desafioka  
aspaldi asiya,  
zertan egingo zai  
menospreziya?  
Ori da gazterikan  
ondo ikasiya,  
berak markatu zuen  
probintzi guziya;  
etzan itxusiya,  
daukat ikusiya,  
onrak mereziya,  
izan du graziya,  
amaika duro eder  
irabaziya.

16 Oso trebia dago  
kantuzko lanian,  
orrelako gutxi da  
gaurko egunian;  
gogor egiten niyon  
gazte giñanian,  
obeditu diyogu  
etsi degunian,  
sasoia juanian,  
baju gaudenian,  
orgullo onian  
farra aldamenian,  
Juan Jose Udarregi  
galdu danian.



17 Lau probintzi oietan  
bera da jueza,  
talentuba duenak  
biar grandeza;  
beti artako dago  
estu eta presa,  
kantuz etxeratzen du  
zenbait interesa;  
jan da edan lasa,  
egun onak pasa,  
ez dago eskasa,  
eman diyot traza;  
titulo eder ori  
konserba beza.

18 Orain ogei bat urte  
nintzan indarrian,  
tabernan bezelaxe  
ote-larrian;  
Pellorekin ere bai  
patxara ederrian,  
allegatu ezker  
egiñ biarrian;  
teatro zarrian,  
ez leku txarrian,  
jende asko urrian  
naiko bildurrian;  
beti etzan atsegiñ  
nere aurrian.

19 Nik orduban banuen  
gizon baten lana,  
berak ere badaki  
ona nintzana;  
sarritan juntatutzen  
giñan alkargana,  
juzgatzen zuten zein zan  
balientia zana;  
bazuen afana,  
klarua kanpana,  
berekin daukana,  
ni denbora juana,  
ezagututzen gaitu  
baju gaudena.

20 Gu gera bertsuetan  
aspaldi asiyak,  
aitu dira kantuzko  
irabaziyak;  
makiña bat funtziyo  
gaude ikusiyak,  
broma ederrak pasa bai  
Jaunari graziyak;  
lanian eziyak,  
nekoso biziyak,  
indar eskasiyak,  
modu itxusiyak;  
zartzak azaltzen ditu  
aje guziyak.

21 Onrak merezi ditu  
 Azpeitiko erriyak,  
 igual ango jende  
 maitagarriyak;  
 premiyuak ziraden  
 ara etorriyak,  
 D'Abadi jaun orrek  
 kotxez ekarriyak.  
 Zer urre gorriyak!  
 Gu diruz urriyak,  
 bajutxo jarriyak,  
 gaude igarriyak;  
 orra Udarregi zarrak  
 bertso berriyak.

Sail onek argitaraldi asko izan ditu. Oietako batzuk izenda-  
 tuko ditugu.

Bertso-papera, *Vergaran: J. Lopez-en moldizteguian*, Gregorio  
 Mujika zanaren bilduman, Donostia. Bertsoak oni kopiatu dizkiogu.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, Elizagarai, Ondarra-  
 bi. Baita Azpeitiko Segundo Agirrezabalagaren eskutik ere. Alda-  
 ketak: 2/1; Don Abadi jaun ori; 7/5: Don Abadik premiyua; 9/9:  
 zertako geratu; 10/2: ni ordu gaitzian; 10/10: premiyan jartzian;  
 12/1: Fundamentu izan zan; 12/13: orri ajola gutxi; 13/4: biar  
 da preziso; 14/9: faltatu zait neri; 15/11: obrak mereziya; 16/6:  
 gazte nitzanian; 18/3: taberna betetare; 18/11: jende asko  
 aurrian; 19/5: sarritan biltzen giñan; 19/6: gu alkarrengana;  
 19/7: juzgatzen zuten ori; 20-garrena, falta.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Bizente Mujikaren  
 bitartez, Ormaiztegi. Aldaketak: 4/11: pruebak ematia; 5/8:  
 pillua izan zan da; 10/7: zorrikan gabe; 12/1: Asiera izan zan;  
 12/9: jaikirik zutikan; 12/10: oso gogotikan; 12/11: bere gra-  
 matikan; 18/14: nere urrian; 20-garrena, falta.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, X. Arsuaga, Donos-  
 tia. Aldaketak: 5/8: pillua izan da; 12/1: Asiera izan zan; 12/9:  
 jaikirik zutikan; 12/10: oso gogotikan; 12/11: bere gramatikan;  
 18/14: nere urrian; 20-garrena, falta.

Bertso-paper baten puska bat, 3, 4, 5, 8, 9 eta 10-garren bertsoak dakarzkiena, Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Txirritaren illoba, Gazteluene, Altza.

*La Constancia* egunkarian ere argitaratu ziran bertso auek, zein egunetan ez badakigu ere, Manuel Lekuona apaiz jaunaren bildumako *recorte* batean ikusten denez. Aldaketak: 12/1: Fundamentu izan zan; 12/9: illak zutikan.

*Argia* astekarian ere agertu diran, zein egunetan ez dakigun arren.

*Bertsolariya* astekaria, 1932-III-27. Aldaketak: 9/9: zertako geratu; 10/2: ni zati gaitzian; 12/1: Fundamentu izan zan; 15/11: obrak mereziya; 18/11: jende asko aurrian; 18/14: nere urrian; 19/7: juzgatxzen zuten zein; 20-garrena, falta.

*Bertsolariya*, N<sup>o</sup> 1. Ez da republika denborako bertso-aldizkari famatua, gerraz geroztik Makazagarenean agertu zan amar orriko zenbaki bakarra baizik. Izenburua: "Azpeiti'ko premiyuen gañian jarriyak 1894'gn. urtian". Aldaketak: 3/4: ez naiz ari; 5/8: pillua izan da; 12/9: jaikirik zutikan; 12/10: oso gogotikan; 12/11: bere gramatikan; 20-garrena, falta.

Esku-idazkia, Lorentzo Zulaika, Zarautz. Aldaketak: 5/12: txarra ta demanda; 7/4: ez banuen jarri; 14/3: gezurretan dabillega; 16/3: orrelako gutxi dira; 16/6: asten giñanian; 16/7: obeditzen diogu; 16/8: ezin degunian; 19/8: balientiena.

Eta gero onela dio: "Ogei ta bat bertso aurretik dauden oiek, dira Juan Jose Alkain Udarregi zanak Pello Errota zanari jarriak. Azpeitiko errian bertsotan izanda premiyua juezak Pellori entregatu, esanaz Juan Joseri ta Jose Bernardori emateko, irurak igualdadian partitzeko, baña Juan Joseri eman ez. Orregatik atera zizkan. Gero jarraituko degu beste ateraldiakin. Gero aben kontra Pellok atera zitun, eta berriz Juan Josek atera zizkan Pellori beste ojatik asita dauden amabi bertso oiek. Lau ateraldi dira Udarregi zanak jarriak iru bertsolariren kontra: Pello bat, Jose Bernardo Errekalde ta Pelloren semea."

# Bertso berriyak

1 Kargu egiñ biaiot  
Pello Errotari:  
zergatikan dabillen  
gezur kontari.  
Desonratu nai luke  
Juan Jose Udarregi,  
ez dit mantxa aundirik  
billatuko neri;  
nik asko berari,  
badauzka ugari,  
ez da ondo ari,  
zer mutilla ori  
propina partitzeko  
ez daukanari!

2 Pellok itzegiten du  
gogor ta torpezan:  
neri ezer emateko  
etzaiola esan.  
Ez adituta ere  
gustokua izan,  
konprendituko zuen  
artzeko izan bazan;  
bera dago kausan,  
ez dago pobrezan,  
sartu da interesan,  
bota du grandezan,  
gezurra nai dubenak  
sinistu dezan.

3 Gizon orrek eman du  
asko esperientzi,  
nai dubena esan da egiñ  
daduka lizentzi.  
Urretan omen dauka  
asko abundantzi,  
lasai egiñ dezake  
mantendu ta jantzi;  
ematiari utzi,  
artutziari eutsi,  
dauka lotsa gutxi,  
ortzak erakutsi;  
onekiñ biar degu  
bost pazientzi.

4 Orren despreziyuak  
ez daude aztuta,  
arro dabill orgulloz  
aberastuta,  
Juan Jose dagualako  
burutik nastuta;  
ori iñoiz bezela  
zurrutak poztuta,  
tragua ustuta,  
mokua zorroztuta,  
kopeta belztuta,  
erdi berdoztuta;  
lotsak ematen dizkit  
berak ez du ta.

5 Tokatu balitz neri  
premiyua ematia,  
Pellok esperatuko  
zuben partia.  
Orri gustatzen zaio  
aurrian jartia,  
ez artu ta saltoka  
igesi juatia;  
ez da inozentia,  
maleziz betia,  
agintzen dezentia,  
zer aiudantia!  
Orrek kendutzeko du  
borondatia.

6 Falso testimoniya  
modu orretan sortzen,  
kastigatu dezagun  
ez da bildurtzen.  
Zuk deretxo gabiak  
badakizu artzen,  
ezpañak igurtzita  
patrikadan sartzen;  
or zabilta urtzen,  
onradubak neurtzen,  
ez badezu aitortzen  
asiko naiz txartzen;  
ez dezu zere onra  
asko edertzen.

7 Azpeitiyan izanak  
gera elkarrekiñ,  
pazientziya asko  
biar da orrekiñ.  
Beste lagun bat ere  
bazuen berekiñ,  
bizirotatubak  
ez dira nerekiñ;  
bagendu zerekiñ  
pakia gurekiñ,  
zein gabiltzan zikiñ  
nai duenak jakiñ,  
biar dan lekutikan  
lanari ekiñ.

8 Orrelako modurik  
iñon egundaño  
ez degu obserbatu  
guk oraindaño.  
Neretzat izandu da  
franko desengañaño,  
kotxian jua nintzan  
Azpeitiaraño;  
iyo ari goraño,  
nork daki noraño,  
itzegiten laño  
Pello ta Otaño;  
asiera obia  
despedida baño.



9 Azpeitiyan utziya  
zuten urre pilla,  
ostatura juan ziran  
kanbiyo billa:  
amar ta amabi duro  
zan biyen partilla,  
Juan Jose gabetanik  
eiñ zuten tortilla.  
Ni oso umilla,  
ez neguen abilla,  
korputza debilla,  
aprobetxa nadilla;  
itxuben aurrerako  
ai zer kuadrilla!

10 Pello, Donostiara  
etzaituzte deitu,  
nork bere oñaziak  
pasa biaitu.  
Emengo publikuak  
umillak nai ditu,  
zu guztion buruba  
txokuan gelditu.  
Gu biartu gaitu,  
sinple iruditu,  
ez naiz atrebitu,  
zuri bentak aitu;  
orgullo geiegiyak  
ortara zaitu.

11 Asko egoten gera  
dirubak poztubak,  
bertsolariyak gutxi  
aberastubak.  
Korritzen ez degulako  
gaur gaude moztubak,  
urtiak jua eta  
odolak oztubak.  
Egiten dira gastubak,  
ez daude aztubak,  
ordenak estubak,  
itzketa justubak;  
Donostiyan nai dira  
gizon prestubak.

12 Egiyaz enpliatu  
daukatzun indarrak,  
utzi zitalkerizko  
esan biarrak.  
Zu zerala mediyo  
sortu ziran gerrak,  
ez dizkidatzu egiñ  
aziyo ederrak.  
Ez izan zabarrak  
gipuzkoatarrak,  
desaide ta farrak,  
zure sake txarrak  
errestatuko ditu  
Udarregi zarrak.

Bertso-sail au idazki auetan arkitu degu:

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Elgoibarko Antonio Arrillaga mediku jauna zanaren eskutik jasoa.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Frantzisko Lete ("Patxi Estra"), Azkoitia.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bilduman, makinaz idatzita arkitu ditugu bertso auek, 1933-an *Soraluze*-k bialduta. Paper onek bostgarren bertsoa falta du. Aldaketak: 6/1: Falso testimoniyan; 8/3: ez det nik oserbatu; 8/4: ez oraindano; 8/8: ni Azpeitiraño; 8/11: itzegiten baño; 9/11: gorputzaz debilla; 9/12: probetxa nadilla.

Esku-idazkia, Lorentzo Zulaika, Zarautz. Aldaketa: 5/1: Tokatu balitzat neri. Eta bertsoen ondorenean onela dio: "Amabi bertso oien kontra, Jose Bernardo Errekalde-k atera zituan berriz; gero bueltak Udarregik".

Esku-idazkia, Orioko Axentxio Txanka bertsolaria zanaren etxean azaldua. Aitatzerik merezi duan aldaketarik ez du.



# Bertso berriak

1 Azpeitiko juntaera  
izan zala kaso,  
iru gizon gabiltza  
txit orguloso.  
Juan Jose Udarregik  
egiñgo diye kaso,  
ez bazaio aztutzen  
bertsuetan oso.  
Nago animoso,  
ari naiz eroso,  
oraindik airoso,  
ez desprezioso;  
guztiyok nai genduke  
biktorioso.

2 Premiyua izan zan  
Pellori eroriya,  
orain disputa eta  
fanfarreriya.  
Farra eragitekotan  
ango komeriya,  
gizon formalarentzat  
aldrebeskeriya.  
Ez da enbusteriya,  
gauza agiriya,  
Pello errotariya  
onroso ariya;  
obratik juzgatzen da  
bertsolariya.

3 Peligrosuak dira  
plazako neurriyak,  
sentidubak ez daude  
irakurriyak.  
Zenbaitek kantatze'itu  
bertso zar berriyak,  
oso zarrak igual  
len berak jarriyak.  
Mingañez larriyak,  
talentuz urriyak,  
lagun galgarriyak,  
gaude igarriyak;  
oiek dirade gauza  
penagarriyak.

4 Guk premiyo aundirik  
ez degu gozatzen,  
banua gramatika  
erreparatzen.  
Zenbait malezioso  
gaitz da atrasatzen,  
zertako ari gera  
mingañak luzatzen?  
Ona errekusatzen,  
ez al da usatzen?  
Askotan da pasatzen,  
ez dute eskusatzen;  
ez du enpeño onak  
gutxi kausatzen.

5 Miñberatzen asi da  
Errekalde ori,  
oñazia sentitzen,  
ala dirudi.  
Lenago eman dizka  
bedorrek besteri,  
dakiyala ari da,  
txorua ez da ori.  
Or dauka Elizegi,  
zer biar dit neri?  
Juan Jose Udarregi  
apenas dan ari  
ez diran gauzak esaten  
projimuari.

6 Pellori kargu egiteko  
bota du bertsua,  
nik ere pronto daukat  
erresponsua.  
Zartubagatik ez dago  
Juan Jose mansua,  
oraiñdaño ez det izan  
jeniyo falsua.  
Kontrako zentzua,  
izan naiz zintzua,  
egĩñ zuten etxua  
bide gabetxua;  
egiyak esateko  
det deretxua.

7 Azpeitiko erriyan  
eman ziran itzak  
kunplitu izan balira  
neretzat ditzak.  
Esan aisa egiñ ziran,  
kunplitutzen gaitzak,  
jeniyo bana degu  
pertsona bakoitzak.  
Orain dira tatxak  
bistan dauden mantxak,  
esamiña egiñ zak,  
baldiñ baderitzak;  
gezurrak publikatzen  
ez gatxebiltzak.

8 Nigana etorri zan  
zure albistia,  
ez nintzan atrebitu  
*en blanco* uztia.  
Nik ere desiatzen  
ori ikustia,  
uztargilla zarra ta  
Kamiyo bestia  
eskasak ezta;  
egiñ zan ajustia  
kantatzeko ustia,  
despedida tristia;  
posible ez da guztiyak  
erakustia.



9 Esperantza aundiyak  
Bernardo guriak,  
lenago baginduben  
amistadiak.  
Irurok egiteko  
igualdadiak,  
biotzez maleziya,  
itzez bondadiak.  
Kejatzzen neriak,  
geiena beriak,  
pegatzeko idiak,  
len adiskidiak:  
oiek ez dira gizonen  
onra bidiak.

10 Don Agustin Jauregi  
erretore jaunak  
iruroi eman zizkun  
bere ordenak.  
Aren aurrian giñan  
itz oiek emanak,  
errespetatutzeko  
gogorra ez danak.  
Baiezko afanak,  
gero ziran lanak,  
mudatu egiñ planak,  
oientzat urre danak;  
kaskuari atzegiñ  
utsikan zanak.

I Bertsuetako lana  
nolabait egiñ zan,  
Bernardo barrena ta  
Pello ere juañ zan.  
Neretzat abisorik  
iñondikan etzan,  
berri onik etzala  
klaro ezagun zan.  
Bera jetxi nintzan,  
plazan an zebiltzan,  
Otaño ere an zan  
diru esperantzan;  
begiyak argi zeuden  
Juan Jose nun zan.

12 Premiyua eman baliyote  
agure zarrari,  
etzan orrela ibilliko  
pareja ori.  
Itzegiño ziyoten  
batak bestiari:  
“Gure amigua da  
Juan Jose Udarregi”.  
Segitu berari,  
aitzakiya ugari,  
begiratu obrari,  
ederra diruri;  
iñor txoro egiten  
zertako ari?

13 Plazan nola zebiltzan  
nituben ikusi,  
piska bat arrimatzen  
nintzaien asi.  
Uste det zebiltzala  
enemigo igesi,  
eskubakiñ eldu ta  
eziñ geldi erazi.  
Indarrez nagusi,  
premiyo ta guzi,  
oiek anbat grazi,  
ez nunbait merezi;  
len baño pobriago  
ez gera bizi.

14 Partilla artu zuben  
bakoitzak beria,  
korrituban jarriko  
zuten neria.  
Al dana arrankatu  
zenbaiten legia,     a  
neretzat ez da ona,     n  
oientzat obia.  
Ni gizon pobria,  
kuadrilla trebia,  
premiyo grabia,  
izan du jabia;  
ni errekusatuba  
parte gabia.

15 Nere arrunkarikan  
ez du iñork aditu,  
ori esan dubenak  
berak baditu.  
Alkaiñi zertan eman  
milla deskreditu,  
biar ez diran gauzak  
egiñ ez baditu?  
Gaizki iruditu,  
baju suzeditu,  
eziñ det segitu,  
niyen obeditu;  
zaute, denborak matsak  
elduko ditu.

16 Ezagutu ditugu  
oriyen ametsak,  
ederki publikatu  
dira promesak.  
Berak erretiratu  
ziran interesak,  
oientzat premiyua,  
neretzat bajezak.  
Aziyo eskasak  
bistan dauden gauzak,  
egongo dira pozak,  
ala dira trazak;  
kargubak artuko ditu  
goiko Juezak.

17 Ez dirade portatu  
jaun oiek nerekiñ,  
izan zan premiyua  
artu berekiñ.  
Ez dute asko gastatu  
Juan Joserekiñ,  
goiko Juez aundiyak  
danak berak jakiñ.  
Ari kontuz ekiñ,  
zein gabiltzan zikiñ,  
testigubak berekiñ,  
bildur naiz arekiñ  
ez dala engañatuko  
gezurrarekiñ.

18 Publikatu egiñ da  
asunto guziya,  
pentsamentu orretan  
etzan asiya.  
Madrera jua eta  
daukat ikusiya,  
zakubaren muturra  
ez egon josiya.  
Nago ikasiya  
ona edo itsusiya,  
oien kutiziya  
zer zan notiziya;  
Manueltxok egiñgo  
du justiziya.

19 Postura oriyetan  
ez dago gauza onik,  
Bernardo, ez al dakizu  
kulpa dezunik?  
Bertsolarietatik  
orrelako pertsonik  
ez nuben sinistuko  
azalduko zanik.  
Dollorrak izanik  
ez leialtasunik,  
itzketa zuzenik  
badaukat esanik;  
uste nuben zirala  
beste gizonik.

Bertso auek onako idazki auetan arkitu ditugu:

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Antonio Arrillaga mediku jauna zana, Elgoibar.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Gregorio Mujika zana, Donostia.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Egiluze-txiki base-  
rria, Usurbil.

Esku-idazkia, Lorentzo Zulaika, Zarautz. Aldaketak: 1/1: Azpeitiko juntaer'au; 2/5: parra ederki eitekotan; 7/2: eman ziran itza; 7/3: kunplitu izan balu; 7/4: neretzat ditxa; 7/6: kunplitutzen gaitza.

Eta urrena onela dio: "Bertso abek dira Jose Bernardori ateratako bueltak Udarregik; gero auen bueltak Pelloren semeak atera zizkan Udarregiri; eta berriz Udarregik Pello aita-semiai atera zizkan; or daude segiran beste ogei bertso". Beraren kua-  
dernoan, alegia.

# Bertso berriak

1 Notiziya berri bat  
Astiasutikan,  
Konportako errota  
orretatikan,  
Pello aita-semiak  
biyen partetikan;  
beti arrazoi txarra  
oien tartetikan.  
Ari dira goitikan,  
Udarregi betikan,  
kantuzko platikan,  
nor bere aotikan.  
Juan Joseri zer diyo  
oiengatikan?

2 Konprendituba dago  
oriyen enbita,  
gizon zarrarentzako  
ai zer konbita!  
Pelloren seme orrek  
sarrera polita,  
zer esperatutzen du  
orrela ibillita?  
Semia ta aita  
nagusitza naita,  
ez da konbeni-ta  
Juan Joserren gaita,  
oriyengatik gutxi  
kejatzen baita.

3 Nagusitza gustatzen  
astiasuarrari,  
bajezak eman naia  
gizon zarrari.  
Asko sufritu biar  
pertsone txarrari,  
ondo esklabotu da  
Juan Jose Udarregi.  
Mutill eder ori  
zer ote da ari?  
Ziplua ugari,  
zer biar dit neri?  
Kontuba duenarekiñ  
mintzatu bedi.

4 Migel, zer kontu dezu  
Juan Joserekiñ?  
Okasiyua ematen  
al dezu ekiñ?  
Askotan tokatu naiz  
zure aitarekiñ,  
oraindaño ez da izan  
okerrik gurekiñ.  
Orain ere ez nerekiñ,  
baizikan orrekiñ;  
ori dago zikiñ,  
nai badezu jakiñ;  
bistara azalduko da  
denborarekiñ.



5 Juan Jose ibiltzen zan  
lagunakiñ prestu,  
bakoitzari beria  
emanik justu.  
Iñori pegatziak  
Pello oi du poztu,  
ala ere nere gisa  
ez da aberastu.  
Binajerak ustu  
naiz erdi berdoztu,  
artutzeko estu,  
ematia aztu;  
egiñ zuen okerrik  
aitortzen eztu.

6 Semia brokal bota,  
kapitana bera,  
gu txoruak bagiña  
abilla zera.  
Badakigu nola dan  
oien ibillera,  
zer jeniyo dituzten  
dakigula gera.  
Oien etorrera  
artu nai karrera,  
egiñ dute sarrera  
gezurrez aurrera;  
fandangora zatozte  
leku txarrera.

7 Oraindaño izan gera  
oiek beziñ fiñak,  
tiratu egiten gaitu  
nor bere griñak.  
Billatuko ditugu  
aziyo samiñak,  
egiten badirade  
ondo esamiñak.  
Gizon atsegiñak  
daude utsegiñak,  
gaizki itzegiñak,  
obra txarrak egiñak,  
edukatu gabeko  
buru ariñak.

8 Semiak adiña kulpa  
badu gurasuak,  
eman dizka eskola  
kuriosuak.  
Orren itzketak daude  
gogotan jasuak,  
mudatuko dirade  
oraingo pausuak.  
Ai oiek kasuak,  
modu penosuak,  
gizon gustosuak,  
despreziosuak,  
jakinduri gutxiko  
orgullosuak.

9 Oien itzegitiak  
nabarmenak daude,  
konprenditzen degunak  
arritzen gaude.  
Zerbait pentsatuko da  
kalma ez badaude,  
arruak asentatzeko  
leku onak badaude.  
Dana libertade.  
gaizki esaten trebe,  
errespetoz obe,  
berak jaun da jabe,  
pertsone onak mendratzen  
kulparik gabe.

10 Udarregiren kontra  
ogei bertso berri,  
ordañak esperatu  
litzake sarri.  
Tripartak asko biar da  
patrikadan urri,  
paperak artu eta  
plazetara korri.  
Bertso txarrak jarri,  
ondo iritzi orri,  
biyak erriz erri  
or dabilta larri,  
pariente guzিয়েন  
desonragarri.

11 Udarregi ari dala  
mamiyak urritzen,  
nere bajezak dira  
irakurritzen.  
Uste ez dala dira  
gaitzak etorritzen,  
gizona bajatziak  
ni ez nau arritzen.  
Urtiak korritzen,  
ajiak berritzen,  
diyot igarritzen,  
zeiñ ez da jarritzen?  
Pello ere ari da  
begi gorritzen.

12 Anima erratuba da  
gauza penosua,  
jarri dirate onra  
peligrosua.  
Ori esatia ere  
etzan prezisua,  
Migel Elizegi da  
despreziosua.  
Ez itxurosua,  
zer da gurasua?  
Bera burlosua,  
gizon gustosua,  
errespeto gutxiko  
orgullosua.

13 Orain ogei bat urte  
Udarregi zarrak  
junturak ez zituen  
oso miarrak.  
Zartu ta ajiatu,  
masaillak igarrak,  
sujetatutzen gaitu  
guztiyok biarrak.  
Burla eta farrak  
astiasuarrak,  
lagun bi bakarrak,  
Elizegitarrak;  
oietatik maiz datoz  
arrazoi txarrak.

14 Bizkarrian badauzkat  
makiña bat urte:  
irurogei ta zazpi  
ez dira aparte.  
Nere eskastasuna  
publikatu dute,  
naizen baño eskasago  
juzgatutzen naute.  
Oiek baliente,  
daude korriente,  
sobresaliente,  
burla egiñ dirate,  
ez egon banintz sano  
sufiziente.

15 Desafiyo txiki bat  
dizutet botako,  
ez bazazue konbeni  
ez da inportako:  
bakoitzak bere obra  
paperan jartzeko,  
eskribiente bana  
biagu ezartzeko;  
gero irakurtzeko,  
dituzte neurtuko;  
bazaute artako  
diruba ekartzeko;  
zuen kontrariyua  
ez da faltako.

16 Oietatik asi zan  
enredua sortzen,  
egiñ ditugun obrak  
dituzte neurtzen.  
Lenguak baño oberik  
ez badute jartzen,  
ez dute izango lanik  
jokorikan artzen.  
Ari gera zartzen,  
maleziyan sartzen,  
jeniyuak txartzen,  
gutxi naiz bildurtzen:  
ez dira atrebituko  
nigana etortzen.

17 Ez da prezisamente  
jokatzeko plaza,  
sekretuan broma bat  
diteke pasa.  
Bakoitzak bere obra  
egiñgo du lasa,  
paperan ezagun da  
ona ta eskasa.  
Emango da traza,  
txarrenak pobreza,  
onenak grandeza,  
konprenditu beza;  
orduban jakiñgo da  
zeiñ dan jueza.

18 Gizon aundi oieri  
diyegu itzegiñ,  
dakidan aldetatik  
ez det utsegiñ.  
Guztiyak sufritutzen  
ez dago atsegiñ,  
denboraz korralera  
biayet otsegiñ.  
Piska bat atzegiñ  
deskansatu nadiñ,  
oiek anak ariñ,  
burla ta aldegiñ;  
disponituba nago  
laister zer egiñ.

19 Gaizki itzegiñ dedala  
iñork badu ira,  
noiznai tribunalera  
egiñgo da jira.  
Arrazoiak emanaz  
elkarri begira,  
an indartsuak ere  
sujetatzen dira.  
Artu egiz segira,  
badago eskojira,  
beiñ jakiñ sikira,  
ez izan kupira;  
keja dana mugitu  
nai dan tokira.(1)

Ona orain emen bertso auek arkitu ditugun idazkien zerrenda:

Bertso-papera, *Imprenta de V. Iraola* moldiztegian argitara emana, Antonio Arrillaga mediku jauna zana, Elgoibar.

Bertso-papera, *Elustondo*. – *Zarauz* moldiztegian argitaratua, Segundo Agirrezabalaga, Azpeitia.

*Argia* aldizkariaren *recorte* bat, egunik ageri ez duana, Arrasku-larre, Oiartzun. Aldaketak: 1/1: Notiziya berriyak; 1/5: Pello aita-semien; 3/11: zipua ugari; 6/1: Semia aurrera bota; 10/2: emeretzi bertso berri; 10/6: patrikaren urri; 16/9: ai gera ezartzen; 16/14: gugana etortzen; 18/9: pixka bat itxoin; 20-garrena, falta. Asieran, berriz, onela dio: "Bidani'ko Aristondo'tar Joxe Mari'k bialiak ditugu bertso auek.- T."

Esku-idazkia, Lorentzo Zulaika, Zarautz. Aldaketak: 1/1: Noti-  
zia berriak; 1/5: Pello aita-semien; 1/14: orrengatikan; 3/11: zipua  
ugari; 6/1: Semia aurrera bota; 9/10: gaizki esan trebe; 11/5: uste  
eztala guri; 16/1: Oiengandik asi zan; 16/9: ai gera ezartzen; 17/4:  
dezake pasa; 18/9: piska bat itxogin. Bukaeran, berriz, onela dio:  
"Udarregi gelditu zan nagusi lau bertsolarien artian. Laurak il  
ziran, eta bakoitzai errezatu Aita-gure bana beren animan alde".



# Jolasa

- 1 Askok ezagutzen du  
Juan Jose Udarregi,  
talentu gutxi eta  
urtiak ugari;  
bertsuetan asi ta  
ondo ezin ari,  
kantatzeko goguak  
joan zaizkit neri,  
sasoi ona daukana  
libertitu bedi.
- 2 Bost urte pasia naiz  
txit gaizki egondu,  
masalla mia daukat,  
berak ezagun du;  
ez dute amiguak  
bizirolagundua,  
oraingo legia da  
al dutena kendu,  
gastatzeko onak gaude  
nork eman bagendu.

3 Irurogei ta sei urte  
daukat edadia,  
izan det bertsuetan  
abillidadia,  
errespetua eta  
formalidadia;  
*dimisiyua* artzeko  
dadukat idia,  
duda gabe izango da  
errenta gabia.

4 Ez da ausiliorik  
izandu neretzat,  
izango danik ere  
iduritzen etzat;  
mokadu onak nai ditu  
bakoitzak beretzat,  
errentarik ez dago  
bertsolariyentzat,  
*despreziyua* franko  
bajatuarentzat.

5 Gipuzkoan badago  
asko bertsolari,  
*desapiyoka* beintzat  
asko dira ari;  
sasoikoak badaude,  
badakigu ori;  
nik ez diyot kontrarik  
egingo iñori,  
obedituko diyot  
mundu guztiyari.(1)

(1) Donostiko *El Thun thun* aldizkaria, 1894-IX-9.

## Eriotza

**U**darregi petxutik il zala, makiña bat aldiz Usurbil aldeko bertsozaleen aotik entzun degun gauza da.

Ala, elizako eriotz-agiriak ere onela dio: *según certificación facultativa de la enfermedad de tisis*. 1895-ko urriaren 2-an eman zuan azken arnasa, irurogei ta sei urte il bezperan bete ondoren.(1)

Aren eriotzaren txeeetasun geiago jakin al izateko, bi iturri izan ditugu: erria eta don Mateo Mujika gotzai jauna.

Onako bertso au Tolosako Manuel Urreta zana-ren paperetan azaldua da, lapitzez idatzitako orri txiki batean:

Bedorren bisita ezta  
Usurbillen kalte,  
aurrera jarrai beza  
orrelaxe fuerte;  
nere azken triste au  
ez dago aparte,  
adios, don Mateo,  
Josefatera arte.

Don Mateo Mujika gotzai jaunaren argibideak bi erataraz jasoak ditugu: bata, orain, liburu au egite-rakoan, gerok galdetu eta berak esan dizkigunak; eta bestea, Felix Zatarain apaiz jaunak, *Ardunbe* izengoitiarekin, 1933 urteko *Argia'ren Egutegia'n* idatzi zuana. Don Mateoren aotik jasoko zituan onek ere, dudarik gabe, bere zer esanak.

Don Mateo Mujika jaunak, Erromara baimena eskatuta, ogei ta bi urte t'erdirekin eman zuan meza. Ta segituan Usurbilla bialdu zuten. Ona nola:

Garai artako Gasteizko gotzaia Pierola jauna zan. Usurbilko erretorea, berriz, don Gregorio Sasiain jauna. Apaiz-ikasketak alkarrekin egiñak ziran, eta Iruñen egin ere, artean Gasteizen apaiz-gaigentzat ikastetxerik etzegoanez.

Usurbillen, naiko zaartuta zegoan erretoreaz gañera, beste bi apaiz zeuden: bata, zaarra ez ezik, gaixorik ere arkitzen zana; bestea gaztea, bañan au Mondragoira bialdu zuten.

Orduan beste apaiz gazte langille bat eskatu zion erretoreak bere laguna zuan Pierola jaunari. Eta onek don Mateo bialdu.

Andik aurrera, onentzat izan ziran Usurbillen apaiz-lanik geienak: sermoiak, aitorketak, elizakoa-k, ezkontzak, bataioak...

Laister ezagutu zuan Udarregi. Oraindik ere gogoan du don Mateok bertsolari zaarrak nola eman zion berak zazpi sakramentuei buruz argi-taratutako bertso-paper bat. Oso bertso onak omen ziran.(2)

Usurbilko Ortelanoeneko Praisku Mari Pagolak esan digunez, Udarregik moldatutako azken bertsoak don Mateo papereratu omen zizkion. Bi bertso ere eman zizkigun, askoz geiago baldin baziran ere:

Zeruko Aita, lagundu zazu  
kantatuzeko graziya,  
ejenplo on bat zabalduzko  
intentziyoz naiz asiya;  
zartzera ez det atzera utzi nai  
gaztetan erakutsiya,  
konbertitzia desiatzen det  
gaizki dabillen guziya.

Onak ta txarrak nola diraden  
gaude jakiñen gañian,  
saiatutziak ez du baliyo  
alperrikako lanian;  
obra onetan saia gaitzen  
orain denbora danian,  
kontu aundiya eman biegu  
Jaunaren tribunalian.

Bein batez, ibillaldi bat egin zuten Igeldo aldera don Mateok eta bere moduko kuadrilla batek. Alde aurrez abisatuta, Artikula-aundin bazkaldu zuten; Udarregik bertso ederrik kantatu omen zien guziei; bañan parrik geiena eragin ziena, Jazinto Ezkurdia mediku jaunari bota ziona izan omen zan: oso mediku abilla zala; eta, ijitoak lapiko zaarra bezela, berak gizon zaarra konpontzen zuala...

Beste bein, konfesiotik aparte noski, onela esan omen zion Udarregik don Mateori:

– Bertsolariak, zenbait aldiz, naiz izen eta apelli-dorik ez esan, zeñengatik ari diran ezagutzeko moduan egiten dituzte bertsoak. Neri ere olakorik kanta arazi nai izaten zidaten. Egun batean, Billa-frankan, gizon batek jokoan zaldia galdu zuala eta ari bertsoa botatzeko esan zidaten. Bañan sekulan ez nuan nik kantatu, iñoren fama edo izena zikin-duko zuan bertsorik. Sekulan ez nintzan orretan deskuidatu.

Udarregi gaixotu zanean, don Mateo bisitaz joaten zitzaion. Errosarioa eskuetatik zintzilik zuala arkitzen omen zuan beti.

Erljio gaitan asko zekiana zala, bereala konturatu zan don Mateo, eta arritu egin zan, bai-baitzekian Udarregik irakurtzen etzekiala. Ala, galdera au egin zion:

– Bañan, gizona: nola dakizu orrenbeste?

Eta Udarregik erantzun:

– Jauna, neretzat oso gogozkoak izan dira beti apaizen sermoiak, eta aietatik ikasi det dakidan guzia.

Bañan gero eta gaizkiago Udarregi. Bereala asten zitzaion arnas larria. Burua argi, ordea.

Bein batez onela galdetu zion don Mateok:

– Nekatu al zera, nekatu?

Eta Udarregik:

– Bai, jauna; ezin ukatu.

Talentuak, berriz, bajatu.

Mundu au ezin bukatu.(3)

Beste batean, don Mateok:

– Juan Joxe; estu zera, estu?

Eta Udarregik:

– Bai, jauna; eriotzak barkatzen eztu!(4)

Il zan egunean, onela galdetu zion don Mateok:

– Juan Joxe, bai al dakizu gaur zer egun dan?

Eta Udarregik:

– Bai, jauna, bai: aingeru guardakoen eguna, guziok gogoan izan bear deguna, neretzat azkenekoa izango dana.

Elizakoak artzerakoan, arnasa ezin arturik zegoan. Jaunaren aurrean, barkazioa eskatu zien guziei, eta fede santuko siniskai guziak sinisten zituala aitortu. Urrena onela esan zuan:

– Jesus, Jaun on-ona,  
Trinidadeko bigarren Pertsona,  
atoz, atoz nigana!

Jauna artu eta andik denbora gutxira eman zuan azken arnasa.

\* \* \*

Aren illetan, Usurbillen noski, elizkizuna bukatu eta amaiketako egin ondoren, bertso bana kantatu omen zuten iru bertsolari auek: Gaztelu, Txirrita eta Pello Errotak.

Gazteluk:

Juan Jose Udarregi  
Usurbilko zana,  
amaika bertso eder  
munduan esana;  
bota izan balu ere  
kolpeko dozena,  
alare etzan gastauko  
aren almazena,  
gu ez gerade iñor,  
ura zan gizona!(5)

Txirritak:

Gizajua il zan da  
sartu zuen lur-pian,  
zañak eta ezurak  
alkarren tartian;

asko sufritu zuen  
bizi zan artian,  
orain deskansa deilla  
guztizko pakian,  
gu ere juango gera  
alako batian.

Pello Errotak:

Juan Jose Udarregi  
bizi izan zanian,  
beti ibilli izan zan  
bide zuzenian,  
damutasun onakin  
bere azkenian;  
orain deskansa dedin  
beti zorionian  
errezatu dezagun  
bere izenian.

Eta bertsoen ondoren *Pater-Nosterrak* izan omen ziran.

\* \* \*

Orduko beste gertaera eta bertso bat ere ematen dituzte:

Udarregik, iltzera zijoala, Pello Errota eskatu zuan: onekin itzegin nai zuala.

Abisatu zioten Pellori. Abiatu zan au presaka ta izerditan. Bañan iritxi zanerako, Udarregi illa zan. Sartu zan orduan Pello gorputza zegoan tokira. Gorputzaren ondoan iru gizon omen zeuden. Txape-la erantzi ta bertso au kantatu zuan Pellok:

Ojala ikusi banu  
onen eriyua,



alkarri eskatzeko  
barkaziyua,  
animak irabazi  
dezan premiyua,  
egindako gaizkien  
erremediya.  
Utzi jenyua  
ta inkurriyua,  
gure salbaziyua  
da oraziyua;  
au da katolikuen  
relijiyua.(6)

(1) Eriotz-agiriak onela dio: *"...Juan José Alcain Iruretagoyena falleció el día 2 de Octubre de 1895, según certificación facultativa de la enfermedad de tisis, a los 67 años de edad. Era natural de Aya, hijo de Juan Miguel y Francisca Ignacia, ambos naturales de Aya. Estaba viudo de D<sup>a</sup> Bautista Astiasarán, natural de Régil"*.

(2) Bertso oiena ez du, ordea, don Mateok puntu bakar bat ere gogoan. Ala, sail ori zein izan diteken ezin degu inondik ere atara. Zazpi sakramentuei buruz jarritako kanta-paper bat bade-gu gure artxiboan; bañan ez du, gure ustean, Udarregiren bertsoen antzik.

(3) Beste era bat:

– Bai, jauna; ezin ukatu.  
Gezurra esatia pekatu.  
Artan ez gaitzela gertatu.

(4) Erantzuera au, Felix Aizpuruak Usurbillen norbaiten aotik jasoa da.

Bañan Pello Saikola (Pedro Aranburu) bertsolariak beste onela eman zidan:

Don Mateok:

- Estu al gera, estu?

Eta Udarregik:

- Il bear onek eskaporik eztu!

(5) Baiña badira Txirritak kantatu zuan bertsoa auxe dala diotenak, eta onela ematen dute:

Usurbilko semia  
Udarregi zana,  
amaika egi eder  
munduban esana;  
kantatubagatikan  
kolpian dozena,  
beñere etzan aitzen  
aren almazena,  
gu ez gerade ezer,  
ura zan gizona.

(6) Bertsoa, Andoaingo Patxi Sueskun bertsolariari jasoa. Gertaera, Pello Errotaren alaba Mikelak esana, bertsoa entzundakoan. Bertsoa etzekian buruz, bañan aspalditik askotan entzuna zuan.

# Arkibidea

Bigarren argitalpenarentzat oar batzuk .....	7
Itzaurrea .....	9
Juan Jose Alkain Iruretagoiena .....	13
Udarregiren aita .....	17
Aotik aorako bertsoak .....	25
Gerratea .....	43
Fueroen alde .....	49
Erantzunak .....	53
Idazteko lana .....	57
(1862) Pelota-partiduaren bertsoak .....	59
Bei baten gertaera .....	67
(1878) Bertso berriak: Ama Birjiñetarako señaladamente .....	73
(1878) Bertso berriak: Milla zortzireunekin amairugarren urtian .....	81
Usurbilko mixioa .....	93
Bertso berriak larre beienak .....	101
Bertso berriak: Paratu biar ditut bertso bat edo bi .....	107
Santa Agedaren bertso berriak Udarreik jarriak .....	117
Asto-demaren bertsoak .....	123

(1893) Bertso berriak Juan Jose Alkaiñek jarriak: Milla zortzi eunekin laroi ta amairuban .....	129
(1894) Bertso berriak obrero katolikoan peregrinazioari jarriak .....	139
(1894) Bertso berriak (Igeldoko mixioa) .....	149
San Pedro egun batez .....	155
Basteroeneko ostatuan .....	157
Peri-egun bateko ondorenak .....	159
Famili bateko sesioa .....	163
Idi-demaren bertsoak .....	165
(1893) Azpeitiko euskal festak .....	175
Bertso berriak: Azpeitira dirate bertsueta deitu .....	183
Bertso berriak: Kargu egiñ bialot Pello Errotari .....	195
Bertso berriak: Azpeitiko juntaera izan zala kaso.....	203
Bertso berriak: Notiziya berri bat Astiasutikan.....	213
Jolasa .....	223
Eriotza .....	225



1051066  
G-128/81

Udarregi bertsolaria, Aian 1829-an jaioa eta Usurbillen 1895-ean illa, bere garaiko bertsolaririk onenetako bat izan zan, Pello Errota eta Jose Bernardo Otañorekin batera. Irukote orrek Xenpelar il eta Txirrita azaldu bitarteko utsunea betetzen du.




Udarregik aotik aora kantatutako bertsorik geienak galduak dira noski. Ala ere, banaka batzuk guregana iritxi dira, Usurbil aldeko bertsozale zaarren buruan gordeta.

Paperean jarritakoak, berriz, askoz geiago dira, oietatik ere sail batzuk galduak izango badira ere. Gaiak: pelota partidu bat, bei baten gertaera, Donostiako 1878-ko jaialdi bat, Donostia erre zaneko oroipena, Usurbilko eta Igeldoko Mixioak, larre-bei baten ibillerak, Santa Agedaren bizitza, asto-dema bat, pelegri nazio bat, idi-dema bat, Azpeitiko Premioaren bertsoak...

Garai artako kronika txiki bat, beraz. Ori besterik ez balira ere, bertso-paperak gure kulturaren aberasgarri dirala aitortu eta altxor bat bezela gorde bearko genituzke.



USURBILGO UDALA



URTE  
UDARREGI  
BERTSOLARIA



AIA-KO UDALA

ISBN 84-89080-12-7

